



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2022ko azaroa

UEH IKERKETA PROIEKTUA

Udalerri Euskaldunetako Haurrak eta Euskara

Eider Saragüeta (DREAM ikerketa taldea - EHU)

Beñat Garaio Mendizabal (Soziolinguistika Klusterra)



Zuzendaria: Eider Saragüeta (DREAM ikerketa taldea, EHU)

Proiektuaren koordinatzailea eta txostenaren egilea: Beñat Garaio
(Soziolinguistika Klusterra)

Garapen Taldea:

Mariate Bizkarra (IkHezi ikerketa-taldea-EHU)

Iñaki Eizmendi (EBETE)

Garikoitz Goikoetxea (UEMA)

Jone Goirigolzarri (Deustuko unibertsitatea)

Karmele Perez (HUHEZI-Mondragon Unibertsitatea)

Sustatzaileak:

Soziolinguistika Klusterra

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)

Babesleak:

Nafarroako Gobernua. Euskarabidea Institutua

Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Saila

Creative Commons Aitortu-Partekatu-Berdin Nazioartekoa 4.0 (CC-BY-SA 4.0)
<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/legalcode.eu>

Aurkibidea

1	SARRERA	3
2	IKERKETA HONETAKO TESTUINGURUA	6
2.1	UEMAko euskararen ezagutza datuak	6
2.2	UEMAko udalerrietako euskara erabilera datuak	8
2.3	UEMAko ikastetxeetako euskararen erabilera	9
2.4	Ikus entzunezkoen kontsumoa UEMAko haurren artean	12
2.5	Eskola komunitateak kokatzen	14
3	METODOLOGIA	16
3.1	Helburuak	16
3.2	Ikerketa galderak	16
3.3	Haurren ikerketa	17
3.4	Azterketa kualitatibo eta parte-hartzailea	17
3.5	Erabilitako tresnak eta prozedura	18
3.6	Lagina	21
3.7	UEH ikerketa proiektuaren antolamendua	23
4	EMAITZAK	24
4.1	Hizkuntza erretratuen emaitzak	24
4.2	Orokortze mailaren arabera faktoreen azterketa	28
4.2.1	Herri guztietan errepikatzen diren faktoreak	30
4.2.2	Herri gehienetan agertzen diren faktoreak	41
4.2.3	Azpimarratu nahiko genituzkeen faktoreak:	65
4.3	Ikus-entzunezkoak	81
4.4	Herri profilak	89
4.5	Aztertutako diren herrietan azaldutako faktoreen kokapena	90
5	ONDORIOAK	98
6	ETORKIZUNERA BEGIRA	105
6.1	Esku-hartzerako lan-ildoak	105
6.2	Indarguneak, praktika onak eta etorkizunerako aukerak	108
	BIBLIOGRAFIA	111
	ERANSKINAK	114

1 SARRERA

Azken hamarkadetan euskararen egoerak hobera egin du nabarmen hainbat adierazleren arabera eta horretarako garrantzitsuak izan dira eskualde ezberdinetan eta Euskal Herri mailan abian jarritako hizkuntza politikak, gizarte ekimenaren batera (Ortega, 2017). Hala ere, hizkuntzaren egoera oso aldakorra eta ezberdina da, bai belaunaldiz belaunaldi, bai euskaraz hitz egiten den lurraldeetan. Esaterako, hiztun gazteen ehunekoa helduena baino altuagoa da gaur egun eta Gipuzkoako herriarren erdia euskaldunak diren bitartean, Nafarroan laurdena dira (Eusko Jaurlaritza, 2017).

Euskararen ezagutza indizea % 70tik gorakoa izan eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) parte izan nahi duten udalerriek osatzen dute mankomunitate hau. Gaur egun UEMA lurralde, tamaina eta ezaugarri askotariko 100 udalerri inguruk osatzen dute eta erakunde honen helburua arnagune horietako hizkuntza politikak elkarlanean eratzea da, testuinguru soziolinguistiko horretako ezaugarrietara egokituz (UEMA, d.g.).

Azken urteetan eremu erdaldunenak euskalduntzen ari diren arren, euskararen ezagutza eta erabilera datuek behera egin dute udalerri euskaldunenetan (Iurrebaso, 2019). Hain zuzen ere, 2017 eta 2021eko neurketak kontuan hartuta, % 80 eta % 90 bitarteko gaitasuna duten udalerrietan % 82,1etik % 79,2ra pasa da erabilera eta, % 86,4tik % 83,3ra, berriz, % 90 baino gaitasun handiagoa dutenetan (Soziolinguistika Klusterra, 2021a:37). Hainbat ikerketaren arabera, tartean Iurrebaso (2019), galera honen atzean inguruko hirietatik etxebizitza merkeagoen bila etorritako herritar ez-euskaldunen etorrera dago, baita bikote mistoen eraginez sortu diren hizkuntza ohitura aldaketak ere. Ezagutza-indizea % 70-80 tartean kokatzen den udalerrietan, osteraz, puntu bateko igoera egon da 2017tik 2021era, hau da, 2017an % 53,9 eta 2021ean % 55ko (Soziolinguistika Klusterra, 2021:37). Datu orokor bat ematearren, UEMAko udalerrietan % 61,1 da euskararen erabilera eta ez da alderik egon 2017 eta 2021eko neurketetan (Soziolinguistika Klusterra, 2021a:37).

Udalerrri euskaldun horiek euskaraz bizitzeko baldintza onenak dituzten herriak izanik, kezka sortu da udalerri euskaldunetako egoera izaten ari den bilakaerarekin eta etengabeak dira arnaguneak zaintzeko egiten diren aldarrikapenak. Horren aurrean, UEMA berak aktiboki erantzun dio sortu den erronkari eta askotarikoak dira

diagnostiko zehatza izateko gauzatu dituen ikerketak. Gainera, hainbat ekimen jarri ditu abian euskararen bizi-indarra areagotzeko.

Azken urteetan UEMAko udalerrietan gaztelaniaren erabilerak izandako ustezko gorakada belaunaldi gazteenetara ere iritsi dela ohartarazi dute hainbat aholkari. Kezka horien harira, ordea, datuek bestelako informazioa ematen digute: 2017an %70,5 zen haurren euskararen erabilera eta, aldiz, 2021eko neurketan %75,7. Haurrei egindako bi neurketen artean bost puntuko igoera egon dela ikusi dugu lau urteko epean, beraz (Soziolinguistika Klusterra, 2021:27).

Hala ere, esan bezala herritar eta eragileek hautematea bestelakoa da eta hainbat aholkari udalerri euskaldunetako haurrek euskaratik gaztelaniara egiten duten jauzia geroz eta goiztiarragoa dela ohartarazi dute. Hau da, euskaratik gaztelaniarako aldaketa 12 urterekin egin izan dela aipatu izan da, Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako aldaketaren abaroan. Gaur egun, ordea, 9-10 urterekin udalerri euskaldunetako hauek euskara erabiltzeko utzi eta gaztelaniaz hitz egiten hasten direla aipatu izan da. Erabilera-neurketek ez digute aldaketa hori ikusten ahalbidetzen, ordea, eta alarma-mezu hori hipotesi mailan utziko dugu momentuz.

Lerro batzuk gorago aipatu den gisan, haurren inguruko hautemate eta kezka ezkor batzuk ez datoz bat datuek erakusten dutenarekin, baina gaur egun UEMA eta Soziolinguistika Klusterrak duten lehentasun bat zenbaki eta kezka horien atzean dagoena ezagutzea eta ulertzea da. Hau da, euskaraz gutxiago egiteko faktoreak zeintzuk diren identifikatzeko beharra dago. Hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuetan, sarri asko belaunaldi gazteenei lehentasuna eman ohi zaie arrazoi askorengatik, bereziki 1) esku-hartzeko xede-talde egokiena/errazena dela uste delako eta 2) adin-tarte hau hizkuntza komunitate horretako etorkizuna dela irudikatzen delako. Hori dela eta, haur eta gazteenen datu soziolinguistikoak dira maiz arreta gehienarekin aztertzen direnak. Era berean, hizkuntzak biziberritzeko ekimen eta plangintza nagusietako asko haur eta gazteentzako diseinatzen dira (Costa, 2014).

Honenbestez, ikerlan honek haurrek euskaratik gaztelaniarako jauziaren atzean dauden faktoreak identifikatu ditu. Oro har, gizarte zientzietan eta gizartean haurren inguruko diagnostikoak haurren ahotsa txertatu gabe egiteko joera dago, hainbat arrazoi tarteko (Costa, 2014). Lan honetan uste da haurrak gizartearen parte aktibo

garrantzitsuena direla, horregatik, euskararen biziberritze prozesuan zilegitasuna eta lekua emateko helburuarekin, haurrak ikerketa-proiektu eta biziberritze prozesu honen erdigunean jarri ditugu. Beraien ahotsa entzunaz, helduek haurrei tokia utziz eta euskararen egoeraren inguruan haurrek dituzten bizipenak eta hausnarketak aintzat hartuz. Hori guztia, gainera, haur eta herrietako eragile ezberdinekin kontzientziazio ariketak landu diren bitartean.

Bukatzeko, jasotako gako, ideia eta hausnarketa horietatik euskararen erabilera bultzatzeko neurri eta estrategiak proposatzea ezinbestekoa iruditu zaigu. Era berean, garrantzitsua da euskararen biziberritze prozesuan zehar ikusitako aspektu positiboak eta indarguneak identifikatzea eta balioestea.

Beraz, hau da aipatu diren ezaugarri horiek guztiak biltzen dituen "Udalerri Euskaldunetako Haurrak eta Euskara: UEH ikerketa proiektua". Lana, UEMako gune geografiko eta aldagai ezberdinetako 7 udalerritan egin da, eta haurren testigantzak jasoz eta ikuspegiak ezagutuz herri bakoitzeko errealitateak ikertzea ahalbidetu du.


2 IKERKETA HONETAKO TESTUINGURUA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) 1991n sortu zenetik, hainbat aldaketa izan dituzte bai mankomunitateak berak, bai UEMArenekin parte izan diren udalerriekin ere. Ikerketa honetako testuingurua zein den azaltzeko, UEMako udalerrietako egoera soziolinguistikoa nolakoa den azalduko da eta ikerketa hau kokatzeko beste hainbat azpi-atal gehituko dira.

2.1 UEMAKO EUSKARAREN EZAGUTZA DATUAK


UEMAko udalerrien datu orokorrekin erreparatuta, euskaldunen kopurua % 76koa da, beste % 10,5 ia euskaldunena edo euskaldun hartzailleena eta gainerako % 13,5, berriz, erdalduna da, 1. grafikoa ikus daitekeen bezala. Bestela esanda, udalerri euskaldunetan euskaraz ulertu edota mintzo direnak % 86,5 dira. Euskal Herriko datu orokorrekin erreparatuz, % 28,4 euskaldunak dira, % 16,4 euskaldun hartzailleak eta, aldiz, % 55,2 erdaldunak (Eusko Jaurlaritza, 2016:3). Beheko grafikoa ikus daiteke bi eremuen arteko konparaketa.

1. grafikoa: HIZKUNTZA-GAITASUNA UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA EUSKARAREN EREMU OSOAN. 2016. Iturria: Eusko Jaurlaritza, 2016:3 (egileek moldatua).




Lehen hizkuntzari dagokionez, udalerri euskaldunetan biztanleen ia bi herenentzat (% 62,5) euskara lehen hizkuntza dela dio 2. grafikoak, % 30rentzat gaztelania eta % 7,5entzat euskara eta gaztelania. Euskararen eremu osoko datuen kasuan, berriz, gehiengoaren (% 79,5) lehen hizkuntza gaztelania da, % 15,10ena euskara eta % 5,4rena biak.

2. grafikoa: HIZTUNEN LEHEN HIZKUNTZA UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA EUSKARAREN EREMU OSOAN. 2016. Iturria: Eusko Jaurlaritza, 2016:9 (egileek moldatua).



Euskara hiztunen erraztasun handiagoko hizkuntzari dagokionez, bi eremu soziolinguistikoaren arteko aldea murriztu egiten da. Hain zuzen ere, udalerri euskaldunetako euskaldunen %51,1 da euskaraz hobeto moldatzen dena, Euskal Herriko euskaldunen % 44,5-ekin alderatuta. Bietan berdin moldatzen direnak % 33,5 dira udalerri euskaldunetan eta, aldiz, Euskal Herrian % 26 dira. Bukatzeko, gaztelaniaz euskaraz baino erraztasun handiagoa duten euskaldunak % 15,5 dira eta ia bikoitza, aldiz, Euskal Herri osoan (% 29,5).


3. grafikoa: EUSKAL HIZTUNEN ERRAZTASUN HANDIAGOKO HIZKUNTZA UDALERRI EUSKALDUNETAN ETA EUSKARAREN EREMU OSOAN. 2016. Iturria: Eusko Jaurlaritza, 2016:12, (egileek moldatua).



2.2 UEMAKO UDALERRIETAKO EUSKARA ERABILERA DATUAK

Erabilerari dagokionez, herri euskaldunetan euskararen erabilera nagusitzen da kalean (% 61,1), nahiz eta gaztelania ere erabiltzen den (% 36,9). UEMAKo hizkuntzen erabilera datu zehatzak 4. grafikoa daude ikusgai. Euskal Herriko datuekin alderatuta, euskararen erabilera % 12,6an dago gaur egun, konparazio bat egite aldera (Soziolinguistika Klusterra, 2022:17).


4. grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA OROKORRA. UEMA ETA TOLOSALDEA, 2021 (%). Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2021:18.



Umeen euskararen erabilerari dagokienez, UEMAko udalerrietan haurren solasaldien % 75,7 izan da euskaraz eta, gainera, adin-talde hori da euskaraz gehien egiten duena. Hortaz, argi ikusten da belaunaldi gazteenak direla euskaraz gehien egiten dutenak, are, bataz bestekoaren gainetik. Euskal Herri osoko datuak kontuan hartuta, haurrak dira euskaraz gehien egiten dutenak, baina datu orokorra % 19,3a da.

Haurren euskara-erabilera datuaren bilakaera emaitzari erreparatuta, 2017an % 70,5 izan zen (Soziolinguistika Klusterra, 2017). Honenbestez, lau urtean 5 puntu gora egin du euskararen erabilerak haurren artean. Datu argigarria da hau, izan ere, euskalgintzaren barruan eta ikerketa honetako erantzun askotan behin eta berriz esaten da hurrek geroz eta gutxiago egiten dutela euskaraz eta geroz eta adin goiztiarragoetan hasten direla gaztelaniaz egiten, euskara utzita.


5. grafikoa: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. UEMA ETA TOLOSALDEA, 2021 (%). Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2021a:27.



2.3 UEMAKO IKASTETXEETAKO EUSKARAREN ERABILERA

UEMAko ikastetxeetan fokua jarrita, Soziolinguistika Klusterrak bertako ikastetxeetako haurren jolas-orduko hizkuntzen erabilera orokorra aztertu du berriki (Soziolinguistika Klusterra, 2021b). 6. grafikoa ikus daiteke herri bakoitzeko ikastetxeetan hizkuntza erabilera orokorra zenbatekoa izan den.


6. grafikoa: IKASTETXEETAKO HIZKUNTZEN ERABILERA OROKORRA. UEMA, 2020-2021. Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2021b:7.



Aurreko grafikoa ikus daitekeen bezala, alde handia dago ikastetxe edota udalerrien artean, orokorrean euskara nagusi den arren.

Jarraian ikusten den grafikoa (7.a) aipatutako ikastetxeetako euskararen erabilera udalerrietako euskara-gaitasunaren indizearekin alderatzen da, horrela, espero zitekeen erabilera eta benetako erabileraren arteko aldea zenbatekoa den ondorioztatzen da.


7. grafikoa: UDALERRIKO EUSKARA-GAITASUNAREN ETA INDIZEAREN ARTEKO ALDERAKETA. UEMA, 2020-2021. Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2021b:12.



Erabilera altuena duten ikastetxeetako udalen kasuetan, -Markina-Xemein, Errezil edo Goizueta, esaterako-, ikasleen euskararen erabilera udalerri mailako indizea baino gorago kokatzen da. Beraz, esan daiteke udalerri horietan haurren erabilerarekin gehiago sendotzen dela euskararen erabilera. Hala ere, ikastetxe batzuetan udalaren indizearen azpitik kokatzen da ikasleen erabilera -Atxondon, Bergaran eta Basaburuan, adibidez-.

Gaitasunarekin alderatzeaz gain, ikastetxeetako euskararen erabilera udalerrietan behatutako hizkuntzen kale-erabilerarekin ere konparatu da. Ikastetxe ia guztietako ikasleen euskararen erabilera altuagoa da udalerrietakoa baino, 8. grafikoa erakusten den bezala. Hala ere, badaude salbuespen gutxi batzuk, esaterako, Ikaztegieta eta Goizuetan kale neurketetako datuek erakusten duten erabileraren antzekoa egiten dute ikasleek; Getarian, berriz, kale-erabilera altuagoa da ikastetxekoa baino.

8. grafikoa: IKASTETXEKO JOLASLEKUKO ERABILERA, UDALERRIKO INDIZEAREKIN ETA KALE-ERABILERAREKIN ALDERATUTA. UEMA, 2020-2021. Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2021b:14.




2.4 IKUS ENTZUNEZKOEN KONTSUMOA UEMAKO HAURREN ARTEAN

Ikus-entzunezkoek hartu duten garrantzia ikusita, berriki UEMAk udalerri euskaldunetako haurren kontsumoa aztertu du (UEMA, 2022). Ikus-entzunezko eskaintzak euskararen egoeran duen eragina kontuan hartuta, UEMako udalerrietako kontsumo-ohiturak azaltzeko hainbat datu emango dira jarraian.


Hasteko, ikus entzunezkoen barruan, telebista linealaren kontsumoa dago. Bertan, ETB1 da gehien ikusten den katea (% 36), hots, euskarazko katea (xehetasun gehiago 9. grafikoan). ETB1 ikusten duten ikusle horien artean, % 45,9k etxean euskara bakarrik jaso du, % 27k euskara eta gaztelania izan du, % 11,3k gaztelania jaso du eta gainerakoek beste hizkuntza bat izan dute (UEMA, 2022).

9. grafikoa: TELEBISTA KATEEN HAURREN KONTSUMOA UEMAKO HERRIETAN.
Iturria: UEMA, 2022:16.




Telebistaz gain, sare sozialak ere ikertu dira. Hain zuzen ere, YouTube da gehien erabiltzen dena, % 84,9k erabiltzen baitu (UEMA, 2022). Hala, sare sozial honetako hizkuntza erabilerari dagokionez, gehiengoak (% 70,5) gaztelarazko edukiak kontsumitzen ditu eta, euskarazkoak, berriz, % 9,4k bakarrik (zehaztasun gehiago 10. grafikoan).

10. grafikoa: UEMAKO HERRIETAKO HAURREK YOUTUBEN IKUSITAKO EDUKIEN HIZKUNTZA (%). Iturria: UEMA, 2022:31.




Musika entzuteko hizkuntzari dagokionean, berriz, YouTubeko erabilerarekin alderatuta euskararen erabilera altuagoa da. Hain zuzen ere, haurrek entzuten duten musikaren % 49,5 gaztelaniazkoa da eta euskarazkoa %25,8, 11. grafikoa ikusten den bezala. Beraz, YouTubeko erabilerarekin alderatuta musikaren kontsumoa euskaldunagoa izan arren, musika kontsumoaren erdia gaztelaniazkoa da, eta laurden bat bakarrik euskarazkoa, gainerako laurdena beste hizkuntza batean egiten baita.

11. grafikoa: MUSIKA ENTZUTEKO HIZKUNTZA UEMAKO HERRIETAKO HAURRENGAN (%). Iturria: UEMA, 2022:46.



Ikus entzunezkoekin amaitzeko, bideo-jokoetan erabiltzen den hizkuntza nagusia gaztelania da (% 54,4) eta euskarazko kontsumoa % 3,5koa da:

12. grafikoa: BIDEOJOKOEN ERABILERA, HIZKUNTZAREN ARABERA (%). Iturria: UEMA, 2022:50.



2.5 ESKOLA KOMUNITATEAK KOKATZEN

Herrietan gertatzen dena zehatz-mehatz ezagutzea oso ataza konplexua eta sakona denez, herrietako errealitatea talde jakin baten bitartez ikertuko dugu: hautatutako eskoletako haurrak eta eskola horietako eragile batzuk. Horrenbestez, esan genezake eskola-komunitatearen bidez izango dugula herri horietan gertatzen denaren berri eta, horregatik, eskola-komunitatea definitzen saiatuko gara ondorengo lerroetan.

Komunitatearen eta ekintza kolektiboaren lan-ildoan Melucci da aitzindari (Melucci, 1999). Ekintza kolektibo bakoitzaren atzean, bere esanetan, pertsonak daude, beraz, pertsonak osatzen duten nortasun eta komunitate partekatu eta soziala dago. Hain zuzen ere, hiru nortasun kolektibo mota bereizi izan dira (Castells, 2003): zilegitze nortasuna, erresistentzia nortasuna eta egitismo nortasuna. UEMAko komunitate batek hiruetatik du hein batean, hiztun komunitate bat finkatzeko lanetan partekatutako proiektu bat eraikitzen delako, mehatxu bati aurre eginez.

Komunitatera bueltatuz, Silversteinen (1998: 402) esanetan, hizkuntzen esparruan bi ikuspegi daude: hizkuntza-komunitateak eta hiztun komunitateak. Hizkuntza-komunitateak irudikatutako komunitateak dira, hizkuntza horren sorreraren inguruko mito partekatu bat duena (Anderson, 1997). Biztanleriaren edo talde baten arteko elkarrekintza erregularrak eratzen du, ordea, hiztun komunitatearen lotura. Costaren (2014:204) esanetan, egunerokoan elkarbizitzen duten praktika komunitateak dira hiztun komunitateak eta bere baitan hainbat hizkuntza har ditzakete. Hala, asko du hiztun komunitate batetik UEMAko udalerrri bateko eskola bateko kideek osatutako

eskola komunitateak, eta baliagarria da bi adieren arteko konparaketa, hizkuntza gutxituak biziberritu nahi duen herritarrez osatutako komunitate bat deskribatzeko. UEH ikerketa proiektuaren kasuan, eskola-komunitateak erabili ditugu udalerrri hauetan gertatzen dena aztertzeko sarbide gisa. Hautu metodologiko hori udalerrriak zehatz-mehatz aztertzeko ezintasunarengatik izan da hein handi batean, hau da, herri horietako eskola guztietako haur eta helduekin eta beste eragile batzuekin lan egitea ez zelako egingarria. Hau honela, hautatutako herrietako eskola-komunitate bakoitzeko ikasle, irakasle, zuzendaritza-kide, guraso eta herriko eragileen parte-hartzeari eskerrak ikertu dira UEMAn haurren hizkuntza-jarrera eta erabilera.

3 METODOLOGIA

Atal honetan hainbat dira metodologiaren inguruan ematen diren azalpenak. Lehenik eta behin, ikerketa honetako helburuak eta ikerketa-galderak ezagutzera emango dira. Jarraian, haurren ikerketek dituzten berezitasunak deskribatuko dira. Ondoren, azterketa kualitatibo eta parte-hartzaileen oinarritzko ezaugarriak partekatuko dira. Gero, erabilitako tresnak eta jarraitutako prozedura eta lagina deskribatuko dira. Ostean, aztertutako herrien testuingurua kokatuko da eta, bukatzeko, UEH ikerketa proiektuaren barne-antolamendua nolakoa izan den azalduko da.

3.1 HELBURUAK

Hauexek dira ikerketa-egitasmo honen helburu nagusiak:

- Haurrek ustez adin gero eta goiztiarragoan gaztelaniaz hitz egiteko faktoreak identifikatzea, errealitatea zuzenean euren bitartez ezagutuz
- Faktore horietatik abiatuta, hizkuntza aldaketarako estrategiak proposatzea

Bestalde, bi zeharkako helburu ere jorratu dira ikerketa honetan. Alde batetik, UEMAko udalerrietako hizkuntza-ohituren irudi orokor kualitatiboa osatzea, eta bestalde, ikerketako parte-hartzaileen artean hausnarketa soziolinguistikoa bultzatzea (haurrengan bereziki).

Ikerketa kualitatibo induktiboa da hau, izan ere, udalerri euskaldun batzuetako LH5. mailako haurren ekintzen behaketa eta analisitik abiatzen da eta azterketa horrek erakutsiko digu haur horiek zer nolako hizkuntza kontzientzia duten eta nola bizi duten hizkuntza hautuaren afera.

3.2 IKERKETA GALDERAK

Goiko lerroetan zehaztutako helburuetatik abiatuta, hiru dira ikerketa honetarako proposatzen ditugun ikerketa galderak:

- Zeintzuk dira haurrei euskaratik gaztelaniarako aldaketa egitera bultzatzen dieten faktoreak?
- Zer estrategia edo irtenbide sorta proposatu daiteke udalerri euskaldunetan euskararekiko atxikimendua eta erabilera areagotzeko?

- Zer dinamika, ageriko eta ezkutatu, ari dira garatzen udalerri euskaldunetan euskararen bizi-indarrari dagokionez?

3.3 HAURREN IKERKETA

Haurren ikerketetara etorriz, eleaniztasunarekin lotuta hizkuntza jabeakuntzaren prozesu, metodologia nahiz lorpenak ikertzeko helburuarekin, maiz aztertu dira ikasleak. Gutxi dira, ordea, ARRUE proiektuak 2011tik egin bezala hizkuntza biziberritzeko programetan dauden ikasleen jarrerak aztertu dituzten ikerketak, eta are gutxiago umeak erdigunean jartzeko helburua duten ikerketak. Hala, Hirschfeld-ek (2002) honako galdera iradokitzailea egin zuen izenburuan bertan: "Zergatik diete antropologoek beldurra haurrei?". Galdera horrek dituen inplikazioak kontuan hartuta, ahalegin berezia egin da ikerketa honetan haurren ahotsak biltzeko.

Costak (2014:201) azaldu bezala, hizkuntza gutxituak ikasten ari diren ikasleak irudikatutako hizkuntza komunitate horren parte dira. Izan ere, sarri, egunerokotasunean erabiltzen duten hizkuntza eta ikasten ari direna ezberdinak izaten da. Hala ere, etorkizuneko agertoki opagarria lortzeko ardura izango dute ikasle horiek (ibid.). Beraz, testuinguru horretan ulertu behar da beraien hizkuntza sozializazioa eta dituzten jarrerak. Horri lotuta, aipagarria da "Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia" izeneko lana (Hernández eta beste, 2020). Lan horretan, gazteen euskararekiko atxikimendua eta harremana aztertzen dira hizkuntza erabileran eragina duten faktoreak ezagutzeko asmoz. Horrela azpimarratzen dute egileek ikerketa gazteekin egiteko beharra:

"Gazteek, esan gabe doa, rol garrantzitsua jokatzen dute euskararen agertokian. Haien bizipenek, pentsaerek eta portaerek jakin-min handia sortzen dute, eta horiek ezagutzea estrategikoa da euskararen biziberritze prozesua bideratzeko"

(Hernández eta beste, 2020:4)

3.4 AZTERKETA KUALITATIBO ETA PARTE-HARTZAILEA

Ikerketa metodo desberdinak daude, baina atal honetan metodo kualitatiboan jarriko da arreta. Izan ere, metodo kualitatiboa proposa da aztertuko den laginaren testuinguru sozialari buruzko ikuspegiak jasotzeko (Morrow, 2001). Are gehiago, ikuspuntuak ezagutzeaz gain, errealitate bat sakontasunez ezagutzeko aukera ematen du, betiere ikerketa egiteko hautatzen den laginaren begiradak baldintzatuta (Docherty eta Sandelowski, 1998).

Bestalde, metodo kualitatiboak eskaintzen dituen tresna edo teknika ezberdinen konbinaketak ahalbidetzen du aztertwarengan gai jakin batek egunerokoan duen garrantzia arakatzea. Era berean, aztertuen harreman sozialetarako espazioek duten garrantzia ezagutzeko aukera eman dezakete. Jasotzen diren datuek parte-hartzaileen bizi-kalitatea hobetu dezakete, baita eguneroko esperientziak ulertzen lagundu ere. Era berean, lanetik jasotako datu zein emaitzek parte hartzaileak bizi dituzten egoerei buruz gogoeta egitera bultzatu ditzakete.

Gure lanari lotuz, gogoeta hori egitera bultzatu eta euskararen atxikimendua areagotzeko, hain justu, ikerketa parte-hartzailea erabili da lan honetan. Metodologia horren bidez, parte-hartzaileek elkarri konfiantza emateko eta onarpena lortzeko bitarteko bat eskaintzen du, banakako elkarriketek sor ditzaketen beldurrak saihestuz (Banister eta Booth, 2005).

3.5 ERABILITAKO TRESNAK ETA PROZEDURA

Esan bezala, erabili den metodologia kualitatiboa izan da, ikerketaren helburua hizkuntza ohituren aldaketa sakonki aztertzea izan delako. Aldez aurretik, esan beharra dago hautatu eta prestatutako tresna hauek helburu bikoitza zutela: azterketa burutzea eta parte-hartzaileengan kontzientziazio lanketa egitea. Edonola ere, ikerketa honetan erabilitako ikerketa-tresnak deskribatuko dira jarraian, hurrenez hurren:

1. Hizkuntza biografia eta hizkuntza erretratua¹. Hizkuntza biografiaren bidez, egunerokotasunean norbanakoak hizkuntzekin duen harreman eta erabilera ezagutu daiteke (Nekvapil, 2003). Lan honen kasuan, galdetegi bat prestatu eta haurren egunerokoan egon daitezkeen egoera ezberdinetan erabiltzen dituzten hizkuntzen inguruan galdegin zitzairen. Hizkuntza erretratuetan, bestalde, norberari bere izaera linguistikoa marrazteko eskatu zitzaion, gorputz baten silueta bati parte-hartzaileak nahi dituen elementuak gehituz. Hizkuntza-erretratuarekin marrazten duenaren hizkuntza kontzientzia ezagutu daiteke eta, gainera, haurrekin egiteko aproposa da (Kusters eta De Meulder, 2019:1). Hizkuntza erretratuen bitartez, halaber, erretrataturiko giza gorputza edukiontzi edo hizkuntzentzako kanal bezala ikus daiteke (Soares et al, 2020).

¹ A eranskinean kontsultatu daitezke erabilitako tresna hauek.

2. Testuinguruaren ezagupena. Tresna honen helburua umeek herrian egiten duten bizimodua ezagutzea izan zen, betiere hizkuntza esparrutik begiratuta². Horretarako, taldea azpi-taldetan banatuz, haurrei herriko txoko ezberdinak deskribatzeko eskatu zitzairen, bertan egiten zituzten ekintzak eta topatzen zituzten solaskideak azaltzeaz gain.

3. Hizkuntza hautuak (rol jokoak eta konfrontazio saioak). Bi teknika hauekin haurren entzute eta parte-hartze sozialerako prozesuak erdigunean jarri nahi dira, gai zehatz baten inguruan izandako bizipen eta usteak modu sakonean ezagutzea ahalbidetzeko (Castro, Ezquerria eta Argos, 2016:144). Rol jokoetan parte-hartzaileei irudikatutako egoera bat aurkeztu eta pertsonaia edo funtzio jakin bat ematen zaio. Prestaketarako minutu batzuk eman ondoren, egoera, pertsonaia eta funtzio horietan oinarritutako antzezlan labur bat egitea eskatu zitzairen haurrei. Konfrontazio saioetan, berriz, egindako antzezpenak elkarrekin (haurrak, irakasleak eta ikertzaileak) ikusi eta bertan azaldu eta egin zirenak komentatu ziren, agertutako egoera ezberdinei buruzko hausnarketetatik abiatuta.

4. Eztabaida taldeak (helduekin). Eztabaida taldeen³ helburua gai zehatz batzuen inguruan elkarriketatuek edo parte-hartzaileek ezagutzen edo uste dutena modu sakonean jasotzea da, baita beraien artean egon daitezkeen ikuspuntu ezberdinak identifikatzea ere (Amorrortu eta beste, 2009; McCarty, 2015). UEHren kasuan, eskolako irakasle, zuzendaritza kide eta guraso eta herriko eragileak gonbidatu ziren eztabaida taldeetan parte hartzera.

Lehen hilabeteetako prestaketaren ondoren, 2021eko urrian ekin zitzaion landa lanari. Ikerketa tresnak ikerketa honetarako beren-beregi egokitu eta sortu direnez, eta ikerketa proiektu honetako egingarritasuna zaintzeko, eskola pilotu batekin hastea aurreikusi zen (Ikaztegietako Herri Eskola). Herri horretan landa lana zuzenean hasi eta bukatuz, metodologia findu eta dedikazioak (zereginak/eginkizunak/eginbeharrak) doitzeari ahalbidetzen zuen antolaketa horrek.

Horren ostean, Araba, Bizkai eta Nafarroako beste hiru eskola hautatu eta landa lana hiruetan garatu zen aldi berean hilabetez, ezustekoren bat egotekotan gutxienez

² D eranskinean gehitu dira herriko testuingurua deskribatzeko jasotako bi lan.

³ Talde eztabaidetako gidoia kontsultatzeko, ikus B eranskina.

lurralde bakoitzeko eskola bana ondo aztertu ahal izateko. Bukatzeko, aztertze faltan ziren azken hiru eskolak aztertu ziren eta ikerketaren hurrengo faseari ekin zitzaion, hots, landa lanaren azterketa eta etorkizunera begirako estrategien proposamena. Esan beharra dago UEMA bera jarri zela herri eta ikastetxe hauekin harremanetan, ikerketa azaldu eta abian jartzeko.

Bi urte inguruko ikerketa proiektua den arren, eskolei eskatzen zaien dedikazioa mugatua izan da. Izan ere, ikas-maila bakarreko (LH5) ikasgela batean 2021eko urritik abendura tarteka egin ziren azterketak izan dira eta gehienez ere hiru tarte hartu ditugu:

- Arratsalde bat (edo goizeko bi ordu) biografia eta erretratua egiteko

Herri bakoitzeko ikasgelako haur guztiekin haurren hizkuntza biografia ezagutzeko ariketa bat egin zen. Gainera, ikasle bakoitzak bere hizkuntza erretratua osatu zuen. Horrek bide eman zuen ikaskide guztiekin euren bizipen eta hausnarketak partekatzeko.

- Haurren testuingurua lantzeko goiz bat (klasean eta euren kabuz aurre-lanketa bat eskatu zuen) eta egun berean arratsaldea rol-jokoa eta konfrontazio saioa egiteko

Horretarako, ikasleei euren toki kuttunak aukeratu eta deskribatzeko eskatu zitzaion, argazki/irudien bidez eta taldeka. Aurreko bi ariketetatik abiatuta, ikasleekin rol-joko bat egin zen herrian sortzen diren hizkuntza-hautuak antzezteko. Saio hori grabatua izan zen eta jasotako irudiekin ikasleekin beraiekin aztertu eta hausnartu zen egoera haietan eta haien errealitatean gertatutako hizkuntza-portaerez eta hautuez, taldeka.

- Arratsalde bat helduekin eztabaida taldeak egiteko

Eskoletako irakasle, zuzendaritzako kide, guraso eta herriko eragileekin eztabaida taldeak burutu ziren, lanari beste ertz bat gehitzeko asmoz.

Eskola parte-hartzaileen laguntzari eskerrak, ikerketa-taldeak herri horretako hizkuntza-ohituren inguruko gako esanguratsuak ezagutzea izan du helburu. Are gehiago, gako horietatik abiatuta esku-hartzerako proposamenak egiteko aukera izan da gerora, eta eskola eta herriko eragileentzako ekarpen baliagarria izan dela uste dugu. Halaber, ikerketaren metodologiak berak ikasle parte-hartzaileengan lanketa dakar berarekin, eta beraz, gure ikerketa ez da soilik helburua izan, eraldaketarako bitartekoa ere izan da.

3.6 LAGINA

UEMAK eta Soziolinguistika Klusterrak udalerri euskaldunetan euskararen erabileraren inguruko neurketak egin ziren 35 ikastetxetan (Soziolinguistika Klusterra, 2021b) eta horietatik 7 izan ziren "UEH ikerketa"-n aztertutakoak. Herri horien banaketa ondokoa izan zen: bina eskola Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan, eta bakarra, berriz, Araban⁴. Zehazki, Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek parte hartu zuten ikerketa honetan.

Jarraian aurkezten dira, hain zuzen ere, azertu ziren eskolak. Eskola hauek hautatzeko arrazoiak gehitu ditugu izenarekin batera, lehendik ere aipatu ditugun iturri ezberdinetatik hartutako irizpideekin (hala nola, Soziolinguistika Klusterra, 2021a; Soziolinguistika Klusterra, 2021b eta Soziolinguistika Klusterra, 2022).

- Araba: Aramaioko San Martin Eskola, Araban UEMAn dagoen ikastetxe bakarra.
- Bizkaia:
 - Dima-Ugarana eskola: herri mailan egindako hizkuntza plana duen eskola eta era berean erabileran behera egiten ari den herria
 - Bermeoko San Frantzisko: ezagutza-erabilera alde handia duen eskola publikoa, maila sozioekonomiko baxuagoa duten ikasleekin
- Gipuzkoa:
 - Ikaztegiako Herri eskola: herri eskola txikia da eta haurren euskararen erabilera txikiagoa da, herriko datuarekin alderatuta
 - Azpeitiako Iraurgi: arnagune handi batetako itunpeko eskola

⁴ Aramaio da lurralde honetako UEMako udalerri bakarra.

- Nafarroa:

- Berako Ricardo Baroja eskola: herriko ikastolako datuetatik behera eta herriko erabilera datuetatik hurbil dagoen eskola publikoa.
- Etxarri-Aranazko Andra Mari Ikastola: herriko erabileratik nabarmen gora ageri den ikastola.

Ikastetxeak aukeratzerako orduan baldintzak bi izan ziren, hots, eskola horretan erabilera neurketa eginda izatea eta ikastetxe-tipologian aniztasuna egotea. Hain zuzen ere, aniztasuna aipatzean ondorengo irizpideez ari gara: datu baikorrak eta ezkorak dituzten eskolak hautatzea (adib. erabilera eta ezagutzaren arteko gain-jartze ezberdina duten errealitateak aztertzea), herrien tipologia demografiko ezberdinak lantzea (handi-txiki, atzeritar jatorriko biztanleak dituen, etab.) eta eskoletako titulartasun ezberdinak arakatzea (publikoa, ikastolak eta itunpeko kristau eskolak).

Ikerketako lagina eskoletako zuzendaritzako kideekin eta irakasleekin batera aukeratu zen. Haurren kasuan, LH5. mailako ikasgela osoarekin landu zen, diseinatutako lanketa adin honetarako egokia zela iritzita. Eskola horretan lerro bat baino gehiago zegoen kasuetan ikasgela bakarra aukeratu zen. Horietan, eskolako zuzendaritza eta tutoreek erabaki zuten taldeen inguruko ezagutza zutelako. Helduen kasuan, berriz, 6 pertsona inguruko eztabaida-taldeak osatu ziren, berezko taldeak osatuz batzuetan (ikasgela bereko gurasoak eta eskolako irakasleak, talde ezberdinetan), eta epistemikoak besteetan (interesa zuten helduak talde berean multzokatuz, alegia).

Guztira, 7 herrietako 139 haurrek eta 43 helduk hartu zuten parte ikerketa honetan. Euren erantzunak kodifikatzerako orduan eta herrien identifikazioa anonimo bihurtzeko asmoz, herri bakoitzari ausazko zenbaki bat esleitu zitzaion eta "H" jarri da haurren aipua denean eta, "TE", berriz, helduen Talde Eztabaidatik ateratako pasarte zenean.

Amaitzeko, beheko taulan aztertu den herri bakoitzeko adierazle nagusiak partekatuko dira:

1. taula: AZTERTUTAKO HERRIETAKO DATU OROKORRAK. Iturriak: EUSTAT, 2021 eta Nafarroako Estatistika Institutua, 2021 (biztanleria, herriko jarduera ekonomikoa eta euskararen ezagutza⁵); Soziolinguistika Klusterra, 2021a (euskararen kale-erabilera).

	Aramaio	Azpeitia	Bera	Bermeo	Dima	Etxarri-Aranatz	Ikaztegieta
Biztanleria	1.495	15.329	3.759	16.839	1.476	2.489	476
Lurraldea	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Bizkaia	Nafarroa	Gipuzkoa
Euskararen ezagutza	% 83,1	% 83,69	% 71	% 72,7	% 82,5	% 73,6	% 79,1
Euskararen kale-erabilera	% 63,40	% 81,80	% 60,20	% 33,60	% 78,4	% 57,8	% 76,80
Herriko jarduera ekonomikoa	Industria % 26,4; zerbitzuak % 54; lehen sektorea % 13,8	Industria % 30,6; Zerbitzuak % 54,9	Lehen sektorea eta Industria, zehaztu gabe	Zerbitzuak % 52,6; lehen sektorea % 32,5	Industria % 12; Zerbitzuak % 63,8; eraikuntza % 13,6	Lehen sektorea eta Industria, zehaztu gabe	Industria % 35,1; Zerbitzuak % 60,4

3.7 UEH IKERKETA PROIEKTUAREN ANTOLAMENDUA

Txosten honen sarreran esan den moduan, proiektu hau elkarlanean egin dute Soziolinguistika Klusterra eta UEMak, azken honen eskariz. Elkarlan horretan beharrezkoa ikusi zen hasieratik beste eragile batzuen parte-hartzea eta, aipatu diren bi erakunde hauen lanetan ohikoa denez, Soziolinguistika Klusterreko arduradunaz gain (Beñat Garaio), proiektuaren zuzendari bat izendatu (Eider Saragüeta, EHUKO DREAM ikerketa taldea) eta Garapen Talde bat osatu zen. Garapen Taldea honakoiek osatu dute: Mariate Bizkarra (IkHezi ikerketa-taldea-EHU), Iñaki Eizmendi (EBETE), Garikoitz Goikoetxea (UEMA), Jone Goirigolzarri (Deustuko unibertsitatea), Karmele Perez (HUHEZI-Mondragon Unibertsitatea).

Ikerketaren diseinuaz arduraduna eta zuzendaria arduratu dira, eta ikerketaren mugarrietan Garapen Taldearen ekarpenak jaso dira, izan landa lanaren diseinua zehazteko, izan materialaren hustuketaren nondik norakoak gidatzeko, izan emaitzen azterketa partekatu eta osatzeko, izan bukaerako txosten honi azken ekarpenak egiteko.

⁵ Nafarroako bi udalerrien kasuan, datuak UEMak bidali zizkigun (argitaratu gabeak).

4 EMAITZAK

Metodologia atalean azaldu bezala, hainbat izan dira azterketa honetan zehar erabilitako teknikak. Aurkitutako emaitzen garapena bermatzeko, lehenik eta behin hizkuntza erretratuek emandakoa partekatuko da. Ondoren, hizkuntza jarrera eta hautuetan eragiten duten faktoreen deskribapena egingo da. Hirugarrenik, aztertutako zazpi eskola-komunitateetatik abiatutako herri profilen gure proposamena ekarriko dugu eta, bukatzeko, aztertutako faktoreen mapa kontzeptualak gehituko dira.

Kontuan izan behar da emaitzen atal honetan jasotako elementu guztiak partaideen uste eta bizipenak direla, baita haien inguruko errealitatea nola jasotzen duten adierazten duten hautemateak. Beste era batera esanda, emaitzetan jarritakoak partaideen ahotsak dira eta guk ahots horietan jasotakoa ekarri dugu lan honetara. Datu eta adierazle ezberdinek ez dute zertan elkarrizketatuen erantzunekin bat etorri behar, baina ikerketa kualitatiboa izanda aztertu ditugun eskola-komunitateetako kideek zer esaten eta uste duten ezagutzeko aukera izan dugu.

4.1 HIZKUNTZA ERRETRATUEN EMAITZAK

Hizkuntza erretratuen azterketarekin, haurrek aipatu nahi dituzten hizkuntzen garrantzia eta esanahia irudikatzen dituzte⁶. Zazpi herrietako haurren irudiak aztertu ostean, irudi horien inguruko hainbat ondorio atera daitezke. Interpretazio horiek hainbat irizpideren arabera atera dira eta, irakurleak irakurketa modu argiagoan egiteko, erretratuetan ikusitakoa modu eskematikoan ekarriko dugu. Ohar gisa, jarraian zerrendatzen direnak jasotako emaitza guztiak dira, adibide jakin batzuk gehituta.

1. Hizkuntzak nola irudikatzen diren aztertuta:

- Hizkuntza bakoitzari atal bat eskaintzen zaio arrazoi batekin
- Ausaz marrazten dira, ustezko argudiaketa-rik gabe
- Arropa balitz bezala: adibidez, "euskara da azala eta gainerakoak ondoren janzten ditugun hizkuntzak dira"
- Egunerokoan egiten diren ekintzen arabera

⁶ C eranskinean gehitu dira herri ezberdinetan jasotako hizkuntza erretratu batzuk.

- "Buruan euskara/gaztelania jarri dut hizkuntza horietan pentsatzen dudalako, belarrietan ere ulertzen ditudalako, begietan gaztelania telebista eta mugikorra gaztelaniaz ikusten ditudalako..."
- Hizkuntzari espazio/azalera jakin bat eman ahal zaio, duen garrantziaren arabera
 - "ez dio inporta tokiak, baizik eta kopuruak"
 - % zehatzak ere jarri izan dituzte haur batzuek

2. Hizkuntza bakoitzari emandako garrantzia aztertuta:

- Euskara
 - Leku gehiena duen hizkuntza
 - Berdinduta egon daiteke gaztelaniarekin
 - Leku txikia gordetzen zaio batzuetan (azala bakarrik, gorputza inguratzen)
- Gaztelania
 - Berdinduta agertu daiteke euskararekin
 - Haur batzuek garrantzia gehiago ematen diote gaztelaniari
 - "Garrantzi handia YouTubeko bideo gehienak gaztelaniaz ikusten ditudalako"
- Jatorrizko hizkuntza, hau euskara edo gaztelania ez denean
 - Toki garrantzitsuena (txinera edo wolofera, esaterako)
 - Hala ere, beste lagun txinatar batzuekin gaztelaraz egiten du ikasle batek eta berarentzako gaztelania oso garrantzitsua da
 - Familian hitz egiten diren beste hizkuntzak ere sartzen dira erretratuan (katalana eta galiziera)
- Frantsesa
 - Ia Beran bakarrik azaldu da
- Ingelesa
 - Toki gutxien izan ohi du normalean
 - Batzuetan gaztelaniak baino garrantzia gehiago izan dezake

3. Hizkuntza bakoitzari emandako tokia aztertuta:

- Euskara
 - "Hizkuntza bereziena denez, paratu diot leku bereziena (enborra eta bihotza)"
 - "Buru osoa euskarari euskaraz ikasten dudalako eta euskalduna naizelako"
 - "Ahoan paratu dut, musukoarekin batera, eskolan solasten garelako euskaraz"
 - Etxekoen euskalkia (ezberdina bada), desberdindu egiten da batzuetan eta buruan jarri
 - "Bihotzean jarri dut zeren oso garrantzitsua da, txiki txikitatik egiten dut hemen eskolan, hemen Bermeon asko hitz egiten da eta ezin da galdu"
 - "Gorputzeko zati handienari euskara, etxean euskaraz egiten dudalako"
 - Irudiko esku altxatuan euskara, askotan euskaraz agurtzen duelako
- Gaztelania
 - "Buruan gaztelania, lehena etortzen zaidana gaztelania delako"
 - Gaztelaniari ia gorputz osoa, hizkuntza erabiliene eta garrantzitsuena hori delako
 - Ileari/buruari askotan gaztelania jartzen zaio
- Frantsesa
 - Buruan, ikasten ari direlako
 - Hanketan, garrantzia gutxien duelako
 - Berako kasuan ingelesari baino toki gehiago ematen zaio
- Ingelesa
 - Buruan, ikasten ari direlako edo gehiago pentsatu behar duelako
 - Hanketan, garrantzia gutxien duelako
 - "Hankaren punta puntan: ez zaidalako batere gustatzen"

4. Hizkuntza bakoitzari emandako ezaugarria aztertuta:

- Nazio/estatu horri lotutako bandera marrazten dute batzuen ondoan, edo zuzenean hizkuntza hori ordezkatzeko duen banderaren koloreak marrazten dituzte

5. Hizkuntza bakoitzari emandako kolorea aztertuta:

- Kolore politena eman ohi zaio hizkuntza gustukoenari, adibidez, euskarari
- Beltza eman izan zaio gutxien dakien hizkuntzari

6. Hizkuntza erretratueta jaso diren berezitasun batzuk:

- Musukoa eta euskara kolore berekoak marraztu dituzte
- Ingelesa eta euskara/gaztelania kolore berekoak
- "*Latino*", "*mexicano*", "*portugués*", "*canario*", "*boliviano*"... hizkuntzak marrazten dira: sare sozialen bidez harremana duten hizkuntzak
- Gorputzeko atal batzuk, bereziki burua edota bihotza, hizkuntza ezberdinetan banatuta agertzen dira batzuetan
 - Gorputza bitan banatu daiteke: alde batean dakizkien hizkuntzak eta bestean ikasi nahi dituenak
 - Ikasi nahi dituenak: "*suizo*", greziarra eta eskoziera
- Ying yang moduko bat marraztu da, "gaztelania eta euskara orekan daudelako"
- Guraso bakoitzaren arabera banatu hizkuntzak
- Gorputz-atl oso bereziak zehatu, adibidez, hesteak marraztu eta hizkuntza bat gehitu bertan
- "Euskara jarri dut bermiotarra naizelako eta hemen euskaraz egiten da eta gaztelania nire aita bilbotarra delako eta han gaztelaniaz egiten delako"
- Ingelesari orokorrean oso toki gutxi ematen zaio eta garrantzia ere halatsu
- Batzuetan euren burua zehazki marrazten saiatu izan dira (Ikaztegieta, Bera)
 - Ikaztegieta kasu batean globo batean "hola!" gehitzen da
- Kasu askotan hutsuneak daude gorputzean zehar, ez zaizkie hizkuntzarik gehitzen

Azpi-atal honetan ikusi den bezalaxe, aztertu diren udalerri euskaldunetako haurrek askotariko loturak dituzte euren inguruko hizkuntzekin. Kusters eta de Meulderrek (2019) egindako lanean aniztasuna jaso zuten, eta gure lanak ildo bera erakutsi badu ere, guk jasotako erretratuetan aberastasun, aniztasun eta originaltasun handia ikus dezakegu, hizkuntzekiko lotura oso ezberdinak erakutsi dituztelako haurrek. Ariketa egiteko kontsigna edo azalpena berdina izan arren, haur bakoitzak bere modura interpretatu du zeregina eta hori irudien ezaugarrietan ikus daiteke, Melo-Pfeifer-ek ondorioztatu bezala (2015). Edonola ere, UEH ikerketaren parte izan diren haurrek kontzientzia eleaniztuna garatuta dutela esan genezake (ibid.). Eleaniztasun horren barruan, baina, euskara eta gaztelania dira hizkuntza nagusienak eta, bizi diren ingurua eleaniztuna izanik, haurrengan hizkuntza batek (gaztelania) duen dominantzia marraztutako erretratuetan islatzen da, Lauk (2016) ikertu bezala.

Aurreko paragrafoan, hizkuntza erretratu hauek literaturan aztertu diren beste erretratu batzuekin alderatuta aniztasun handiagoa dutela esan dugu. Hala ere, beste lan batzuetan jaso diren fenomenoak jaso dira gure marrazkietan ere, hala nola, hizkuntza garrantzitsuenari enborra, bihotza eta burua ematea, hizkuntza ezberdinak leku berean elkarbizitzan egotea, erabilera gutxi, baina atxikimendua duten hizkuntzei toki jakin bat ematea, hizkuntzen psikosomatizazioaren eta erabilera testuinguruaren arabera irudikatzea hizkuntzak (Kusters eta de Meulder, 2019), koloreak bandera, hautemate, bizipen eta emozioen arabera hautatzea eta lekua gaitasunaren eta gorputzaren funtzionamenduarekin lotuta erabakitzea (Melo-Pfeifer, 2015).

4.2 OROKORTZE MAILAREN ARABERAKO FAKTOREEN AZTERKETA

Aztertu diren 7 eskoletan jasotako material guztia kontuan hartuta, udalerri hauetan euskararen bizi-indarrean eta erabileran eragiten duten 148 faktore identifikatu dira. Horietatik 33 eskola-mailan kokatzen dira, 25 herrietan, 53 Euskal Herriko fenomenoak dira, 9 orokorrak eta, bukatzeko, 28 faktorek ikus-entzunezkoekin daukate lotura⁷.

Faktore asko dira ikerketa proiektu honetan identifikatu direnak, baina faktore horiek ez dira modu berean ageri aztertutako 7 herrietan. 148 faktore horiek nolako

⁷ F eranskinean lan honetan jasotako faktore guztien zerrenda partekatu da, eremuka antolatuta.

orokortze maila duten interesatzen zaigu, euskararen biziberritzean duten eraginera hurbilketa bat egiteko. Horretarako, hasteko herri guztietan errepikatzen diren faktoreak azalduko ditugu, ondoren herri gehienetan identifikatutakoak eta, bukatzeko, herri gutxitan jaso, baina hainbat arrazoiengatik azpimarratu nahiko genituzkeen faktoreak, izan joera aipagarriak daudelako, izan kasu partikular interesgarriak topatu direlako.

Bestalde, ikus-entzunezkoen gaiaren garrantzia oso azpimarratzekoa izan denez, aparte garatuko dugu, beste faktore eta eremuekin ez nahasteko. Edonola ere, faktore gehien kasuan ikerketaren tresna ezberdinekin bildutako aipuak gehituko ditugu, faktore bakoitzaren atzean dagoena hobeto ulertzeko asmoz.

Emaitza hauek aurkezten hasi aurretik, dena dela, hiru ohar gehitu nahi ditugu. Lehenengo ohar gisa, udalerri hauek ezagutzeko testuingurua eta herri horietara sarbide sinbolikoa haurrek eman ziguten, haiekin egindako ekintza guztien bitartez. Tresna ezberdinak erabiliz herri horien diagnostiko zehatz-samarra egin genuen ikasleekin. Edonola ere, haiekin pasatutako denbora mugatua izan zen, banaka elkarriketak egiteko ez zen astirik egon eta, ondorioz, euren herrietan gertatzen dena azaltzen duten haurren aipu gutxi jaso dira lan honetan. Hori dela eta, hurrengo orrialdeetan ekarri ditugun aipu gehienak herriko helduenak direla ikusiko du irakurleak eta ez, aldiz, haurrenak. Hala eta guztiz ere, haurrekin egindako lanketak funtsezkoak izan dira helduekin egindako eztabaida-taldeetarako galdera espezifikoak prestatu eta gehitu ditugun aipu horiek lortu ahal izateko.

Bigarren ohar bezala, jasotako aipuak eta iruzkinak ez dira lurralde ezberdinen arabera aztertuko, ikertutako herri kopurua mugatua delako eta bina eskola ikertuta egin daitezkeen irakurketak ez liratekeelako orokortzeko modukoak. Era berean, herrien azterketa indibiduala ere ez da lan honen helburuetako bat, besteak beste, lagina mugatua delako, eta, horrenbestez ez dira herriko egindako azterketak partekatuko emaitzen atalean (herrien profila proposatuko da labur-labur amaieran, ordea, 4.4. azpi-atalean).

Hirugarren oharrari dagokionez, emaitzen atalaren hasieran azaldu da ikerketa kualitatibo honetan elkarriketatuen usteak ekarri direla. Horrenbestez, jarraian gehitu diren faktoreen izendapena haur eta helduen erantzunetan oinarritzen da

gehienetan. Kasu gutxi batzuetan egileon behaketa eta irakurketetan oinarritu da faktoreen zehaztapena eta berezitasun hori adieraziko da testuan zehar.

4.2.1 Herri guztietan errepikatzen diren faktoreak

Herri guztietan jaso ditugun faktoreak azalduko ditugu jarraian. Lan kualitatiboa izanik, ikerketa honek ezin du faktore bakoitzak daukan eragiteko ahalmena ebaluatu, baina esan genezake herri guztietan azaldu diren faktoreak izanda, fenomeno horien hedadura handia dela aztertutako 7 eskola-komunitateetan.

Metodologia atalean azaldu den moduan, faktoreak eremuka azalduko dira, hau da, eskola, herria, Euskal Herria eta orokorrak.

Eskola mailako faktoreak

- Ikasgelatik kanpo gaztelaniaren erabilera handitzen da

Ikasgelan hizkuntza nagusia euskara izan arren, hortik kanpora gaztelania gehiago entzuten dela adierazi dute elkarriketatu askok. Eskola-komunitate batzuen kasuan alde hori nabarmen handia dela adierazi beharra dago, jasotako erantzunetan eta gure behaketetan oinarrituta.

*Guk ikusten dugu talde batzuk badirela erdaldunak, ikusten ditugu honerako bidean erdaraz hitz egiten dutela eta hona sartzean euskarara pasatzen direla lidergoarekin zerikusia du, baldintza berdinetan gure seme-alabek, belaunaldi desberdinketakoak, ohitura ezberdinak dituzte *2TE*⁸*

Txip aldaketa gertatzen da kaletik eskolara. Eskolara iristean mentalizatzen dira euskaraz egin behar dutela, baina hortik ateratzerakoan askok ikusten dute hori gaztelaniaz egiteko aukera. Horregatik, zaila egiten zait sinestea irakasleek esatea dena euskaraz egiten dutela.

*Inor ez zait zuzentzen gaztelaniaz, baina patiora irteteen edo batik bat txangoak egitean hor gaztelania asko igotzen da. Ludotekan ere asko beldurtu nintzen hango giroa ikusterakoan, taldetxo asko sartu ziren eta gaztelania nagusi zen askotan. Euskara hutseko zerbitzu bat zen eta ume eta begiraleak gaztelaniaz ari ziren. *6TE**

⁸ Herrien identifikazioa anonimizatzeko asmoz, herri bakoitzari ausazko zenbaki bat esleitu zaio eta zenbakiaren osteko "H"-ak haurren aipua dela adierazten du, eta "TE"-k, berriz, helduen Talde Eztabaida.

Goiko adibideetan herriko helduek gaztelaniaren eskolaz kanpoko erabilera deskribatzen dute. Helduek esanda baino, beheko aipuan haurrek eurek aitortzen dute hori gertatzen dela:

*Klasean lotsa ematen digu gaztelaniaz egitea eta patioan hazita gaude eta gaztelaniaz egiten dugu. Lagunekin euskaraz gehien klasean egiten dugu, gero patioan eta azkenik kalean. Adibidez, Alma etorri da klasera eta gaztelaniaz egiten diogu, baina euskaraz egin beharko genioke. *1H**

Aurreko adibidean, haurrek eurek autokritika egiten dute eta egoeraren oso jakitun dira. Gainera, jatorri ezberdineko ikasle baten iritsierarekin eurek deskribatzen dute nolako jarrera izan duten egoera aldaketa horren aurrean (geroxeago helduko diogu berriz gai honi). Esan liteke, gainera, kontraesanak dituztela sentitzen eta egiten dutenaren artean, aurreko eta ondorengo aipuetan ikusi daitekeen moduan:

*Gustatzen zaigu euskara, baina gero gaztelaniaz hitz egiten dugu patioan *6H**

Horren aurrean, erronka ikasgelaz kanpoko erabilera da eta horretarako neurriak hartzearen premia eskatzen dute hainbat helduk. Honi ere helduko diogu beranduago, baina momentuz ondorengo aipu hau utziko dugu:

*Esaten dute eskolan ez dagoela arazorik euskaraz hitz egiterako orduan, beraz, landu beharrekoa eskolaz kanpo dago. Gurasoen parte-hartzea lortu behar da gai honetan sakontzeko eta helburua lortzeko. *6TE**

Udalerri euskaldunetan egonda ere, gaztelaniaren erabilera ez da soilik aipatutako disoziazio honengatik. Izan ere, ikasle batzuek euskarazko gaitasuna ez dute hain garatua eta gaztelaniarako joera dute:

*Ikasle batzuei kostatzen zaie euskaraz egitea eta klasekideek gogorarazten diete euskaraz egiteko. Hala ere, gaztelaniaz egiten duten horiek kontziente dira horretaz. *8TE**

- Klasekideen hizkuntzak erraz identifikatzen dituzte

Aurreko aipuan bertan ikusi denez, haurrek pertsona bat hizkuntza batekin lotzen dute ("honek gaztelaniaz egiten du eta..." *6H*) eta, behin lotura hori eginda, pertsona horrekin dituen harremanak hizkuntza horretan egiten direla azaltzen dute. Ondorengo aipuan azaltzen da prozesua:

*Umeek erraz identifikatzen dute nogaz bai eta nogaz ez, zuzenean hizkuntza bat esleitzen diote interloktore bakoitzari. Helduek ere antzeko funtzionatzen dute. *1TE**

Euskararen erabileraren inguruan hausnartzean, haurrek argi dute zeintzuek duten erantzukizuna, eta fokua erdaraz identifikatzen dituzten klasekideengan jartzen dute, hurrengo adibidean bezala.

*“Deialdi bat egiten diot erdaraz hitz egiten duzuenoi euskara zabaltzeko” *3H**

- Guraso batzuek, eskola giroan ere, gaztelaniaz egiten dute

Ikerlariak egindako behaketetan oinarrituta eta haur eta helduek esandakoaz baliatuta, helduek eskola-giroan ere duten gaztelaniarako joera ere baieztatzen da. Horrenbestez, kontua ez da ikasleek gehiago egiten dutela ikasgelatik kanpo gaztelaniaz, baizik eta denek egiten dutela ikasgelatik ateratzekoan gaztelaniaz gehiago, izan haur edo heldu.

Herri mailako faktoreak

- Euskararen erabilerak behera egin du azken urteetan

Jasotako aipu eta hausnarketan arabera, haurren erabilerak behera egin du, herriko euskara erabilerak ere behera egin duelako. Hau honela, UEMAko herri batzuek bereizgarri zuten arnagune izaera zalantzan ikusten dute orain. Gogora dezagun, ordea, datuek ez dutela beherakada horren berri ematen. Edonola ere, beheko bi testigantzetan bi herri nola eraldatu diren ikus daiteke:

Ni ikaztegiatarra naiz jaiotzez eta nabaritzen da gure garaian askoz euskaldunagoak ginela. Garai horretan dena zen euskaraz eta gaur egun parkean ikusten da familia eta umeak erdararako joera dutenak.

Gu eskola honetako ikasleak gara eta pertzepzioa dugu orain askoz gehiago egiten dela gaztelaniaz. Lehen kanpokoren bat egoten zen klasean (Anoetakoa), erdararako joera gehiago zuena eta oso deigarria zen. Hala ere, euskarara erakartzen genuen denak ginelako euskaldunak. Hori bai, kaletik ibiltzerakoan min handia

*hartzen dut gaztelaniaz etengabe entzuten ditudalako herritarrak (eta umeak) eta lehen ez zen hau gertatzen. ***IkaztegietaTE****

*Yolanda Arrieta idazlea etorri zen, pentsatuz herri oso euskaldun batera zetorrela eta gelditu okindegian eta erdaraz, eta gelditu tabernan eta erdaraz. Eta pentsatu zuen, aiba, nora etorri naiz? Dima ez da hain euskalduna, asko galtzen ari da. Guay legoke ikustea Dima herri euskaldun bat dela eta hor sartzen ari zarela. Lantzea herri-nortasuna. ***DimaTE****

- Eskolan gertatzen dena herrian gertatzen denaren isla da

Haurren erabilerak behera egin duela adierazi dute elkarrizketatuek, herriko erabilerak behera egin duen bezala (bi kasuetan datuek besterik esaten digute). Honen harira, hainbat erantzunetan ikusten da eskola eta herria gunekonektatuak direla eta antzeko joera eta dinamika gertatzen direla aldi berean:

*Eskolan gertatzen dena da herrian gertatzen denaren isla da. Guraso euskaldunek erdaraz egiten dute eta gero ikasleek hori errepikatzen dute. Ez dugu zertan guraso erdaldunetara joan beharrik eta erraza da identifikatzen erdaraz egiten duen umeak zein duen atzean hizkuntza erreferentea (aita, aiton-amonak,...). Eta adibide garbi bat jarritz, Aramaio tabernetan dena gaztelaniaz entzuten da. ***AramaioTE****

Bi errealitateak (eskola eta herria) berdinak ez diren arren, bien arteko lotura egon badagoela diote elkarrizketatuek:

*Eskolako errealitatea eta herrikoa ez dira berdinak. Herrian beherakada izugarria izan du euskararen erabilerak, gurasoak ez gara eredu (bariku arrasti baten poteoan erdaraz, euskaldunoi ere) eta haurrengan eragina du. ***5TE****

- Guraso eta herriko helduak ez dira haurren eredu ona, hizkuntza ohiturei dagokienean

Goiko aipuan agertzen da lehenengo aldiz guraso eta helduen jokabideek haurrengan duten eragina. Gai hau etengabe azaldu den kezka eta iruzkin bat izan da, salbuespenik gabe. Eredu egokia ez izatearen arrazoiak bilatuz, kontzientzia falta,

⁹ Kasu batzuetan, aipua zein herritan kokatzen den jakitea agerikoa da eta, kasu horretan, herriaren izena gehitu da. Horrela, kodeen anonimizazioa bermatzen da emaitzen hustuketan zehar.

ohituren indarra eta abarrekoak aipatzen dira, txosten honetan zehar xehatzen joango garenak:

*Problematizatu eta politizatu behar da hizkuntzaren gaia, kontzientzia gehitu. Ezin diegu haurrei eskatu helduok egiten ez duguna. Guk esaten diegu euskaraz egiteko eta beraiek "eta zuek zer!". Denak eragiten du euskararen egoeran, hartutako inertiak... 20 gara kuadrillan eta ez dugu lortzen euskaraz egitea (batzuek lortu dugu). Beste kuadrilla batek klik bat izan zuen eta geroztik dena euskaraz egiten dute. *7TE**

*Helduek denetarik egiten dute, estrategia ezberdina dute (dena euskaraz, errazena gaztelaniara, bietara,...). Baina orokorrean gaztelaniara egiteko joera dugu norbait euskalduna ez denean eta jendeak ez du beharrik ez ikasteko ez erabiltzeko. *7TE**

Erantzunetan irakurri dugunez, helduen jokabidea ez da berdina kasu eta testuinguru guztietan, euskarazko kontzientzia lortzen dutenak badaude, baita saiakerak egiten dituztenak ere. Hala ere, kasu askotan gaztelania da nagusi helduen artean:

*Zenbat familia daude bi gurasoak euskaldunak izanda gaztelaniaz egiten dutela. Lagun mallorkar batek esaten omen dio zuek euskaraz bakarrik txakurrari eta umeei egiten diezue. *7TE**

- Eskualdeburuek eragina dute aztertutako herriko haur eta helduen hizkuntza jarrera eta erabileran

Eskualde gehienetan herri nagusiak eta horien orbitan mugitzen diren herri txikiagoak daude. Era berean, eskualdeburu horiek hiriburuaren eraginpean egoten dira. Herrigune nagusi bakoitzak bere ezaugarri eta dinamika soziolinguistiko ezberdinak ditu eta herri txikiagoengan eragina du ezinbestean, jasotako erantzunekin ikasi dugun moduan. UEH-ren kasuan, aztertutako herri batzuk eskualdeburu ziren arren, gehientsuenak eskualdeko herri txikiagoak ziren. Egunerokoan maiz joan behar izaten da eskualdeburuetara hainbat arrazoiengatik, eta horrek bere ondorioak ditu:

*Plaza zaila da Arrasate, [arrasatearrek] imitatzen dituzte aramaioarrak, distantzia bat dago (pozirik gabe esaten dut). Ardura izaten dugu haurrak Arrasatera ikastera joaterakoan zer aurkituko duten: adibidez, bertako ikaskide batzuek arazoak izaten dituzte euskara klaseak jarraitzeko. *AramaioTE**

Herri ezberdinetako pertsonen arteko harremanetan hizkuntzarena gai garrantzitsua dela jaso da erantzunetan, herriak elkarren ondoan egon arren hizkuntza nagusiena beste bat izan daitekeelako. Jarraian horren adibide bat:

*Aspaldiko joera da, herrien arabera da ohitura, baina nik egiten nuen. Ni eta Arbizuko batek euskaraz eta Lakuntzako bat bazegoen gaztelaniaz. Gaur egun berdina da eta umeek identifikatzen dute zein herritakoak diren, zein ohitura dituzten eta horren arabera aukeratzen dute hizkuntza. ***EtxarriTE****

Beraz, kasu honetan ere berriro azaltzen zaigu identifikatutako hizkuntzarena, horrek azken finean eragina duelako hizkuntza hautaketan.

- Herrian espazio erdaldun markatuak daude, baita gaztelaniarako joera handiagoa duten ekintzak eta jarduerak ere

Elkarriketatuen ustez, haur edo heldu, ez da bakarrik pertsona jakinak erdal hitzun bezala identifikatzen direla, baizik herriko gune edo momentu batzuetan hizkuntza baten presentzia askoz hedatuagoa da. Herri euskaldunak izanda, gaztelaniaz funtzionatzen duten espazioek deitzen dute arreta gehien:

*Futbol zelaia bada identifikatutako gune erdaldun bat, nabaritzen da hara doazenean edo hortik datozen gaztelaniaz egiteko ohitura dutela. ***6TE****

Ikertzaileek haurrekin herriko testuingurua ezagutzean, zuzenean edo zeharka galdetuz atera dira gaztelaniaz gehiago hitz egiten diren espazioak: herri batzuetan frontoia edo kiroldegia da, beste batzuetan gozoki denda, beste batzuetan tabernak... Argi dagoena da herri horietan gaztelaniak ere badituela bere 'arnasguneak'.

Euskal Herri mailako faktoreak

- Gaztelaniak izugarritzko erakarpen eta presentzia du, baita udalerri euskaldunetan ere

Aztertu ditugun herri batzuk arnasguneak dira, beste batzuk, berriz, udalerri euskaldunak. Herritar asko euskaraz bizi dira, euskara dute beraien hizkuntza nagusia eguneroko momentu gehienetan, baina, hala ere, horrelakoetan ere gaztelania txoko guztietara iristen dela jakinarazi digute partaideek.

*Erdarak kriston indarra du: haserretzeko indarra, jolasteko, txiste bat egiteko... deskubrimendu bat da eta oso gogoz hartzen dute, izugarrizko arrakasta du. Trakets moldatzen dira gaztelaniaz, espontaneoki ez dira ondo moldatzen, baina grabatutako/buruz ikasitako esapideak denbora guztian erabiltzen dituzte *4TE**

Gaztelania toki guztietara iristen da, horrek ematen du ezin dela ekidin. Partaideentzat gakoa, ordea, egoera horretan zer egitean datza:

*Nahiz eta euskara izan gure etxeko hizkuntza gaztelaniak presentzia dauka, ezin da ekidin. Egin daitekeena da egunero-egunero sinatu hizkuntza kontratua. *5TE**

- Belaunaldi aldaketa azkarra gertatu da, bai herrian, bai familia barruan ere: gaztelania azkarrago eta indartsuago sartzen ari da

Herriak aldaketa etengabea daude, baina eskola-komunitate guztietan ikusi dugu aldaketa batzuk belaunaldi barruan ere gertatzen ari direla. Ia bat-batean eta azalpen argirik gabe, familia bereko seme-alaba batzuek bizipen eta ikuspegi guztiz ezberdinak dituzte euskararekin:

*Bi alaba eta egoera oso ezberdina: alaba zaharrenaren taldean euskara batik bat eta gazteenaren kasuan bereziki jotzen dute gaztelaniara. Ez dakit zein arrazoi egon daitezkeen horren atzean, baldintza edo testuingurua berdina denean *2TE**

*Alde handia dago adin-tarteen arabera: seme-alaba zaharrenek euskara gehiago ikusten zuten eta gaztelania gutxiago kontrolatzen zuten; gazteenek harreman goiztiarragoa dute gaztelaniarekin eta gaztelaniaz nabaritzen da maila hobea dutela (askotan euskararen kaltetan). *5TE**

Egoera ez da bakarrik gaztelania bete-betea sartu dela azken urteetan, baizik eta hortik haratago doan aldaketa bat izan da, ondorengo aipuan ikus daitezkeen eran:

*5. Mailan geundenean apenas genekien gaztelaniaz, eta gaur egungo 5. Mailako ikasleek izugarri kontrolatzen dute. Eta ez bakarrik gaztelania e? dena dakite! Nire bi seme-alaba zaharrenek arazoak gaztelaniarekin eta gazteenak izugarrizko erraztasuna du. Alde handia dago adin-tarte ezberdinetan duten euskara mailan eta gaztelania-mailan, batek bestea kaltetzen du gaur egun. Zeharka landu beharko litzateke euskarazko ahozkotatuna eta ez da zuzentzen euskarazko erdarakada egitean. Ez digu egiten kalanbrerik. *3TE**

Bukaeran "ahozkotasuna lantzeko beharra" eta "kalanbrerik ez egitea" aipatzen dira, beherago azalduko diren gaiak, alegia.

- Hizkuntza kontzientzia jaitsi da eta euskararen biziberritze prozesuak nekea eta ezkortasuna eragiten ditu

Euskararen erabilera jaisten ari omen den honetan, ikasle batzuek "Euskara galdu egingo da" (*1H*) esan eta helduek, berriz, beste honako hau: "Txakurrei eta haurrei euskaraz egitearena gaingitu dugu, orain erdaraz egiten diegu" (*1TE*).

Datuek, ordea, ez dute beherakada horren berri ematen: euskararen erabilera mantentzen ari da, ezagutza igotzen eta zer galdu da irakurketa ezkorrak egiteko, beraz? Erantzunak ikusita, hizkuntza kontzientzia eta euskararen biziberritze prozesuaren indarra izan liteke erantzuna:

*"Hizkuntzak galdu du bere indarra, identitatea izatearen parte hori, ematen zitzaion garrantzia,... Kosta da honaino iristea eta gaur egun etxe batzuetan ez da horri balioa ematen. Transmisio horretan balioek galdu dute. Lehen hitza euskaraz egitearen ohitura galduta dago. Guk ez genekien erdaraz Tolosara edo unibertsitatara joan arte eta gaur egun edozeinek daki ***IkaztegietaTE****

Aurreko aipuaren harira, beheko adibidean lehenago azaldu den helduen inkoherentzia ere aipatzen da:

*Pasotismo kontua izan daiteke. Jendea dago hautua egin duena eta kontzientzia duena, baina badago beste jende bat ardurarik edo kezkarik ez duena. Ezin diegu denei exigitu kontzientzia hori. Baina beste batzuetan inkoherentzia handia ikusten da: "hitz egin euskaraz!" eta gero zu gaztelaniaz. Eta ez bakarrik hizkuntzaren kontuan. Ez duzue uste militantzia horretan sentimenduak galdu direla? Euskal kontzientzia. ***5TE****

- Euskararen aldeko militantziak ez du erabateko onarpenik eta ez du ilusiorik pizten

*Ni horrelakoak esaten joan naiz herritik, baina batzuetan gaizki begiratzen didate: "euskaldunak gara, euskaraz egin behar dugu beraiek ere egin dezaten", "zuek ez al dakizue euskaraz?..." ***6TE****

Goiko adibidearen harira, erantzun askotan euskal militanteen bakardadea eta nekea jasotzen dira, garai bateko ilusio eta aparrarekin alderatuta. Militanteak geroz eta

gutxiago dira, eta geroz eta nekatuago daude. Hurrengo aipua oso luzea den arren, modu argian egoera zein den deskribatzen du:

Militantzia galtzen ari da. Niretzako pisutsua da jendearen atzetik ibiltzea. Orain dela 25 urte ez ginen inoren atzetik ibili behar eta kostatu egiten zitzairen gaztelaniaz egitea. Gaur egun denbora guztian beraiekin atzetik ibili behar gara eta lehen ez zekiten zer zen 'jueves'. Horren harira, semeak hori galdetu zidanean egunean ordu erdiz hitz egiten genuela gaztelaniaz.

Gure militantziak ez du kontajiatzen, eta besteen militantzia oso erraz agortzen da. Batzuei ez die txirriatzen gaztelaniaz entzuteak. Belaunaldi arteko aldea: semeak Arrasaten dena gaztelaniaz eta guk dena euskaraz egin genezake.

Kriston tomatea daukagu eta gurasoen artean nortzuk etorri gara: militanteak. Eta besteak non daude? Ez zaie interesatzen edo gai tentsiodun bat da edo... Ez da garrantzitsua eta gainera koloreak aterako dizkizute? Hemen badakigu euskaraz, zertarako parte hartu?

Ez da bakarrik euskararen gaiarekin gertatzen den zerbait? Zein apoltronatuta bizi garen denok. Zenbat ekimen jartzen dituen martxan eskolak eta zein pertsona gutxi egoten diren horrelakoetan.

Baina beste mota batetako konpromisoak? Hori bai betetzen dela! Ez bazoaz danborra nola jotzen duen ikustera hori zigortua da.
AramaioTE

- Euskara nola sustatu daiteke maila diskurtsiboan gaur egungo egoeran?

Ikusi da udalerri euskaldun gehienetan euskararen erabilerak behera egin duela azken urteetan, edo hori da behintzat elkarrizketatu ditugun herritarren hautematea. Era berean, aurreko puntuan hainbatetan adierazi da euskarak ez duela ilusiorik pizten eta, sentiaraztekoan, nekea dakarrela. Ez da zertan partaide guztiek pentsatzen duten kezka izan behar, baina ilusio falta horren aurrean nola hauspotu herritarren gogoak euskaraz gehiago egin dezaten? 'Zerbait' berria behar da euskara bultzatzeko, hurrengo aipuetan ikusiko den moduan.

Eta "euskaraz egin" eta "euskaraz egin" esanez ez gara mezu egokia banatzen ari, beraiekin gaztelaniarako hurbilpena elikatzen du. Ez dakigu zer pasatzen ari den umeen ohiturarekin eta ez dakigu zein da gakoa. Guraso eta ikasleen sentsibilizazioa? Guk etxeko lanak eginda izango bagenu bezala jokatzen dugu. Ez dugu imajinatzen Azpeitia herri erdaldun bezala, gure argazkia oso ezberdina delako. Baina ez dugu hausnarketa kolektiborik egiten. ***AzpeitiaTE***

Hurrengo aipuan, herriko eragile batek beste hizkuntza gutxitu batzuetan egindako gogoeta erabiltzen du euskararen biziberritze prozesua bidegurutzetik norabide egokian ateratzeko:

*¿Qué me da a mí el aimara o el quechua que no me dé el castellano? Dena ematen badit gaztelaniak galduta gaude eta jakin behar dugu galdera horri ondo erantzuten. Zein da euskalduna Aramaion? Zer da euskalduna Aramaion? Zein atributo ematen dotzau euskaltasunari? Kontzientzia hori etxean eta eskolan landu behar da, bestela toki bakarrean gelditzen da eta indarra galtzen du. Tatuaje existencial barrutik. ***AramaioTE****

- Atzerritar jatorrikoen hizkuntza integrazioa kezka iturri da

Gehiago edo gutxiago, herri guztietan udalerritik kanpoko herritarrak iristen dira, izan eskualdekoak, izan Euskal Herrikoak, estatukoak edo estatutik kanpokoak. Udalerrri euskaldunetan iritsi berrien hizkuntza harrera ikerketaren momentu askotan azaldu den gaia da:

*Zer egin atzerritar jatorrikoekin? Askotan gaztelaniaz egiten dugu, baina militantzia handiarekin euskaraz egin behar dugu. Hala ere, askotan euskaraz erantzuten dizute eta ez dugu espero. ***2TE****

Ez bada euskarara bideratuko duen hizkuntza harrera bat egiten, hauxe da parte-hartzaileen ustez gertatzen dena:

*Kanpotik datozenek beraien hizkuntza ikasi eta hona etortzean gaztelania ikasten dute. Zergatik ez dute euskaraz ikasten? Euskaldunok ez dugulako gure hizkuntza finkatuta. Asimilazio kulturala da hau, kulturalki erosoago gaude gero eta gehiago espainolak sentituz eta hor hizkuntza beste ondorio bat da. Ez da bakarrik hizkuntza kontua, bakarrik hizkuntza kontua balitz konponbidea askoz errazagoa izango litzateke. Katalunian hau ez da gertatzen, lehen hizkuntza Katalunian katalana da eta hemen ez. Eta herrietan bueno, baina hirietan egoera okerragoa da. ***1TE****

Antzeman daitekeen bezala, hizkuntza gutxitu bat da euskara eta ahulezia horrek arazo batzuk sortzen ditu. Horren aurrean, gorago aipatzen zen militantzia, proaktiboa izatea eta koherentzia dira aipaturiko ezaugarri batzuk, gaineratu duten moduan:

*Herri honetan begiratu etorkinen parte-hartzea herrigintzan: saharar bat etorri zen bilera batzuetara eta geroztik ez da inor etorri. Guk ere ez baditugu euskarara erakartzen edota herriko bizitzaren parte egiten ez gara nahastuko. kulpa bota atzeritarrei euskararen gaiarekin eta bertakoak dira gaztelania gehiago erabiltzen dira.(taldekideen haridura keinu eta hitzei erantzunez) Bai, gu gara. *6TE**

Faktore orokorrak

- Haurtzaroa eta nerabezaroa garai funtsezkoak dira nortasunaren eraikuntzarako

Haurren hitzetan eta helduen erantzunetan ikusten den bezalaxe, helduak ere jakitun dira euren ikasle eta seme-alabak adin berezi batean daudela. Hein batean, horren jakitun dira beraiek ere egoera berdinetik pasatu direlako:

*Nik ingelesez kantatzen nuen ez nekienean Bordatxo diskotekan kantatzen ere ez nekien arren eta orain gure umeei gertatzen ari zaie berdina gaztelaniarekin. Adinak eta adinak daude, eta orain adin zailean daude. *BeraTE**

Geroago azalduko den bezala, gaztelaniarako hizkuntza muda egiten da nerabezaroan, euren nortasunaren eraikuntzan jokoan sartzen diren beste eragile batzuek duten indarrarengatik. Talde eztabaidan aipatu duten eran, gakoa, ordea, euskarara itzultzea da, ahal bada jakinda nola egin dezaketen itzulerako bide hori:

Topatuko bagenu zerk erakarri gintuen euskarara eta beraien kasuan berdina lortu? Inoiz baino errazagoa daukate euskaldunak izateko (dena dute euskaraz) eta gaztelaniara jotzeko ohitura.

*Oso garai txarrak dira eta autoestima landu eta nortasuna eratzekeo prozesu bete betean daude. Nolabait fase hau aguantatu beharko genuke bizipen eta jarrera positiboak injektatzeko eta baldintza edo fase aproposago batean saiatzea euskarara erakartzea. Sentimendu bat egon behar da txikitatik, horrela hazi zaituztelako edo horrela bizi duzulako. Eta horrekin esperantza dut itzultzea. Hizkuntza ez da gakoa garai hauetan *5TE**

Izan ere, eta ikerketa proiektu hau ere abiapuntu berdinetik dator neurri batean, komunitateek biziberritze prozesuaren ardura belaunaldi gazteei atxikitzen diote, hauek beste errealitate batean bizi direnean. Honen aurrean, tentuz jokatu behar da:

*Zama ezin zaie jarri umeei. Nik semeari euskaraz hitz egitearen inguruan galdetzea "ama, nik besteen lakoa izan gura dot" erantzuten dit *1TE**

4.2.2 Herri gehienetan agertzen diren faktoreak

Ondorengo lerroetan, aztertu diren 7 herrietako gehienetan jaso diren faktoreak azalduko dira. Aurretik esan bezala, herrien erdietan edo gehiagotan azaltzeak ez du ebazten faktore horien eragiteko ahalmena, baina informazio baliagarria eskaini dezake herri horietako dinamikak ulertzeko orduan.

Eskola mailako faktoreak

- Irakasle eta begirale batzuek gaztelaniaz egiten dute euren artean eta haurrekin

Gorago esan dugu helduek dutela gaztelaniaz egiteko joera gehien, baita eskola giroan ere. Bada, kasu batzuetan, irakasle eta begirale batzuek lan-orduan eta eskola-giroan gaztelaniaz egiten dutela jaso dugu eta horrek erreakzioa sortu du:

*Ez da profesionala hemen irakasle eta begiraleek gaztelaniaz egitea. Hemen dugu neglijentziarako tolerantzia itzela. Eskolatik kanpo ez dut zeresanik, baina hemen barruan... *1TE**

Haur eta helduek esateaz gain, ikerlariok hainbat eskolatan jaso edo ikusi dugu praktika izan da hau eta arestian aipatu dugun inkoherentzia horren berri ematen du.

- Gaztelaniaz 'hainbeste' egitearena berria da eskola batzuetan

Udalerrri euskaldunetan gaztelania hitz egitearen 'mamua' aspaldikoa dela adierazi dute heldu batzuek, baina herri batzuetan gertakari berria dela jakinarazi dute, batik bat umeen artean:

*Orain dela 4-5 urtera arte ez ginen seme alaben atzetik egon behar euskaraz hitz egiteko (semeari kaletik egiteko esan diot eta mina ematen dit, etxetik euskalduna izanda)... aukera berria da eta egoera konplexua da *2TE**

Fenomeno berria izanda, egoerak kezka sortzen du, batik bat espero ez zitekeen puntura iritsi delako gaztelaniaren erabilera:

Irakasleei ere erdaraz egiten digute, lehen ez zen hau gertatzen
1TE

- Norberaren etxeko hizkuntza, ohiko hizkuntza eta erraztasun handiagoko hizkuntza euskara ez duten ikasleak daude

Gaztelaniaren erabileraren atzean hainbat dira dauden arrazoiak. Orain arte batzuk aipatu ditugu (esaterako, gaztelaniaren erakarpena), baina garrantzitsuenetariko bat herriak bizi izan dituzten aldaketa demografikoa da: herritarren profila aldatzen ari da, baita soziolinguistikoa ere.

*Etorkin jatorriko ikasleen ehuneko handienetariko bat du Ikaztegiako eskolak eta hori herrian gertatu den aldaketa soziodemografikoarengatik izan da. Langabezia tasa ere asko igo da urte hauetan. ***IkaztegietaTE****

*Etorkin jatorriko ikasleen ehunekoa asko aldatzen ari da gaur egun, duela 20 urte zeuden ikasgelak eta gaur egun daudenak oso ezberdinak dira. Neurri batean ditugu integratuta, euskaraz jakin dezakete, baina babesa hartzen dute gaztelaniaz edo beraien hizkuntzan hitz egiten dutenen artean. ***3TE****

Goiko eta ondorengo aipuetan herrira bizitzera etorritako pertsona zein familien inguruan mintzo dira, baina aldaketak horiek baino zabalagoak, orokorragoak dira. Edonola ere, atzeritar jatorrikoen integrazioa maiz azaldu den gaia izan da eta ondoren ere gai hori jorratuko dugu.

- Atzeritar jatorriko ikasleekin gaztelaniaren erabilera handiagoa da, baina ez da zertan hauen ekimenez izan behar

Herritar iritsi berri batzuek ez dakite euskaraz eta, goian azaldu den bezala, hizkuntza harrera finkatzen ez bada gaztelaniak irabazten du askotan. Horretaz gain, euskaldunen partetik ere badago autokritika egiteko arrazoirik (partaideek esana), euskal hitzunen aurreiritzi eta ikuspegiarengatik euskarari ez zaiolako tokirik egiten:

*Nire alabarentzako bere klasekideak, txikitatik lagunak izan direnak eta hemen jaiotakoak, ez dira bermiotarrak eta horiei gaztelaniaz egiten die. Ama! Bermeotar bat dakot gelan! Nola ba? Ni lakoa da! Manex du izena! ***BermeoTE****

Irakurri berri dugun aipuan, ikusi dugu hainbat ezaugarri mugatzen dutela euskal hiztuna euskaraz aritzerako garaian. Horren arabera, hainbat galdera sortzen zaizkigu egileoi, adibidez: izen edo itxura fisiko euskalduna ez duena ezin liteke "ni bezalakoa" izan? Ez al du euskal herritar sentitzeko eta euskaldun bihurtzeko aukerarik?

*Asko ere hemen jaio dira (anai gazteenak normalean hemen jaiotakoak), maila batekin etortzen dira,... horiek azkar eta ondo euskalduntzen dira. ***6TE****

Izan ere, galdera horiei baiezko erantzuna ematen diete hainbat parte-hartzailek. Hau da, begirada pertsonaren jatorrian jartzen da, baina ustez horrek euskararen erabileran eragiten duelako. Ikusi beharko litzateke, eta hau egileon beste iruzkin bat da, ea euskaraz ondo euskalduntzeak zer dakarren, hau da, pertsona horrek dituen beste hizkuntza eta kulturak mantentzeko aukera du euskaldun izaera aberastuz ala albo batera uztea ekartzen du azkar eta ondo euskalduntzearen eraginez?

Beheko aipuan, aldiz, "kanpoko izan" eta euskaraz ikasi duenari euskaldunak berak hitz egiten dio gaztelaniaz.

*Batzuetan etortzen dira kanpoko jendeak, hasieran euskaraz ez dakitenak. Erdaraz hitz egiten diezu hasieran, baina, gero, euskaraz ikasten dutenean, erdaraz egiten diezu, ohitura bezala geratu zaizulako ***6TE****

Beraz, parte-hartzaileen iruzkin eta kezkak irakurrita, hausnartu beharko litzateke nolako harrera egiten zaien Euskal Herrian bestelako hizkuntza eta kulturak dituztenei, kasu honetan ikusi dugun moduan, etorkizunean hizkuntza ohiturak aldatzea zaila delako.

- Taldeetako liderrek eragina dute multzo ezberdinetako hizkuntza hautuetan

Hizkuntza erabileran eragiten duen beste fenomeno bat klaseko liderrena da. Behaketetan ikusi dugun bezala, klase barruan eragiteko ahalmena duen horrek

erabiltzen duen hizkuntzak erabilera handiagoa du eta klasekideen hizkuntza ohituretan eragiten du.

- Hainbat eskolek ekimenak jarri dituzte abian euskararen erabilera bultzatzeko

Egoeraz ohartuta, euskararen erabilera sustatzeko ekimenak abian jarri direla kontatu digute elkarrizketatuek. Esaterako, mota guztietako neurriak hartu dira, atxikimendua areagotzeko jarduerak antolatu, Branka metodologia erabiltzen da, unibertsitatearekin batera metodologia aldaketak burutu dira eta abar luze bat. Eskola eta herri bakoitzak ahal duen bezala, baina erreakzioa egon badago.

Beherago euskara sustatzeko baliabide faltak jorratuko ditugu, askotan azaldu den gaia baita. Ekimenak abian jarri diren arren, batzuetan horiekin aurrera jarraitzeko arazoak daudela adierazi digute:

*Hala ere, udaletik ekimenak jarri dira abian etorkinak euskalduntzeko, udalak osorik finantzatzen zuten baina ez dute arrakastarik izan. Eskolak ere martxan jarri zuen laguntza-proiektu bat etorkin jatorriko ikasleei laguntzeko hizkuntza edo etxeko lanekin, baina murrizketa bat egon zen Hezkuntzatik eta orain bertan behera dago. *6TE**

Beraz, herritarrek begi onez ikusi izan dituzte herritarren euskalduntzean aurrera pausoak emateko balio duten ekimenak, baina aipuak erakusten du arrakasta izateko bestelako faktore batzuek ere eragiten dutela. Era berean, udal askok zailtasun ekonomikoak dituzte eta hezkuntza sailetik emandako diru-laguntzak beharrezkoak dituzte plan horiek aurrera eramateko.

Herri mailako faktoreak

- Herri txiki batean hazteak haurren hizkuntza-ohiturak zaintzeko aukera ematen die helduei

Eskualdeburuei buruz hitz egin dugu lehenago, hizkuntza ohiturak erdalduntzeko gune garrantzitsu gisa. Txanponaren beste aldean euskara hutsean bizi diren herri batzuk daude, gune euskaldun trinkotua izanda errazagoa delako euskara mantentzea. Hurrengo adibidean azaltzen da bi guneen artean dagoen ezberdintasuna:

Ezin dut nire umea kontrolatu 24 orduz, baina badago aldaketa bat. Aldaketa asko izaten dituzte eta horiek eragina dute hizkuntza ohituretan. Institutuan elkartzen dira bailarako herri guztietakoak eta hor badakigu nork irabazten duen.

*Hemen kokatuago daude, kohesionatuago daude, gertuago gaude haiengandik,... Eta hara joaten dira, hain talde heterogeneoa, irakasle batzuek gaztelaniaz egiten, emozioak kudeatzeko... euskarak ez die balio beraiei gauzentzako. ***5TE****

- DBH egitera eskualdeburuetara joatean, gaztelaniaz hitz egiten hasten dira bertan, euren jatorrizko herriko ohiturak aldatuz (adib. kuadrillan eta anai-arreben lagunekin)

Orain arte eskualdeburuak eta herri txikietan haztearen onurak aipatu dira, bada, euskararen erabileran eragiten duen momentu gako bat LH-tik DBH-rako aldaketa bat dela argi utzi digute haur eta helduek, are gehiago herriz aldatzerakoan. Hau da kasu gehienetan gertatzen dena:

Kanpotik etorri ginenontzako ere egoera berezia da. Gu Bilbotik egoera guztiz erdaldunetik etorri ginen eta euskaraz hasi ginen. Alabetako bat Igorrera joan eta gaztelaniaz hitz egiten dute guztiz eta etxea ere erdaldundu dute eta kontziente gara. Semea kontziente da herriko dinamiketaz eta bi alaben artean ezberdintasunak daude (DBH vs Batxi). Batxilergoan guztiz erdaldunduta, Arratiako kuadrilla misto bat dira, baina guztiz gaztelaniaz.

*Nahiko genuke Dimako ikasleen artean arrotz sentitzea beraiei artean erdaraz hitz egitea Igorrera joaterakoan. Eta nahiz eta gaztelaniazko ohitura izan talde mailan, gutxienez euren artean indibidualki euskaraz jarraitzea, txikitan hasi ziren bezala. ***DimaTE****

DBHra kanpora joaterakoan, helduen munduan sartzen hasten dira nerabe horiek eta, horri gehitzen badiogu herri horietan gaztelania indar handiagoa duela, gaztelania bihurtzen da beraiei integratziorako tresna. Euskarak egoera berri horretan traba egiten diela aipatu dute haur eta helduek.

Herrien arteko aldeak daudenean -eta horri hurrengo puntuan helduko diogu-, udalerrri euskaldunetako haurren ezaugarri linguistikoak berezitasunak bilakatzen dira eta horrek haurrari nahi ez duen ezberdintzeko etiketa bat ematen dio: euskal hiztuna. Azken ideia hau hainbat erantzunetan jaso da eta haurrek ere maiz aipatu dute.

*Semeak lehenengo aldia ekarri zituenean institutuko bere lagunak errespetu izugarria adierazi zuten, dena euskaraz egin zuten, esfortzu handiarekin eta etxetik atera zirenean flipatu zuten. [Izena], non bizi zara? Dena euskaraz egiten duzue? Edozein momentutan? 8 kilometrora gaude eta zenbat aldatzen diren kontuak. *2TE**

Elkarriketatutako helduentzako arazoa da udalerrri euskaldunetako haur batzuen gaztelaniarako jauzi hori erabatekoa dela, izan ere, klaseak amaitu eta herrira bueltatzean, gazte horiek erdaraz jarraituko dute, gaztelania bihurtu delako euren hizkuntza nagusia.

- Inguruko herrien egoera soziolinguistikoa ez da homogenea eta dinamika ezberdinak agertzen dira bertako herritarren artean

Eskualdeei buruz hitz egiten jarraitzerakoan, eztabaida-taldeetan inguruko herri ezberdinen artean harreman, prestigio-joko eta eragin ezberdinak daudela ikasi dugu. Baliteke eskualdeko herri guztiak UEMAn egotea, edo herrien arteko aldea egotea. Ezberdintasun horiek, gainera, luzaroan mantendu dira eta eraldatzeko zailak dira, horrenbestez.

*Arbizun haur eta guraso tipoak homogeenagoak dira eta kuadrilla gehienak euskaldunak dira. Badaude atzerritar jatorriko gurasoak eta beraien bizitza egiten dute, gaztelaniarako joerarekin. Etxarrin mundu guztiak gaztelaniaz egiten du, izan atzerritar jatorrikoa edo bertakoa, baina helduek (potean eta abar, dena gaztelaniaz). *EtxarriTE**

Edozein kasutan, nekez dira ondoan dauden herriak berdinak eta desoreka horrek hizkuntza hautuetan eragiten du.

*Arratian herri ezberdinak daude, batzuk euskaldunak besteak erdaldunagoak, baina orain dena berdintzen ari da. *DimaTE**

Umeak kontziente dira inguruko herrien arteko ezberdintasunez eta euren burua kokatzen dute egoera horretan:

*Norekin duzue harreman gehiago, Azkoitia edo Zestoa? Azkoitiarekin pike gehiago, erdaraz gehiago egiten dute, atzerritar gehiago daude, guk -ye, beraiek -xe,... *AzpeitiaTE**

Orain arte eskualdeburuei buruz hitz egin dugu, baina kontuan izan behar da, eskualdeburuez gain, hiri nagusiagoak ere badaudela herrietatik gertu. Eguneroko

zereginak egiteko batzuetan hiri horretara joan behar izaten da herritarra eta bertan euskarak duen tokia oso mugatua da. Jakina, hiriek erakargarritasun handia dute, denetik eskaintzen diotelako herritarrari, eta bertako hizkuntza-egoera ulertu eta jarraitzea, hau da, gaztelaniaz hitz egiten dela ohartzea eta gaztelaniaz hitz egitea, berez barneratzen da. Hori da behintzat haurren erantzunetatik jaso duguna.

- Herriko euskalkiak garrantzia du euren nortasunerako

UEMAko udalerri guztietan hizkuntza-aldaera garrantzitsuena lekuan lekuko euskalkia da eta aldaera horretan betetzen dituzte euren funtzio gehienak. Kasu gehienetan, ikerketa proiektu honetan parte hartu duten haur eta helduek euskalkiarekiko atxikimendua adierazi dute, beraien nortasunaren parte bezala.

*Gaur ipuin kontalaria izan dute, ona, baina euskalkian egin du eta uste dut oso konexio indartsua izan dutela. Hori ikusteak zer pentsatua eman dit eta zein garrantzitsua den euskalkiaren erabilera. *2TE**

Herri berdinarekin jarraituz, ikastetxeko hizkuntza paisaia euskara batuan eta herriko euskalkian dago. Horri buruz galdetuta, hau da ikastetxeko zuzendariak erantzun zuena:

*Sumatuta erdara jotzen genuela, garrantzia eman nahi genion euskalkiari erabilera bultzatzeko. Erabileran erabakita daukagu noiz erabili bakoitza. *2TE**

Euskara batua eta euskalkiaren arteko orekan bizi dira eta argi dute aldaera bakoitzak zer eman ahal dien baita haurrek ere. Esaterako, rol antzezlanetan batua eta euskalkia modu berezitueta erabili dituzte.

*Nire umeek futboleko batuan imitatzen jolasten zuten eta umeek oso ondo dakite erregistroak ezberdintzen. Kontziente izan beharko ginateke bi tresna garrantzitsu ditugula hor. Hika ez da erabiltzen (genero kontuak eta erabilera baxua, esploratzen dabiltza). *2TE**

Beheko aipuan, bestalde, hiztunek bi aldaeren artean dituzten joan-etorriak azaltzen dira, adibide bat jartzearren:

*Azpeitiarra ez denean euskara batura hurbiltzeko saiakeratxo bat egiten dugu eta eskertzen dugu batuan mintzo direnek guri ere hori egiten digutenean. *AzpeitiarraTE**

- Euskalkia erraz erabiltzen da herri edo eskualdean, baina hortik kanpo euskara batua behar izaten dute

Euskalkiekin jarraituz, kasu batzuetan euskalkiaren ezaugarri linguistikoek eta sozialek arazoren bat sortu dezakete. Erantzunetan jaso dugun ahulezietako bat euskara batuak izan dezakeen prestigio urriagoa da, batik bat hiztun berrien hizkuntza bezala identifikatzen denean:

*Euskalkien kontuan ere, prestigio kontuak sartzen dira bi aldeetatik. Gure alabak esaten du etxean euskara batuan egiten duela guregatik, guk ulertzeko. *5TE**

Beste kasu batzuetan, ordea, euskalkia ulertzeko zailtasunak euskararen erabilera zailtzen dute, ondorengo bi adibideetan ikus daitekeen bezala:

*Euskalkia aitzakia da gaztelaniara pasatzeko, baina Bermeo kanpokoek batzuetan kostatzen zaie guri ulertzea eta guk beraiei. *BermeoTE**

*Unibertsitatera iristean konturatu gure euskalkia ez zela ulertzen guztietan eta gure hizkera moldatu behar izan dugu. *3TE**

Haurren kasuan, eta hezkuntza-sistemaren berezitasunengatik, irakasleak ez du zertan herri horretakoa izan behar eta ez du zertan bertako euskalkia hitz egin behar. Eskoletako irakasle eta zuzendaritzako kideek aipatu digutena da eta horrek, ordea, arazoak sortzen ditu euskalkia erabiltzeko eta elkar komunikatzeko, azken finean.

- Herriko eragile ezberdinen arteko koordinazioa euskara bultzatzeko: kasu isolatuak

Puntu hau garrantzitsua da, herriko kohesioak dinamika sozialen hainbat pista eman ahal dituelako. Jasotakoaren argitara, herrietan denetarik ikusi da, baina, oro har, esango genuke maila kontziente batean hartutako erabakiek ahalbidetzen dutela koordinazio hori:

*Azken urteetan saiakerak egin dira Udalaren partetik ahalegin bat ekimenak elkarlanean aurrera ateratzeko eta behar-beharrezkoa da. Adibidez, tanborrada antolatzeke, festak,... Urteak daramatzate elkarlan honetan eta urtez urte puntuak gehitzen doaz harreman honetan. ***3TE****

Ez bada arretarik jartzen, elkarlanean egiten denak irismen mugatua dauka, azaldu diguten moduan, eta are gehiago hizkuntza-ikuspegia bermatzen ez bada:

Koordinazio moduan ez dago. Euskara elkarte bat dago, baina ez dago harreman onik udalaren eta elkartearen artean. Adibidez, udal-taldea aldatu da eta bandoak orain elebitan dira eta euskara elkarte eta herritarrak urundu dira.

*Orain arte koordinazioa egon da, baina jarriren alorrean baino ekintzen inguruan izan dira gehiago: ikas-materiala, pilota taldea, jubilatuekin,...Oso esanguratsuak diren momentu puntualetan mugitu gara, ez modu jarraituan. Arazoa da militatzen duen jendea elkarte askotan egoten dela eta ez dutela hizkuntzarekiko kezka hori. ***5TE****

Bestela, elkarlan falta horrek helburu partekatu batzuk daudela ez ikustea dakar, baita hizkuntza politikan noraez puntu bat ere:

Ez da ezer egiten elkarlanean: Inauteriak, kabalgata,... Oso ezberdinak dira bi/hiru munduak eta ez dakit kalte edo mesede egiten duen elkarteak.

*Berez euskara batzordea dago eta beraiek arduratzen dira horretaz. Baina zer egin dezakegu? Lan asko egin dugu horretan eta orain ez dakit zer egin dezakegun. ***7TE****

- Herriko beste eskoletako kideekin harremana ez da ona kasu batzuetan

Elkarlanaren harira, herri batzuetan eskola bat baino gehiago dago eta, kasu gehienetan, erantzunen argitara ez dirudi ikastetxeen arteko oinarritzko harremanaz gain bestelako elkar harremanik dagoenik. Kontuan hartuta eragile garrantzitsuak direla, baita euskararen biziberritzerako ere, elkarlan falta eta harreman gabezia horrek bere ondorioak izan ditzakeela uste dugu, adibidez, herriko haur guztien arteko harremanean.

Kalean ikastola ikastolakoekin eta eskola eskolakoekin (bai A herrian, bai B herrian). Udalak antolatzen dituen ekintzetan (Santa Ageda, Gabonak, Inauteriak,...) eta futbol taldean.

*B herrian ekintzak egiten ziren eskolakoekin, baina gatazka asko egon ziren, batik bat matrikulazio garaian. Interesa segun zeintzuk diren gauzak ateratzen dira eta inposatua bada elkarlana edo ego kontuak sartzen badira orduan gaizki. Baina haurrak ez dira kontziente... *4TE**

Aipuaren lehen zatian argi ikusten da ikastetxe bakoitzak bere kabuz egiten duela, baina hainbat unetan elkarrekin egiten dituztela ekimen batzuk (ospakizunak eta futbol taldean jokatu). Hala ere, aipuaren bigarren atalean ikus daiteke askotariko gatazkak egon direla bi ikastetxeetan. Azkenik, aipu honen amaieran aipatzen da haurrak ez direla egoera horien jakitun, baina, hain zuzen ere, herri horretan haurren partetik beste ikastetxearekiko eta beste ikastetxe horren ereduarekiko gaitzespen mezuak jaso genituen. Edonola ere, ez dira herri honetan bakarrik gertatzen, beste kasu honetan ere antzeko fenomenoak gertatzen dela ikusi genuen:

Ikastolakoekin harreman ezberdina dugu, batzuentzat "pribatuko guayak" direlako eta beste batzuentzako jende jatorra. Baina gure artean euskaraz egiten dugu eta ez du eraginik zentzu horretan.

*Monjetako ikasleekin ezberdina da, ordea. Monjetako ikasleak ez dira denak atzerritarrak, eskualdeburuko jendea dago ere badago urrutira joan gabe. Ez dira elkartzen atzerritar jatorrikoak herriko besteekin eta ez dira integratzen. Bi talde bereizi sortzen dira herrian: monjetako ikasleak vs ikastola+eskola. Gehienez joaten dira futbol taldera edo eskolako parkera elkarrekin, baina ez dituzte lagunak egiten herri mailan (ez musika eskola, ez udalekuak, ez dantza,...). *7TE**

*Herrian ez dira elkartzen haurrak direnean, gehienez ere partikularretan eta kiroletan. Baina hortik kanpo bakoitzak bere bizitza egiten du. Gainera kontutan hartu behar da herri honetan tentsioa dagoela eskolen artean. Euskalduna bazara ikastolara joateko presioa zenuen eta duzu. Hautagaitza politikoetan ere eragina du listakoak non ikasitakoak diren. Adibidez, alkategaia ikastolakoa bada mesfidantza eta sostengua (eta alderantziz). *7TE**

- Herrian aldaketa bortitz azkarrak gertatu dira, bai euskararen erabileran, bai herritarren profilean, bai alor sozioekonomikoan

Gorago herri ezberdinetako helduek aipatu duten moduan, belaunaldi aldaketa azkarra gertatu da familia eta eskoletan. Hori, ordea, ez da modu isolatuan aztertu

behar, herri batzuetan aldaketa nabarmenak gertatu direlako. Adibidez, ondorengo bi aipuetan aldaketa horiek nola ikusten dituzten irakurtzea adierazgarria da:

*Txokatzen nau: herri euskalduna, arrantzaleena, baserri-auzune asko... zergatik pasatu da hori Bermeon? Mutur batetik beste muturrera pasatu gara. *BermeoTE**

*Ikasgelak begiratu eta ehuneko handiagoan daude etorkin jatorriko ikasleak etxetik euskaldunak direnak baino, bajo mínimos gaude eta hor gaztelaniak irabazten du. *1TE**

Lehen aipuan kontrastea nabaria da eta bigarrenean, aldiz, ikasleek etxetik dakartzaten kultur eta hizkuntzei egiten zaie erreferentzia. Kasu askotan kopuruz gutxiago dira etxetik euskaldunak edo euskal kultura duten haurrak eta irakasleek baliabide gutxi dituztelako egoera horien kudeaketarako ("bajo mínimos").

- Aisialdiko begirale asko ez dira euskaldunak edo jarduerak gaztelaniaz egiten dituzte

Gorago, irakasle eta begiraleek gaztelaniaz egiten dutela ohartarazi dugu. "Inkoherentzia" eta "profesionaltasun eskas" horrek haurrengan bere eraginak dituela gaineratu dute elkarrizketatutako heldu batzuek. Zein da, ordea, horretarako arrazoia eta zein da irtenbidea?

*Futbolean eta eskolaz kanpoko jarduerak: euskaldunak dira, baina gaztelaniaz egiten dute. Beraiegatik da edo inguruneak bultzatuta? Monitoreek ere txipa behar dute, jakiteko non eta zertarako dauden eta ez erortzeko gaztelania erabiltzeko ohituretan. *1TE**

Dena dela, kasu guztietan aisialdiko jardueretan gaztelaniaz hitz egitearena ez da begirale eta formatzaile euskaldunen ardura bakarrik. Izan ere, batzuetan taldeek begirale eta entrenatzaileak topatzeko arazoak dituztela adierazi digute eta, ondorengo aipuan jasotzen den bezala, bere burua aurkezten duen pertsona bakarrak euskara gaitasunik ez izatea ez da lehentasunezkoa, lanpostua betetzeko moduan badago behintzat:

*Bien bitartean entrenatzaileak behar ditugu eta zer hasiko gara, EGA eskatzen? Ba gertatu zaigu orain argentinarrak bat sartu dela entrenatzen eta ez daki euskaraz. *7TE**

- Aisialdirako eskaintza murrizta da euskaraz

Hein batean begirale euskaldunen faltarengatik, baina beste hamaika arrazoi direla eta, udalerrri euskaldun batzuetako haurrek aisialdiaz euskaraz gozatzeko zailtasunak dituztela jakin dugu haur eta helduen esanetan. Guraso baten esanetan, "Herri honetan urtean zehar ez dago ia ezer ez euskaraz umeentzako, ezta gabonetan ere" (*1TE*) eta hori hainbat ikerketetan baieztatu litekeen erronka bat da. Haurrak ikusten du ondo pasatzeko hizkuntza ez dela euskara, edo ez behintzat nahiko lukeen moduan.

- Haurrek askotan eusle zereginak betetzen dituzte helduen aurrean

Esan dugu haurrek helduek baino gehiago hitz egiten dutela euskaraz eta helduek euren jokabideetan inkoherentzia handiak erakusten dituztela. Bada, gure behaketetan edo haurren erantzunetan oinarrituta, eta Euskal Herriko Kale-Erabilaren Neurketetako datuekin bat eginez, haurrak eta helduak elkarrekintzan daudenean euskara hitz egiten da gehien herri hauetan. Are gehiago, elkarriketatutako haurrek heldu batzuekin eusle lanak egiten dituztela aipatu izan dute, adibidez, gozoki dendetan.

Euskal Herri mailako faktoreak

- Herriko familia eta kuadrillen artean ezberdintasunak daude hizkuntza-ohiturei dagokienez

Antza, kuadrilla edo talde batzuek euskara hautatzen dute hizkuntza nagusi bezala, eta beste batek, berriz, gaztelania. Hizkuntza hori hautatzen den momentuan luzera begirako hizkuntza hautatzen da, arrazoiak eta kideak ezberdinak izanda ere. Hautaketa honen balizko azalpen bat ondorengo aipuan gehitu dugu:

*Zergatik funtzionatzen dute euskaraz kuadrilla batzuek eta beste batzuek ez? Kuadrilletako kideen ehuneko handiago batek euskaraz gaitasun hobea dutenean gaztelaniaz baino. Kuadrilletara elebakarrak iristen direnean indar guztiak badoaz eta gaztelaniaz funtzionatzen hasten dira, baita euskalgintzako kideez osatutako kuadrilletan ere. *2TE**

Fenomeno hau, ordea, ez da helduengan gertatzen bakarrik. Eztabaida-taldeetan entzun bezala, talde bakoitzean talde txikiagoak eratzen dira, kontzienteki edo

inkontzienteki, eta taldekideen ezaugarri soziolinguistikoek eragin handia dute talde horien eraketan. Adibidez:

*Eskola kirolean ere ikusten da 3-4 umeko kuadrillak eratzea gaztelaniarako joera dutenek osatua eta gero hori ere herri mailan ikusten da. Jarraipen bat dago LH-ko hizkuntza ohituren eta DBH-ren artean, ez dago atzerakadarik. Hori bai, LH-n hizkuntza taldeak sortzen dira eta DBH-n polarizatu egiten da. Kontuan hartu behar da herrian, oso euskalduna izan arren, gaztelaniaz egiten duten kuadrillak daudela, kanpotik etorri eta euskara menperatzera heldu ez direnak. ***3TE****

Esan den moduan, talde horiek sortzen diren momentuan epe luzerako taldeak sortzen dira eta talde horretako hizkuntza ohiturak ere epe luzerako dira.

Horretaz gain, orain arte sarri aipatu dugun herritar etorri berrien gaia ere funtsezkoa da kuadrillen eraketan eta, nola ez, hizkuntzen erabileran. Taldekideen hizkuntza biografiek eta sozializazio eremuek (adibidez, eskola) kuadrilla batek hizkuntza batean edo bestean egitea ebatziko du, hurrengo aipuan azaldu duten gisan:

*Bortzirietatik kanpoko herriez gain (Irun ya nahiko erdalduna da) Maroko eta Errumaniako umeak ere badaude eta talde handian hizkuntza erabilera moldatzen du horrek. Aldi berean, ume horiek monjetan ikasten dute eta euskararengandik urrun dagoen talde bat eratzen da, indar handiagoa duena. ***BeraTE****

- Bikote mistoetan euskararen erabilera oso aldakorra izan daiteke; hizkuntza-ohiturak oso erdaldunak izan daitezke horrelakoetan

Lehenago esan dugu udalerri euskaldunetako herritar eta familien profila asko aldatzen ari dela, eta lan ezberdinek ere hori esaten digute. Belaunaldi batzuk lehenago ohikoa zen bi gurasoak euskaldunak izatea, baina gaur egun, asko dira konbinaketa posibleak: biak euskaldunak; bat euskalduna eta bestea ez; bat euskalduna eta besteak gaztelaniarako joera gehiago du; etab. Konbinaketa horietan, partaideek gaztelaniak indar handiagoa hartzen duela azaldu dute, baldintza bat betetzen ez bada: bi gurasoak euskaldunak izatea.

*Biak euskaldunak badira etxean ia beti euskaraz egiten badute, baina bietako bat erdalduna bada etxe horretan erdaraz egingo da. Eta horretaz aparte, DBHra joatean eta horri nerabezaroa gehitu eta gaztelania sartzen da bete betean ***2TE****

*Herrian gaztelaniaz egiten dute familietan bietako bat erdalduna edo hiztun berria delako da, ez bi guraso euskaldunek erdararako joera dutelako *6TE**

- Mutilek joera gehiago izaten dute gaztelaniaz hitz egiteko

Euskararen biziberritzeak genero jakin bat du eta gaztelaniaren erabilera, ere bai. Euskararen erabilera handiagoa emakumeek dutela adierazten dute datuek (Soziolinguistika Klusterra, 2022) eta guk bildutako erantzun eta egindako behaketek bide bera erakutsi digute. Hau da, gure behaketa eta erantzunetan ikusi dugu gaztelaniaz gehien egiten dutenak taldeetako lider gizonezkoak eta gizonezko lagun-taldeak direla.

Halaber, talde eztabaidetan parte hartu duten heldu gehienak emakumezkoak izan dira era argian, baita azertu ditugun ikasgeletako irakasle eta zuzendariak ere.

Bi aspektu horien inguruko xehetasun gehiago lortzerik ez dugu izan, baina orain arte jasotako ebidentziekin bat dator emaitza hau.

- Euskaraz hitz egiten dela pentsatuta ere, gaztelania asko erabiltzen da euskarazko solasaldietan

Gaztelaniaren erabilera gailentzeko beste arrazoi bat gorago aipatu dugun kontzientzia falta da. Erantzunen argitara, ez da bakarrik kontzientzia politikoa edo soziolinguistikoa, baizik eta hizkuntza batean edo bestean ari garela jakitearen kontzientzia. Beheko adibidean, herrietan espazio erdaldunagorik ba ote zen erantzuten ari ziren eta, solasaldia gune formalago batean (ikerketa bat) izateak parte-hartzaile bat bere praktikez kontzienteago egotea ekarri du:

- *Pertzepzioa ezberdina guraso eta ikasleen artean eta helduen artean ere: soziedadea ez da hain euskalduna, taberna ere ez hainbeste*

- *Ez da beti euskaraz egiten, ya me contarás! Aiba, gaztelaniaz egin dut*

- *Barkatu esatea, baina zu bazara askotan gaztelaniazko esaldiak botatzen dituen*

- *Bai, onartzen dut *6TE**

Kontzientzia horretaz gain, goiko aipu horretan beste gai batzuk ere agertzen dira, esaterako, euskaldunek gaztelaniarako duten joera, pertsona bat hizkuntza batekin identifikatzea, uste izatea helduak eredu ez direla, etab.

Gaztelaniaz uste baino gehiago hitz egitearen kontzientzia faltari, euskarazko solasaldietan gaztelania txertatzea edo gaztelaniaren eraginez euskarazko esaldiak oker esatea gehitu behar zaio. Hori hainbat momentutan jaso dugu ikerketa honetan eta Aramaioko eragile batek esan zuen bezala, Lazkao Txikiren aipua ekarri, "gaztelaniaz ariko gara euskaraz egiten dugula pentsatuta".

- Praktikotasunarengatik hitz egiten da gaztelaniaz, gehienek ondo dakitelako gaztelania

Dagoeneko ugariak izan dira gaztelaniaren erabilera azaltzen duten arrazoiak eta jasotako erantzunetan pisu handia duen beste faktore bat ekarriko dugu jarraian: praktikotasuna. Praktikotasun horretan gaztelaniak dauka nagusitasuna, ondorengo bi aipuetan ikusi daitekeen eran:

*Etiket euskaldunak izan arren berdin solasten dira euskaraz eta gaztelaniaz. Praktikotasunera joaten dira eta lehenengoan komunikatu nahi dute. Orduan errazenera jotzen dute, efizienteenera, erdarara. Ez dira pentsatzen ari zein hizkuntzatan egingo duten, baizik eta efizientzia izatea. Eta ez dira kontziente ondokoak hitz egin ez arren ondo ulertzen duela. *6TE**

*Zer gertatzen da guraso-taldean edo eskolako bileretan? Askotan, euskaraz ez dakien gutxiengo horrek gaztelaniaren erabilera behartzen du. Askotan, euskalduna bera da gaztelania erabiltzen duena solaskidea bileraren parte sentiarazteko eta erruduntasuna gutxiagotzeko *6TE**

Berriro ere, kontzientzia falta eta helduak eredu ez izatearen gaia atera dira zeharka, beste hainbat erantzunetan gertatu den bezala.

- Gaztelaniaz zuzentzen zaizkienean gaztelaniaz erantzuten dute

Aipurik jaso ez dugun arren, parte-hartzaileek esan digute udalerrri euskaldunetan gaztelaniak tokia aurkitzen duela lehen hitza hizkuntza honetan egiten den momentuan. Eguneroko egoera ezberdinetan euskaldun bati gaztelaniaz zuzentzen zaion momentuak izaten dira eta ezagunak diren arrazoiengatik, adibidez,

aurreiritziak edo praktikotasuna, gaztelaniaz hasten den solasaldiak gaztelaniaz jarraitzen du. Hau haurren kasuan ere gertatzen dela jaso dugu erantzunetan, izan klasekideekin, izan herriko helduekin, izan ezezagunekin.

- Norbere hizkuntza ibilbidean guztiz elebakarrak diren herritarrak daude, inguruko hizkuntza ohituretan eragiten dutenak ("erdararen militanteak")

Gorago zaldu dugu euskara hutsean bizi diren herritarrak egon badaudela udalerri euskaldunetan. Hala ere, erabat gaztelaniaz bizi diren herritarrak ere badaudela gaineratu dute haur eta helduek, arrazoi ezberdinengatik horrela jokatzeko dutenak. Kontua da euren elebakartasun horrek udalerri euskaldunetako herritar euskaldunen praktikak baldintzatzen dituela.

*Kanpotik etorritako batek kuadrillatxoak sortu ditu gaztelaniaz hitz egiten dutenak. Esfortzua askok egiten dute batek beharrean. *5TE**

*Ez dira kontziente gaztelaniaz egiten dutela batzuek eta beste batzuk, berriz, erdararen militanteak dira, ez dute hitz bat bera ere esango euskaraz eta azkenean euskaratik gaztelaniara jotzen du jendeak. *7TE**

Fenomeno hau batik bat helduen artean ikusi dugun arren, haur batzuek ere gertatzen dela esan beharra daukagu. Gaztelaniaz bakarrik edo ia bakarrik hitz egiten duen klasekide bat izanda, taldeetako dinamikak asko aldatzen direla ere behatu dugu.

- Guraso batzuek, erdaldunak askotan, esfortzu handia egiten dute euskara ahal duten moduan bultzatzeko

Udalerri euskaldunetan bizi diren guraso eta herritar batzuek euskararen alde egiten dute, ahal duten modu ezberdinetan. Erantzunetan ikusi dugu, aipatutako kontzientzia falta eta euskararen erabilera urriagoa egonda ere, guraso batzuek energia eta denbora eskaintzen diotela euskararen biziberritzeari. Gainera, erdaldunak diren herritarrek ere parte hartzen dute ekimen hauetan, jaso dugun moduan.

- Ibilbide ezberdinak dituzten etorkin jatorriko herritarrek daude: batzuk erraz hurbiltzen dira euskarara, beste batzuk ez

Atzerritar jatorriko herritarren hizkuntza-integrazioa hizpide garrantzitsua izan da azterketa honetan. Talde hori, ordea, ez omen da homogenea eta elkarriketatuak gai dira integrazio-kasu ezberdinak azaltzeko. Haurrak ere kontziente dira iritsi berriak diren hurrek euskaraz aise ikasten dutela, batik bat gazte heltzen badira eta herri horretan euskaraz erakarpen indarra badu:

*6 hilabetetan euskara ikasten dute Aramaiora etortzen direnak, beraz, nolabait ere oraindik badago indar bat seme alabak euskalduntzeko (guraso etorri berriekin ezin da egin, ez indarririk ez permeabilitaterik) ***AramaioTE****

*Garrantzitsua da umeak zein urtetan iristen diren, 3. edo 5. mailan etortzen direnak oso ezberdin euskalduntzen direlako. Ez dago baliabiderik Hezkuntzatik euskalduntzeko, 2. urtetik aurrera laguntza galtzen da eta Azpeitiko udalak diru gehiago jartzen du (adib. Etorkizun programa). Hedatu beharko lirake horrelako programak. Eskolaz kanpoko jardueretarako laguntzak daude eta normalean kanpoko familientzako izaten dira laguntza horiek. ***AzpeitiaTE****

Lehen aipuan, herri berean haurren euskalduntze prozesua eta helduena erabat desberdina direla ikusten da. Bigarren aipuan, aldiz, herri horretako herritarrek euskalduntzen laguntzeko udalak egiten duen ahalegina (ekonomikoa eta baliabideak eskaintzearena) azaltzen da.

Adinaz gain, aipatzekoa da migratzaileen sorlekua zein den identifikatzea, jatorri bat edo bestea izanda euskalduntzeko ibilbide ezberdinak egon daitezkeelako. Hori xehatzeko ere gai dira udalerrri euskaldunetako herritarrek, jasotako testigantzen harira:

*Ez da berdina hegoamerikarra edo espainiarra izan edo beste hizkuntzetako hiltun bat izatean. Azken hauek zuzenean euskalduntzen dira eta lehenengoekin harremana gaztelaniaz eratzen da eta kostatzen da gero aldatzea. ***3TE****

Hortaz, aipu horretan ikusi dugu herritarrek euskararekin duten harremana aldakorra dela aurrez hitz egiten duten edo dituzten hizkuntzen arabera, baita duten kulturaren arabera ere.

Edonola ere, herritar horiek euskaldundu edo ez, ez da erraza euskararen erabilera sustatzea eta goian aipatu ditugun erronketara itzultzen gara berriro ere:

*Ni kanpoko naiz eta kanpokoekin hitz egitean gaztelaniaz egiten dugu. Hemengoekin saiatzen naiz euskaraz egiten, nahiz eta euskaldunberria izan eta gaizki hitz egin, baina horiekin ezin da euskaraz egin ez dakitelako ezer. *6TE**

Talde eztabaidako pertsona horrek aipatzen du bera euskara ikasteko ahalegina egiten ari dela eta dituen mugak eta estigmak onartzen ditu. Hala ere, hainbat herritar euskara ikasten saiatu ere egin ez direla gaineratzen du eta horrek derrigorrean gaztelania erabiltzera behartzen dituela herritarrak (euskara behintzat ez).

- Etorkin jatorriko herritar batzuek gaztelanian hartzen dute babes

Gure behaketetan ikusi eta haur eta helduen hainbat iruzkinetan entzun dugun bezala, etorkin jatorriko herritar talde handi batek gaztelanian hartzen du babes. Euskaldundu daiteke edo ez, bere hizkuntza mantendu edo ez, baina bere sozializaziorako hizkuntza berria gaztelania bihurtuko omen da eta hizkuntza horretan lortuko du erosotasuna eta bere burua adierazteko espazioa.

Horretarako arrazoiak ugariak izan daitezkeela jaso dugu erantzunetan, adibidez, etorkin jatorrikoak etorkin jatorrikoekin harremanetan jartzea bakarrik, ondorengo aipuan ikusten den bezala:

*Arbizun haur eta guraso tipoak homogeneousagoak dira eta kuadrilla gehienak euskaldunak dira. Badaude atzerritar jatorriko gurasoak eta beraien bizitza egiten dute, gaztelaniarako joerarekin. Etxarrin mundu guztiak gaztelaniaz egiten du, izan atzerritar jatorrikoa edo bertakoa, baina helduek (potean eta abar, dena gaztelaniaz). *EtxarriTE**

Bukaera partean, ordea, ikusten da etorkin jatorrikoek ez dutela ezer berezirik egiten, hots, bertakoek egiten duten berdina egiten dute: gaztelaniaz hitz egitea. Beheko kasuan, gainera, bertako herritarrak dira etorri berriak gaztelaniara bideratzen dituztenak, harrera hizkuntza horretan egiten baitiete. Lehen aipatu dugunaren harira, euskalduntzeko zenbat denbora behar den ere aipatzen da erantzun honetan:

*Extremaduratik etorri direnen euskalduntzea hemen motelago egin da, hiru belaunaldi behar izan ditugu ondorengoak euskalduntzeko (D ereduarekin). Baina harrera gaztelaniaz egiten diegu. *1TE**

- Munduarekin eta arauarekin errebelatzeko modua da gaztelaniaz hitz egitearena

Gorago esan dugu gaztelaniaz hitz egiteko arrazoi ugari dituztela haurrek. Helduen aburuz, euren nortasunaren eraikuntzan eta munduaren handitasunean, euskara traba bat bihurtu daiteke:

*Lagun batekin gaztelaniaz hitz egiten du haur batek zeren ez du nahi, agian bere amak ez duelako ulertzen eta pereza ematen dio euskaraz hitz egitea. Reibelatzen da euskaraz entzutean ("qué dices?"). Baita ohitura hartu dutelako haserretzean gaztelaniaz egiteko. *1TE**

Dagoeneko aipatu da maila diskurtsiboan euskararen biziberritzea ez dela erakargarria, ezta horretarako hartzen diren neurriak ere. Hori dela eta, giro oso euskaldun batean egon arren, euskara inposaketa bat bezala hautematen dela diote hainbat elkarrizketatutak eta horri aurre egiten zaio batzuetan:

*Behartzearen mamua batzuetan agertu da, ez zaie gustatzen: "euskara klasean gaztelaniaz egiten dut eta gaztelaniakoan euskaraz" *6TE**

*Errebelatzeko modua gaztelanian topatzen dute. Behartzen bazaitugu euskara egitera gero normala euskararen kontra egiten baduzu. Familia oso euskaldunetan bat-batean seme-alabek esaten dute, euskara kaka bat da. Eta hau joera plural bat da *2TE**

- Gazte hizkera landuagoa dute gaztelaniaz eta adierazi nahi dutena modu informalean adierazteko nahiago izaten dute gaztelania

Gaztelaniaz egiteko beste arrazoi bat gazteek duten erraztasun handiagoa da. Euren erabilera esparru informalean gaztelania txertatuta, adibidez, maila kolokialean eta ikus-entzunezkoen kontsumoan, euren burua adierazteko baliabide gehiago garatu dituzte gaztelaniaz eta, horrenbestez, hizkuntza honetan 'ateratzen zaie' hitz egitea. Hori azterketa honetako herri gehienetan ikusi dugu, arnasguneak edo euskaraz bizi diren herriak izanda ere.

- Erdaraz hitz egitea ez dago gaizki ikusita, inertziak ohitura gaztelaniaz egitera darama

Gaztelaniaren erabilera areagotzeko beste arrazoi batek hizkuntzak hautatzeko ustezko askatasuna eta gaztelaniak momentu honetan duen onarpena da. Hurrekin euren hizkuntzen erabileraren inguruan hitz egitean, zehatzago esanda gaztelaniaz egiten duten ikaskideen hizkuntza hautuak baloratzerako orduan, “berak nahidona eingou” bezalako erantzunak jaso ditugu. Hau da, gaztelaniaz hitz egiten badu berak jakingo du zergatik eta gainontzekoak horretan ezin dira sartu, haur batzuen ustez ezin da hizkuntza-hautu hori aldatu (edo ez genuke aldatu behar).

Herri euskaldunak izan arren, ohiturak eta inertziak, aldakorrak berez, funtsezkoak dira hizkuntza hautatzerako orduan. Inertzia horiek normalizatu egiten dituzte herritarrek eta ez da gaztelaniaren erabilera zalantzan jartzen. Hori bai, erantzunetan argi uzten dute prozesuen xehetasunen berri dutela, ondorengo adibidean bezala:

*Baditugu lagunak euskaraz egiten dutenak hobeto moldatzen direlako, inertziak, ez kontzientziarik dutelako. Orain, ordea, inertziak gaztelaniaren aldera bideratzen gaitu. *7TE**

Bukatzeko, haur baten aipua ekarri nahiko genuke, adierazgarria iruditzen zaigulako. Esan dugu gaztelaniaren erabilera normalizatua dagoela adierazi dutela elkarriketatutako herritarrek eta arrazoi politikoak, lehenago euskarara bideratu zezaketenenak, jada ez omen dira nahikoa gaztelaniaren erabilera eragotzi eta euskaraz hitz egiteko. Ezta haurren artean ere.

*“Espainia ez zait gustatzen baina gaztelaniaz egiten normal sentitzen naiz” *6H**

Hainbatetan ikusi dugu haur honek era gordinen adierazten duena: besteak bezalakoa izateko nahia; eta hori gaztelaniak ematen die, ez euskarak.

- Euskara hutsean hitz egiteak ez dauka onarpenik, problematikoa da

Heldu batzuen esanetan, txanponaren beste aldean erabateko euskararen erabilera dago, batik bat erabilera militantea bada. Herri euskaldunetan talde batzuek euskara hutsean funtzionatzen dute, modu naturalean, baina beste talde batzuetan jokabide berdina izatea ez dago ondo ikusia, edo traba batzuk daudela esan liteke gutxienez:

Eskolako ikasle ohiak poteoan euskaraz ibiltzen gara, militantziarik gabe natural egiten dugu euskaraz. Ba nik guraso elkartearen izena eman behar izan dut euskararen presentzia egoteko eta ezeroso sentitzen dira nirekin, gusturago aritzen direlako gaztelaniaz egiten eta sortzen dudana tentsioa kudeatu behar da.

*Neketsua da. Bai herriko eragileak, bai irakasleak etengabe eusten eta bideratzen aritzea neketsua egiten da. *1TE**

Azken aipu honekin jarraituz, euskal hiztun batzuek euren burua elebiduntzat jotzen dute gaztelaniarako joera izan arren, eta euren jokabidea eta etiketa baliozkotzat jotzen dute. Kontrara, euskara hutsean egiten duten herrikideek onarpen berdina ez dutela aipatzen dute ahots batzuek:

*Euskara hutsean egitea gaizki ikusita dago eta askok autokonplazentzia dute. "Gu elebidunak gara" esaten dizute, gu izango ez bagina bezala. Elebiduntasun hori, gainera, euren imajinarioan sortutako zerbait da, zer erdaraz egiten dute bakarrik eta ez zaie hori gaizki iruditzen. *2TE**

- Hizkuntza hautatzerako orduan aurreiritziak eta barneratutako ideiak indartsuak izan daitezke oraindik ere

Hizkuntzaren inguruko ideia eta aurreiritziek euskararekiko atxikimenduan eta hautuetan eragiten dutela aipatu izan da ikerketa honetan zehar. Adibidez, gizartearen nolako onarpena izango du euskararen biziberritze prozesuak oinarri batzuk finkatuta ez badaude?

"Bizkaiera bakarrik sustatzen da ETB1en. Gainera, artifizialeki egiten zaigu bertako euskara batua eta euskalkiak salbatuko du bakarrik euskara, ez edonoiz euskara batuan egiten. Adibidez, umeei euskalkiekiko maitasun handiagoa dute. Ikasturtea hasi zenean, irakasle berria Arbizuarra zen eta euskara batuan egiten zien umeei, bada, semeak hauxe esan zidan:

*- Ama, irakasleak ere badaki Hernaniko euskara! – ni hernaniarra naiz eta poz handia hartu nuen hori entzutean *EtxarriTE**

Haur eta helduek maiz ekarri duten beste ideia adierazgarri bat euskararen balio murriztagoarena da. Jatorrizko edo ohiko euskal hiztuna izan arren, kanpotik datorrenak gehienetan bertakoak/euskarak baino balio handiagoa izango du.

*Nortasun kontua ere bada, guk euskaldun eta euskal herritarrek genituen inguruan eta umeek lehena kanpotik datorren erdarazkoa jasotzen dute ***1TE****

Bukatzeko, azterketaren parte handi batean solaskideen arabera hizkuntza hautuen inguruan jardun ginen eta bestearen itxuraren arabera erabakiek haurrengan indar handia dutela jaso genuen, esaterako, janzkera, azal kolorea, noren inguruan dabilen... Horren harira, hau da guraso batek esaten duena:

*Umeak gu baino azkarragoak dira, argazkia azkarrago ateratzen dute, baina badute aurreiritzi puntu hori ***1TE****

- Udalerri euskaldunetako herritarrek euskaldun etiketa izaten dute euren eremu soziolinguistikotik kanpo

Azpimarratzeko aspektu positibo bezala, aztertutako herri batzuetako bizilagunek euskaldunaren etiketa dute eta etiketa edo berezitasun horrek euskara erabiltzea errazten du. Adibidez, UEMAko herrigune batzuek euskararen arnagune izateko 'ospea' dute eta udalerritik ateratzean eta euren bizilekua jakitean, euskaraz hitz egiten diete beste herriko euskaldunek, hori delako egoera horretan espero dena.

Hala ere, batzuetan ez da guztiz ulertzen euskararen arnagune batetako herritarra izateak zer dakarren. Azpeitia UEMAko herri handiena da eta euskara indartzen ari da urtez urte, bada, horren inguruan galdetzerakoan hau erantzun zuten:

Hori kanpoko ikuspegi bat da, barrutik kanpora baino. Baina guk gure egunerokoa euskara hutsean egiten dugu eta hori Azpeitiatik kanpo ez dute ulertzen.

Horrelako albisteak jasotzen ditugunean harrotasunez hartzen ditugu, pozgarriak dira. Gero herri erdaldunagoetara joaterakoan hautemate aldetik gaztelaniara jotzen dugula iruditzen zait.
AzpeitiaTE

Bukaeran, dena dela, aurretik gehitu dugun puntu bat zalantzan jartzen da, hau da, arnaguneetako herritarrek herritik kanpo eusle papera hartzearena. Edonola ere, jasotako erantzunen argitara denetarikoa jokabide edo joerak daudela esan genezake.

Faktore orokorrak

- Elebatarrek eta politika elebatarrek ahalmen handia dute hizkuntza gutxituen bizi-ondarreen eta hiztunen egunerokoa

Herriar elebatarrek udalerri euskaldunetako hizkuntza ohituretan duten eragina aipatu dugu lehenago ere. Euskal Herriko faktorea izan daiteke hau, noski, baina erantzun batzuen argitara, elkarriketatu batzuek aipatzen dute hizkuntza gutxituetako hiztunak ez daudela erabakitze organoetan eta agintari elebatarren eraginpean daudela beraiek ere. Adibidez, ikus-entzunezko edukiak hizkuntza hedatzaileetan egoteko eta hori sustatzeko politikek udalerri euskaldunetako haurrengan dute eragina. Era berean, mundu mailan hartzen diren neurriek (adibidez, lanerako ingelesa behar izatea) udalerri euskaldunetan zuzeneko edo zeharkako eragina dutela argudiatu dute hainbat eztabaida-taldetan, milaka kilometrora esparru jakin batean hartutako erabakia izan arren.

- Mundua ezagutu nahi dute eta ingelesak ordezkatzeko du mundua; euskara mugatzailea da

Lehenago ere aipatu dugu haur eta gazteak euren nortasuna eraikitzen ari direla. Nortasun horretan, haurren mundua beraien herri txikitik haratago doa eta leku bila dabilzala ikusten dute irakasle eta gurasoek. Euskara euren herri txikiko hizkuntza txikia da, ate gutxi irekitzen dituen, eta beraiek mundua ikusi eta ezagutu nahi dute momentu honetan bertan. Fenomeno hau ikus-entzunezkoak jorratuko diren azpi-atalean garatuko da gehiago.

*Beraiei gustatzen zaizkien estimuluak hainbeste dira eta hain eremu/toki/hizkuntza ezberdinetatik datoz eta zaila da hori neutralizatzea. Gurea defendatzen dugu baina beraiek ere mundua ikusi nahi dute. *5TE**

- Gizarte eredu berri bat garatzen ari da

Era berean, mundua ezagutzen ari diren bitartean mundu hori etengabe eraldatzen ari da. Duela 20 urteko mundua ez da gaur egungo mundua eta globalizazioak eta pandemia sortutako eraldaketek, besteak beste, euskal gizartearen dinamikak eraldatu ditu. Mundua deskubritzen ari dira haurrak, baina mundu hori etengabe ari

da aldatzen eta helduok ez dugu nolakoa den ezagutzen. Helduen kezka eta haurren zaletasunak entzunda, ordea, badirudi haurrek mundu horretako errailetara iristeko gaitasun handiagoa dutela ematen du jasotako erantzunak ikusita.

- Helduok ez dugu haurren mundu edo errealitatea ondo ezagutzen

Aurreko puntuari jarraipena emanda, haurren errealitatea beti izan da helduengandik urrunduta egon den zerbait, eztabaida-taldeetan hausnartu den gisan. Helduek ez dugulako saiakerarik egiten edo, besterik gabe, ez dugulako lortzen haurren pentsaeran eta 'barnean dagoena' ezagutzea. Beraiekin konektatzen ez dugunez, ikerketa honetako erantzunen aburuz, zaila da haiengan eragitea eta nahi diren aldaketak lortzea. Gainera, helduon paternalismoak ere ez du asko laguntzen konexio horiek egiterako orduan:

*Hitz egiten dugu talaia batetatik eta ez dakigu zein den beraien errealitatea. Pentsatzen genuen ez zekitela ezer ez, baina ezagutza kultural handia dute eta erraz egin dute aldaketa kontziente eta finkoa euskarara. *7TE**

Bi aipu hauetan lehendik ere azaldu diren gaiak azaltzen dira: mundura begira biziitzea, taldeko liderren eragina, ikus-entzunezkoek duten garrantzia, etab.

*Esponja batzuk dira eta guri eskapatzen zaizkigun gauzak jarraitzen dituzte. Adibidez, entzuten dutena a la última egotea, 200M bisita izan ditzala. Zetak etab. Bideratuta sartzen dituzte, bestela kuadrilla mailan entzuten dutena jarraitzen hasten dira, guregandik oso urrun dauden klabeak. *4TE**

- Ikusten dutena egiten dute haur eta gazteek, baita euskararekin ere

Aurretik helduak eredu ez direla aipatu dugu eta, adibide oso zehatz bat jartzearen, haurrak gai dira ez bakarrik inguruko helduen jokabideaz ohartzeko, baizik eta Euskal Herrian gertatzen diren inkoherentziak identifikatzeko:

*'Bertako' igogailuen iragarkia euskaraz da eta langileek gaztelaniaz egin zioten nire aitari *3H**

Horren aurrean, seme-alabek argi dute gaztelaniaren erabileraren 'arazoa' ez litzatekeela euren gain jarri behar, beraiek helduen eta munduko dinamikek sortutako korronea jarraitzen dute.

*Alabak esaten dio: ama, gazteek ez dugu euskaraz hitz egiten, baina errua helduena da e? *3TE**

4.2.3 Azpimarratu nahiko genituzkeen faktoreak:

Hurrengo faktoreak ez dira herri askotan azaldu. Izatez, baliteke herri bakarrean azaldu izana, edo erantzun jakin batean soilik. Dena dela, gaiaren garrantziarengatik edo duen inplikazioarengatik atal bat osatzea erabaki dugu modu honetan identifikatu diren faktoreekin.

Eskola mailako faktoreak

- Lehen hizkuntza edota ohiko hizkuntza gaztelania duten familiak hazten ari dira

Aurretik aipatu da herrietako biztanleen (hizkuntza) profila aldatzen ari dela eta baita familiena ere, horrenbestez. Guraso, irakasle eta eragileen iritziz, aldaketa honek eskolan bere ondorioak izan ditu eta gaztelaniaz (edo beste hizkuntzaren batean) mintzo diren ikasleak igotzearekin batera jaitsi da etxetik euskaldunak diren ikasleen ehunekoa. Aldaketa honek erronka pedagogiko eta soziolinguistiko batzuk ekarri ditu:

*Sentsazioa asko aldatu dela: lehen gaztelaniaz irakatsi behar zitzairen eta orain oso erraz hurbiltzen dira. Erdaraz bizi diren familia asko daude eta euskaldunak berarengana eramaten dituzte. Berakoak ez diren familia asko etorri dira eta indar gehiago dute hizkuntza markatzerakoan eta geroz eta goiztiarragoa izaten ari da aldaketa. Erdaldun horiek euskarazko ulermen ona dute, baina ez dute erraztasunik euskaraz adierazteko eta beraien atzetik egon behar zara "euskaraz, euskaraz, euskaraz,..." nekagarria da guretzako eta haientzako. Ez da erraza. *7TE**

Muturreko kasu batetara joanez, eskola batetako errealitatea guztiz aldatu da. UEMAko udalerrri batetako D ereduko ikastetxe bat da, baina bertako kideen iruditan beste izaera guztiz ezberdin bat du komunitate horrek:

Nire alaba da etxetik euskaraz egiten duen ikasle bakarra bere ikasgelan. Nola kudeatu daiteke egoera hori, planteamendu eta baliabiderik gabe, euskarara bideratzeko? Eta gero hori gertatzen da, gaztelaniaz funtzionatzen duen D ereduko eskola bat gara.

*Asko aldatu da eskolako egoera: lehen 3-4 ziren etxean erdaraz egiten zutenak eta gainontzekoak euskaraz; gaur egun ikasle bat edo bi dira euskaldunak eta gainontzekoak erdaldunak edo atzerritar jatorrikoak dira, herria asko aldatu delako. *1TE**

- Gaztelaniarako joera handiagoa duten ikasgelak daude eskola hauetan

Aurretik esan dugu talde batzuetan azpi-taldeak sortzen direla eta horietako batzuetan gaztelaniarako joera handiagoa dagoela. Bada, batzuetan gaztelaniaz funtzionatzen dutenak ikasgela edo ziklo osoak dira. Horrelakoetan, ikastetxeak jakitun dira eta esku-hartzeak jartzen dira abian, beheko aipuan azaldu diguten moduan. Berriro ere, ez da hurrekin gertatzen den fenomeno isolatu bat, heldu/gurasoen artean berdina gertatzen baita.

*Eskola mailan esango nuke zikloa edo taldea funtzionatzen dutela gehiago edo gutxiago. Momentu honetan euskaldunak dira nagusiki. Elementuen arabera eragina dauka erabileran, baina identifikatuta daude (Branka) eta esku-hartzea egiten da. Etxeko joera izan daiteke, baina ez du zertan horrek arrazoi nagusia izan. Ez dago patroia nagusirik, eta izatekotan modu positiboan. Ez dut ezberdintasunik ikusten ume eta helduen artean, etxeokoa baldintzatzen du, etxeokoa egiten dutena baldintzatzen dute *4TE**

- Ahozotasuna lantzeko beharra dago, erregistro ezberdinetan gaitasun nahikoa eta baliabideak izan ditzaten

Gorago aipatu da gaztelania erabiltzeko arrazoietakoa bat hurrek hizkera informalerako gaztelaniaz baliabide gehiago dituztela dela. Honen inguruan nahiko hitz egin dugu dagoeneko, baina elkarrizketatu batzuk jakitun dira ahozotasuna lantzeko premia dagoela hurrekin, baldin eta hauek euskaraz hitz egitea nahi badugu.

*Eskolak badu ikasketa pendiente bat ahozotasunarekin, kaleko hizkera eta bizitasuna emateko euskarari. *4TE**

- Irakasleek poza adierazten dute udalerrri euskaldun batera lanera iristean, ez dutelako ikasleei euskaraz hitz egiteko eskatu beharrik

Lehenago aipatu dugu aztertutako eskola batzuetako irakasleak ez direla herrikoak edo eskualdekoak. Ordezkapen sistemaren ezaugarriengatik, irakasleek joan-etorri luzeak egin behar dituzte eta herri eta testuinguru ezberdinetan lan egin behar izaten dute. Azpimarratu nahiko genukeena da, guk aztertutako herrien kasuan, irakasle askok positiboki baloratzen dutela herri hauetako batzuetan ikasleak euskaldunak izanik eta euskara erabiltzeko joera edukita ez dutela ikasle horien 'atzetik ibili behar' euskaraz egin dezaten.

*Nik ordezkapen asko egin ditut, eta herri txiki batera etortzean aldea nabaritzen da: hemen askoz gehiago egiten dute euskaraz *6TE**

- Etxean mintzo diren hizkuntzak euskara edo gaztelania ez diren hizkuntzak direnean, kasu batzuetan hizkuntza horiek kontuan hartu, nortasun anitz baten barruan txertatu eta harrotasuna ematen zaie

Orokorrean, aztertu ditugun eskoletan atzeritar jatorriko ikasle kopurua nahiko urria da. Ehunekoetan ere ikasgelako zati txiki bat osatzen dute kasu ia guztietan (eskola bakarra dago etorkin jatorrikoak multzo handiena osatzen dutena, etxetik gaztelania dakarten ikasleen ondoren).

Edonola ere, euskara edo gaztelania ez diren hizkuntzetan mintzo diren ikasleekin lanketa berezia egiten dela ikusi dugu pare bat eskolatan. Gutxiengoak izan arren, jatorrizko hizkuntza horiekin sortzen den hizkuntza aniztasuna balioesten da eta hizkuntza guztiak maitatzeko eta lantzeko testuingurua sortzen da. Ondorio hau ikasgela barruko elkarrizketetan beraien ekimenez hizkuntza aniztasunaren gaia eta ikaskideen hizkuntzen garrantzia aipatu zelako ateratzen dugu. Esan beharra dago, gainera, ikasle batzuen kasuan, etxean hitz egiten dituzten hizkuntzak gutxituak direla jatorrizko herrialdeetan (hassaniera, galiziera eta irlandako gaelera, esaterako) eta ikasle eta irakasleek hizkuntza gutxituen arteko loturak egiten dituztela, euskara beste hizkuntza horiekin lotzean aniztasunaren aldeko jarrerak sortuz.

- Eskola segregatua izateak euskararen gaia beste buruhauste bat gehiago bilakatzen du eta ez dago baliabiderik euskara bultzatzeko, eguneroko erronken garrantzia ikusita

Aztertu dugun eskola bat segregatua dela esan liteke, hau da, etorkin jatorriko ikasleen ehunekoa herrian dagoena baino nabarmen altuagoa dela. Etorkin jatorriko herritarren hizkuntza-integrazioa erronka dela adierazi dute herri guztietako elkarrizketatuek, bada aipatutako eskola honetan ezin zaio erronka horri heldu, are gehiago eskola-komunitate honetako partaideen esanetan eskola honek duen baliabide faltarekin. Herri horretan, dena dela, eskola segregazioa ez da gaztelaniaren erabileraren arrazoia:

Eskolako segregazioa, perfil sozioekonomikoa jakin batetako gehiago daude hemen ikastolan baino. Hasi begiratzen non bizi diren ikasleak eta ikusiko duzu zein joera dagoen.

*Gustatuko litzaidake jakitea kanpoan jaiotakozen zenbat seme alaba dauden musika eskolan. Berdin dio: futbolean, eskubaloian, arraun taldean,... ohitura hor ere gaztelaniaz da eta ez dago atzeritar jatorriko ikaslerik. ***1TE****

Beste bi herritan, aztertutako eskolez gain gehiago edo gutxiago segregatutako eskolak daude eta haur guztien elkarbizitza bermatuko duen espazioak sortzea galarazten du horrek, ikastetxe ezberdinetako ikasleak ez direlako bata bestearekin nahasten.

*Atzeritar jatorriko ikasleak zuzenean monjetara doaz, Ikastolan ez dago inor eta eskolan oso gutxi. ***7TE****

*Familia perfilek eragina dute eta horrelakoak (etorkin jatorrikoak) eskolan daude, hemen ez... eta eskolan aniztasun gehiago eskolan dago, publikoa delako. Kanpotik etorritakoak zuzenean joaten dira publikora, arrazoi ekonomikoengatik. ***4TE****

Herri mailako faktoreak

- Herriko nagusiagoekin, urte gutxiko adin-tartea egon arren, gaztelaniaz egiteko joera handiagoa dago, nagusiagoen indar edo prestigio handiagoak gazteagoengan duen eraginarengatik

Lehenago aipatu den bezala, adin ezberdineko solaskideen artean baldintzatzaile asko egoten direla identifikatuta dute haur eta helduek, besteak beste, gaztelaniaz hitz egiten duten helduagoen prestigioa eta boterea.

*Batzuek diote ezetz eta beste batzuek anekdotikoa baino gehiago da ohitura. Erdaraz egitea klase ikutu bat ematen digu euskaldun peto petoei. Kanpoko lagun batek esan zuen harrigarria zela ume guztiek euskaraz egin eta guraso euskaldunek erdaraz egitea. Toki erdaldunagoetakoekin gaztelaniaz hitz egiteko joera gehiago izan, nahiz eta besteak euskaldunak izan. *3TE**

Lehenago ere esan dugu haurrek helduekin eusle lanak egiten dituztela. Batzuetan, ordea, ezinezkoa da egoera guztietan paper hori jokatzeari. Hurrengo adibide honetan, haur honek modu sarkastiko eta gordinean azaltzen du euskara eusteak zer nolako ondorioak izan ditzakeen:

*Arrasatekoekin elkartzen gare eta euskaraz egiten badotzagu esaten digute "tontua zare?" eta guk zer erantzun dotzagu. "baaai!"? *AramaioHaurra**

- Anai arreben artean gaztelaniaz egiten dute, baina ez hainbeste bakarka daudenean, baizik eta beste lagun batzuekin batera

Aurretik aipatu dugu nerabeek haurrengan eragiten dutela hizkuntza hautatzerako orduan. Nerabeek haurrengan eragiteko ahalmena dute eta DBHn gaztelaniaz egiten hasten direnez prestigio kontuengatik, prestigio edo botere hori gaztelaniaren bitartez erakusten dute. Herrietan egindako behaketetan eta haur eta helduen iruzkinetan ikusi den gisan, adin-tarte ezberdinetako taldeetan gaztelania gehiago erabiltzen da adin bereko haurren taldeetan baino, aipatutako botere ezarpen horiengatik.

Kasu batzuetan jaso dugu etxetik euskaldunak diren anai-arrebek gaztelaniaz egiten dutela beraien artean, baina hori gehiago gertatzen da talde handietan daudenean. Gero, etxean, euskara mantentzen dute hein handi batean. Era berean, etxean gaztelaniaz egiten duten anai-arrebek euskara gehiago edo gutxiago erabiltzen dute beraien artean, herrian euskarak duen garrantziaren ondorioz.

- Frantsesa hizkuntza garrantzitsua da Beran lau arrazoiengatik (politika, kanpora joateko, Ibardinen lan egiteko eta inguruko hizkuntza delako) eta herriko hizkuntzen parte da, baita herritar askoren egunerokoan ere

Beraren kasuan, gaztelania eta ingelesaz gain indar handia duen hizkuntza bat dute herri inguruan: frantsesa. Elkarriketatutako helduek esanda, muga bizia da Bera ingurukoa, harreman handia dago 'beste aldearekin' eta harreman horretan frantsesak erabilera eta garrantzi handia du. Ikasle askoren erretratueta frantsesak toki garrantzitsu bat dauka norbere iruditerian eta hizkuntza hori ikasi eta hitz egiteko arrazoi instrumental ugari dituzte, esaterako, udan lan egiteko edo turistekin hitz egiteko. Haurretako batzuek, gainera, frantsesa hitz egiten dute familian edo, gutxienez, ikasten ari dira.

Helduei dagokienez, horrela deskribatzen dute frantsesak herritarrengan duen garrantzia:

*Behar dugu, oso aberasgarria da, atzerriko bigarren hezkuntza bezala, komertzioan lan egiteko,... askok ikasten dute 16 urterekin Ibardinen lan egiteko. Aukera asko daude frantsesa ikasteko LH-n hautazkoa, DBHn derrigorrezkoa, partikularretan (ingelesarekin batera) ***BeraTE****

- Herri mailako kohesioa ahula denean, barreiaketa horrek ondorioak ditu, baita hizkuntzen erabileran ere

Aurretik ere aipatu izan da herri batzuetan eragileen arteko elkarlanik ez dagoela, eskola segregatuak daudela eta eskola batzuen arteko harremana ez dela ona. Lan honetan bildu ditugun hainbat hausnarketek argudiatzen dute elkarlan falta horrek ondorio batzuk dituela herriaren kohesioan eta, honek, era berean, hizkuntza erabileran eragiten du, euskal hiztunak barreiatzen direlako. Badirudi, gainera, kohesio-galera hau azken urteetan garatu den gertaera bat dela:

Kirolak asko batzen du, beste jatorri eta eskola batzuetako batzuekin nahasteko aukera oso gutxi daude herrian eta kirola da horietako bat (3. Mailatik aurrera hasten dira). Ez dugu ezer komunean herriko beste batzuekin.

*Lehen denok elkar ezagutzen genuen eta gaur egun ez dakigu nor den bakoitza. Eskolak bete beharko luke elkar ezagutza eta kohesioa sustatzeko funtzioa, bestela zaila da parte-hartzea, lotura, guraso sarea osatzea,... Guraso elkartearen residuala da, ikasgeletako bileretan ez gara elkartzen, guraso kontseiluan batzea ere gaitza da. Eskola kontseiluan ordezkari garenak denak euskaldunak gara eta gero eskolako guraso euskaldunen proportzioa askoz baxuagoa da, ez da errepresentatiboa. *1TE**

Euskal Herri mailako faktoreak

- Zaila suertatzen da hizkuntza ohiturak aldatzea

Orain arte, talde edo koadrila batzuetan gaztelania erabiltzeko joera dagoela azaldu dugu, erabilera horrekin eroso edo ados egon ez arren. Herriko hizkuntza nagusia euskara izanda ere, erantzunetan hasieran hartutako ohitura (gaztelaniaz egitea) aldatzea zaila suertatu daitekeela aipatu izan da, baita horretarako baldintza hobeak dituzten herri hauetan ere:

*Euskaraz ezagutzen dituzu eta jarraitzen duzu horrela. Gurasoei kostatzen zaie euren ohitura intimoenak aldatzea, eta haurrek zalantzan jartzen dute hau. Ume batek euskaraz egiten dio amonari (ulertzen du), baina txikiena gaztelaniaz hitz egiten hasi da. *5TE**

Beste behin ere, ohiturak gaztelania mantentzea dakarrenean umea inkoherentzia berehala jabetzen da eta berak ere berdina egiteko bidea ikusten du:

*Joera hartzen dugu norbaitekin gaztelaniaz egiteko eta kostatzen da ohitura hori aldatzea. Helduen artean batik bat, baina umeekin ere bai. Familia batean euskara umeekin aitak (amak bietara), bi gurasoak gaztelaniaz... eta umeek hori ikusten dute *6TE**

- Nerabazarorako oinarri batzuk finkatu behar dira euskararekin, bestela zaila izango da helduetarako euskarara berriro ere hurbiltzea

Haur eta gazteek gaztelaniarako aldaketa egitearena berria ez dela ikusi dugu goiko hainbat puntuetan. Erantzunen argitara, nerabezaro ostean euskarara itzultzeko aukera dago, lehendik ere gertatu delako.

*Altsasura joan eta erdaraz hasi nintzen, gu gaizki moldatzen ginen arren. Garai horretan okertu nintzen... 14-17 adin tartea da kritikoa, hor aguantatzen badute gaitzerdi ***EtxarriTE****

Edonola ere, haurrek ez dute zertan euskara bazter batean utzi behar eta hizkuntzarekiko atxikimendua mantendu dezakete bizitza osoan, hori ere posible dela ikusi dutelako ikerketa honetan parte hartu duten hainbat helduk:

*Niri ezberdin gertatu zitzaidan: institutuan ez nuen hizkuntzaz aldatu eta denbora guztian kuestionatzen nuen zer gertatzen ari den. Nire semeak ere galdetzen dit "horiek zergatik ari dira gaztelaniaz?" ***5TE****

- Oraindik gaitasun eta kontzientzia elebidun-eleaniztuna ez dute guztiz garatuta ikasle batzuek

Puntu batzuetan aipatu izan dugu inkoherentziak egoten direla haur eta helduen jokabideetan. Halaber, haur batzuek hizkuntza bat edo bestea hautatzen dute komunikatzeko, baina gutxiagotan egiten dute hizkuntzen erabilera malguago bat, praktika eleaniztun eta bat-bateko *translanguagingarekin* lotuta. Horren atzean egon daitekeen arrazoi bat haurren gaitasun metalinguistikoa oraindik ere garatze bidean dagoelako izan daiteke, jarraian partekatuko ditugun bi adibideen harira:

*Liatu egiten naiz oporretan noanean: Palentzian gaudenean euskaraz egiten dut eta gurasoek gaztelaniaz egiteko eskatzen didate, eta hemen, berriz, alderantziz eskatzen didate. ***6H****

*Oporretan gaztelaniaz egiten didatenean nik deskuidoan euskaraz erantzuten dut batzuetan ***3H****

- Herriko eta Euskal herriko hizkuntza erreferenteak behar dira

Haurren artean euskararekiko jarrerak eta erabilera sustatzeko erreferenteak behar direla aipatzen da behin edo beste. Orain arte aipatu den moduan, gazte hauek kanpora begira bizi dira eta erreferenteak hortik iristen zaizkie, kanpoko ikuspegi eta mezuekin. Herriko edo Euskal Herriko erreferente horiek ez dute zertan telebistan azaltzen diren famatuak izan behar, baizik eta herritarrengan eragin positiboa izan dezaketen pertsonak:

Uste dut herri mailan garrantzitsua dela herritarrek identifikatzea euskaldun erreferenteak. Jakin dezatela umeek ere gutako batzuk euskararen aldeko eragileak garela eta gurekin euskaraz egiten dela. Uste dut guraso euskaltzaleek rol bat dutela herri honetan.
2TE

Bere ibilbidea ere begiratutzen dozu, pertsona bat beti euskaraz egiten duena ***5TE***

- Euskararen biziberritzean dena eginda dagoen ustea zabalduta dago eta horrek hizkuntzarekiko atxikimendua eta militantzia apaltzen ditu (Gipuzkoako sindromea)

Azpimarratu nahiko genukeen beste puntu adierazgarri bat, euskararen biziberritzeak sortzen dituen nekeekin lotuta, prozesu honek elkarrizketatuen ustez bizi duen motelaldi edo bidegurutze-egoera bat da. Hainbeste urteetako lanaren ostean, belaunaldi zaharrenak konforme daude egindakoarekin eta gazteenak ez dira kontziente zer egin den eta zer falta den oraindik ere:

Gipuzkoako sindromea dugu "hau dena eginda dago baina ez dago eginda" eta Aramaio Gipuzkoa bezalakoa da. Lotan dago Gipuzkoa eta gu ere bai. Lautadan edo Nafarroako Bertso Txapelketan beste bor-bor bat zegoen. Aramaioko gurasoen artean ez dute jarerrarik edo ohiturarik seme alabengan euskararekiko atxikimendua eta aktibazioa transmititzeko. Lo gaude. ***AramaioTE***

Beraientzako euskara hizkuntza bat gehiago da, komunikatzeko tresna bat da. Ez dira kontziente zenbat egin dugu egoerari buelta emateko, jaso dute dena jaso, baina ez dago kontzientziarik eta zerbait falta zaie. Dantza taldean dena egiten dugu euskaraz baina duela 20 urte euskaldundu zen. ***4TE***

- Euskaldunon hizkuntza eskubideak zapaltzen dira

Gutxitan agertu den arren, euskararen hauskortasuna eta hizkuntza-gatazkaren gaia ere aipatu izan dute haur eta helduek. Gaztelaniaz hitz egiten bada, zentzu batean erdal elebakarrek duten ahalmenarengatik da. Azpimarratu den bezala, euskara

hutsean egitea gatazkatsua da eta horrek euskaldunen hizkuntza eskubideak urratzen ditu. Udalerrri euskaldunak izanda ere, botere-harreman hori egon badago eta euskara ateratzen da kaltetuen sarri askotan. Hurrengo pasartea herri batean jasotako solasaldi baten zatia da, gai honen inguruan hausnartzen ari zirenean:

Elebiz egiten diren bileretan ematen du gu gurela gure eskubideak oztokatzen dituenak. Nire amak ez daki euskaraz eta inoiz ez du batzarrik eskatu gaztelaniaz. Zentzu horretan asko galdu dugula iruditzen zait.

Eskubideen gaian inoiz ez da kontuan hartzen eskubide indibidualak kolektiboari eragiten diela. Ahalegin minimoa falta da minoria erdaldunak euskarazko solasaldiak edo batzarrak bermatzeko. Xuxurlariak jartzeko aukera eta batzuek ez dute ezta hori nahi. Esfortzua eta non bizi zara! Ezta egun on ere! Denetariko erdaldunak ditugu, euskararen kontrako militanteak ere direnak.

“Cómo todo lo que haceis es en euskera” esan ziguten behineta asko berotu ginen. Zuk ikusten duzu eskubidea duzula talde osoak zure hizkuntzan hitz egin dezan, mezu hori ulertzeko moduak daudenean. Ez dut ulertzen zergatik sentitzen diren guraso erdaldunak zapalduta sentitzen direnean.

*Duela 40 urte eskolako mezu bakarrak euskaraz ziren eta umeek itzultzen zuten. Gaur egun ez da hori ere gertatzen, atzeraka goaz. Euskaraz egiten saiatzen ziren lehen, bere mailan eta ahalmenaren arabera. Gaur egun haustura dago eta jarrera bat sortzen da, erantzuna maila horretan kokatzen da. ***5TE****

- Guraso eta helduek, orokorrean, ez diete euskararekiko atxikimendua transmititzen seme alabei

Kontzientzia, eredu izatea eta euskaraz hitz egiteko ohitura faltarekin lotuta, guraso batzuen partetik ez dago euskara sustatzeko jarrerak transmititzeko neurririk, ezta euskara modu aktiboan erabiltzeko ere.

*Aramaioko gurasoen artean ez dute jarrerarik edo ohiturarik seme alabengan euskararekiko atxikimendua eta aktibazioa transmititzeko. Lo gaude. ***Aramaiote****

- Euskara karga edo gure gain hartu beharreko borroka ez izatearen garrantzia

Inkoherentziez, aldatzeko zailak diren ohiturak, euskararen gaineko kontzientzia falta, euskara hutsean hitz egiteko zailtasunak eta biziberritze prozesuaren ajeak jorratu ditugu goiko lerroetan. Guraso batzuen hitzetan, euskaldun batek bere

hizkuntza erabiltzea karga izan daiteke askotan eta haurrek ez dute ardura hori izan nahi. Are gehiago, guraso batzuek ere ez dute nahi euren seme-alabek karga hori eramaterik:

*Nik ez dut nahi nire semeak euskara erronka bezala bizitzea. Nik bizitza errotik aldatu nuen esfortzu handia eginez eta nahiago nuke semeak euskara modu natural batean bizitzea. Esfortzua egin behar badu edo aktibista izan nahi badu egin dezala, baina ez dela derrigortuta egotea. *7TE**

Beraz, egoera horretan nork dauka egoera aldatzeko ardura?

- Hizkuntza politikari askoz gehiago eskatzen zaio

Erantzun askotan euskara nola sustatu behar den aipatu da, gaur egungo diskurtsoek zalantzak sortzen dituztela. Bestalde, erakundeek hizkuntza politikan egiten dutena ere zalantzan jarri eta kritikatu dute hainbat eragilek. Ondorengo adibidean, kritika hori maila ezberdinetan eta orokorrean egiten da:

Instituzioen utzikierengatik gaude horrela. Tituluaren gosea sustatzen dute, itxurakeria, eta euskaraz bizitzea ez dute bultzatzen. Tituluak oparitzen dituzte, baina erabilera eta gaitasuna ez daude bermatuta. Hizkuntza politikek ez dute maila horretan eragiten, ez dute exigitzen. Adibidez, herriko osasun etxean gaztelaniaz egin behar dugu (pediatra eta abar) eta udalean bakarrik euskaraz. Nora joaten gara gehiagotan eta nora umeekin?

Derrigortu behar da, Israelen bezala. ¿Para qué? Para todo, behartu beharko litzateke, taliban bat naiz eta behartuko nuke. ("Nik bozkatuko zintuzket!" esaten dio batek). Beharrezkoa egin behar da eta euskara ez da beharrezkoa. Ni kanpotik banator, ez dut euskara behar integratzeko, baina gu kanpora bagoaz mezkitan behar dut zapia eta jartzen dut baina beraiek ez dute euskaraz ikasten.

Ez dugu praktiko egiten. Gaztelania baduzu ez duzu euskararik behar, ezta Etxarrin zerbitzari izateko. Denok gaztelaniaz badakigu eta konplexuak ditugu, gaizto sentitzen naiz euskaraz egiteagatik. Militantzia ere gaztelaniaz egiten dugu, "vamos a darle solución al problema del euskera", gaztelaniaz.

*Alemaniera, ingelesa, frantsesa,... puntuatzen dute eta euskara ez. Politikan, pauso bat aurrera eta bi atzera. Soka tira bat da, irabazi ala galdu. *EtxarriTE**

Goiko aipua modu orokorrean egina da, beheko aipuak, berriz, maila lokalean ere egiten du kritika, hizkuntza politika ere badagoelako momentuko udal gobernuaren esku:

*Teorikoki hainbat gauza dakizkigu hizkuntza biziberritzeko (ahozkotasuna landu, murgilketa orokortu,...) baina ez dago apustu politikorik. Udal honek ez du ezer egiten! *5TE**

- Baliabideak falta dira udalerrietan agertu diren egoera berriak kudeatzeko

Hizkuntza politikari eta agintariei egindako kritiken harira, baliabide falta da gehien aipatzen denetako bat. Baliabide faltak ez du zertan erakundeekin zerikusi zuzena izan behar kasu guztietan, batzuetan herritarren mailan kokatzen delako gabezia horren muina eta, beste batzuetan, aldiz, nazioarteko dinamiken ondorioz. Ondorengo hiru aipuetan baliabide falta horien hainbat adibide ematen dira, kezka eta abiapuntu ezberdinetatik. Orain arte aipatu diren beste gaiak ere agertzen dira zeharka, irakurlea ohartuko den moduan.

*Zenbat txorrota zabaldu diren erdaraz azken urteetan, eta zenbat itxi diren euskarazkoak. *2TE**

*Eskola honetan euskaltzale gutxi kontzentratzen dira eta egoerari buelta emateko kapital humano gutxi daukagu. Oso parte-hartze gutxi eskolan eta horrek zerikusia du familien profila asko aldatu izana eta gizartean ere aldaketak egotea. Dena dela, gauza guztiak herriaren isla dira. Etorkizuna iluna da. Esaten digute "tori, konpondu zaitezte zuek!" *1TE**

Kezka dugu, arnasgunea izanda baliabideak behar ditugu euskara bultzatzeko, bai sare sozialetan eta kultura kontsumoan, baita etorkinen euskalduntzean. Tanta bat gara eta zerbaitegin beharra dago, bestela irentsiko gaituzte.

*Arrisku larria dugu eta eskerrak oso ondo gaudela, baina lokartzen bagara erdararako aldaketa iritsi da e? Eta oso nekagarria da euskara sustatzea. *3TE**

- Pandemiaren bueltan euskara sustatzeko ekimen asko bertan behera gelditu dira

Baliabide faltarekin lotura du, halaber, Covid-19 pandemiak. Nahiko egoera hauskorrean zeuden ekimen eta taldeak bertan behera uztea ekarri du kasu askotan, eztabaida-taldeetan aipatu den gertakaria da hau. Adibide bat gehituko dugu jarraian:

Euskararekin ez bereziki. Pandemiaren aurretik eta euskararen erabileraren beherakada hasi zenean sortu zen euskara talde bat. Herriko taldetik eskolara joan ginen proposamen batekin, ipuin bat sortu genuen herrira lotuta euskararen erabilera eta atxikimendua bultzatzeko. Pandemiaren garaitik nahiko desaktibatuta dago. Ekimen horrek zenbateko ilusioa sortu zuen umeengan, hala ere?
6TE

- Euskararen biziberritze prozesua aldatu egin da

Hizkuntza politika kritikatu egiten da, euskara sustatzeko diskurtsoak zalantzan jartzen dira, baina elkarrizketatutako heldu batzuentzako kontua da euskararen biziberritze prozesua aldatu egin dela eta bide-orria eta ikuspegia gaurkotu beharko litzatekeela, beraz. Ondorengo aipuan ikus daitezke biziberritze prozesuan gertatutako hainbat aldaketa:

Gu eta gure seme-alaben euskalduntze prozesuetan ezberdintasunak ikusten ditut: ni euskaldundu eta guztiz murgildu nintzen euskararen horretarako mugak izan arren. Eta nire ilobak, berriz, euskara ikasi dute eskolan eta gero hortik guztiz aldendu dira, euskara erabiltzeko erraztasun guztiak izanda ere. Esperantza daukagu seme-alabak izatean euskarara itzuliko garela. ***5TE***

- Euskaraz nabarmen hobeto moldatzen diren haurrak ere badaude gaur egun

Orain arte Euskal Herriko irudi zertxobait ezkorra azaldu dugu aipatu diren azpimarratu nahi genituen puntu hauetan. Edonola ere, haurren gaztelaniazko gaitasuna eta hizkuntza hau geroz eta gehiago erabiltzearen inguruan galdetzean, heldu batzuen ustez euskara hutsean bizi diren eta euskarazko gaitasun askoz handiagoa duten ikasleak egon badaudela aterata da. Haur batzuek ere onartu digute gaztelaniaz egiteko zailtasunak dituztela eta erosoago aritzen direla euskaraz.

*(gaztelaniaren nagusitasunaz galdetzean) Nik ez dut ikusten hori: dena euskaraz egiten dutela uste dut, kostatzen zaie gaztelaniaz egitea. *6TE**

*Batzuetan talde batzuetan gaztelaniaz egiteko ohitura dago eta nire alabak esan zidan gaizki pasatzen zuela kuadrilla horretan egiten zutena ez zuelako ulertzen. *6TE**

Horri gehitzen badizkiogu gorago azaldu zaizkigun beste indargune batzuk ere, esaterako, atzeritar jatorriko haurrak euskalduntzeko dagoen erraztasun-gaitasuna, esan genezake udalerri euskaldunetan euskarak duen bizi-indarra handia dela, hautematea beste bat den arren.

- Norbere udalerritik herri erdaldunago batetara ateratzerakoan, askotan herritarrek joera dute gaztelaniaz hitz egiteko

Lehenago aipatu dugu udalerri euskaldunetako herritarrek erraztasunak topatu ditzaketela herritik ateratzean euskaraz hitz egiteko, arnagune ospea duen herri batekoa izanda egoerak euskaraz egitera (gehiago) bideratzen duelako. Edonola ere, haur eta helduen erantzun batzuetan ikusi dugu herritar batzuek ez diotela euskarari heltzen inguruko herrietara joaten direnean, arrazoi ezberdinak tarteko.

- Udalerri euskaldunetako herritar batzuek konplexuak dituzte euskaldun elebakar izatearekin eta, gaztelaniaz ez ikasteko beldurrez, gaztelaniaz asko egiten dute

Euskal hiztunek euskarari ez eusteko arrazoietakoa bat da euskaldun elebakar izatea (edo etiketa hori izatea) ez dagoela onartuta, edo behintzat hiztunak berak kezka ikusten duela kanpotik bera horrela etiketatzea. Hori dela eta, euskaldun batzuek, euren herrian eta herritik kanpo, zuzenean gaztelaniaz egiten omen dute konplexu horiei aurre egiteko eta estigma hori gezurtatzeko. Joera hau lehenago ere gertatzen zen arren, gaur egun ere oraindik ikus daiteke hainbat egoeretan:

Beldurra izan dugu euskaldun peto-petoak zirenek ez zutelako gaztelaniaz ikasiko eta belaunaldi asko ez dira euskaraz alfabetatu. Monjen eskolan, adibidez, etorkinak eta baserritarrek zeuden. behe

Horri gehitu behar zaio sentsibilizazioa jaisten ari dela euskaldun peto petoetan. Kanpotik etorri berria den norbaitekin gaztelaniaz hitz egitea bueno, baina Urrustiko mendi puntako baserri batean bizi direnen artean gaztelaniaz raka-raka egiten dute. Pentsatzen dute

*erdaraz ez direla moldatuko etorkizunean euskaldun petoak direlako eta orduan hasten dira erdaraz kontsumitzen. ***AzpeitiaTE****

- UEMAko udalerria izatearena zalantzan jartzen dute herri batzuetan, euren herriko egoera soziolinguistikoak bizi izan dituen aldaketengatik

Herri eta egoera jakin batzuetan, aztertutako errealitate batzuk guztiz eraldatu dira eta euskararen erabilera nabarmen gutxitu da. Horren harira, herritar batzuek zalantzan jartzen dute udalerri euskaldun batetako herritar izaera.

*Ez dakit zergatik gauden UEMAn, joera herrian guztiz da gaztelaniaz. Poteoan gure artean erderaz egiten dugu nahiz eta denak euskaldunak izan. Identifikatuta ditugu pertsona gako batzuk eurekin euskaraz eta gaztelaniaz egiten. ***1TE****

- UEMAko beste herri batzuekin konparaketak egiten dira

Aurreko puntuarekin lotuta, inguruko beste herri batzuekin konparaketak eginez gero ondorio negatiboekin gelditzen dira elkarriketatu asko, euren iritziz beraien herria bilakaera txarra izaten ari delako.

*Joe, hau ez dala Gernike, Mondeka,... hau Bermio da. Ikusi Ondarru, gu bezala arrantzale herria da eta datu guztiz ezberdinak dituzte. Han etorkin senegaldarrek bertako euskararen egiten dute eta hemen denok gaztelaniaz egiten dute. ***BermeoTE****

- Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren inguruko ezagutza eta hautemateak

Egoera soziolinguistikoaren inguruko hausnarketak, iruzkinak eta balorazioak etengabeak izan dira azterketan zehar. Gai garrantzitsua da eta mota askotako pistak ematen dizkigute han eta hemen azaltzen diren ideiek.

Hasteko, euskara baloratzen dute eta ezusteko egoera batean euskaraz entzuten badute harritu eta poztu egiten dira. Adibidez, asko Euskal Herritik kanpo joaten dira oporretan eta euskaraz egiten dute bertan. Haurrentzako hori harrigarria da eta "a zer suertea, oporretan urrun joan eta euskaraz egitea!" bezalakoak jaso dira.

Bestalde, herriko egoeraren inguruan hausnartzean herritar bakoitzak bere hautematea eta irakurketa egiten du. Eztabaida taldea osatzerakoan, batzuetan sorpresa batzuk hartzen ditu partaideak berak:

- Guk auzoan gehienekin ezin dugu euskaraz egin gehienak atzerritarrek direlako eta horiekin gaztelaniaz. Orain talde hau herri mailako ghettoa da.

- Alaaa!! Hainbeste, ez ezta?

- Bai, horrela da! ***6TE***

Bukatzeko, euskararen biziberritzerako nolabait kaltegarriak izan daitezkeen ideien eragina ere topatu dugu:

*"Bizkaitarrak ziren baina euskaraz egiten zutenak" ***6H****

*"Andaluzian oso espainolak dira eta horregatik antzeztu ditugu andaluz batzuk. Baina horrelakorik ez dago herrian. Beraien artean gaztelaniaz jolasten dute baina euskaraz badakite palan frontoian jolasten dutenak" ***3H****

- Hitzun berriekiko sentiberatasuna ez dago guztiz bereganatuta euskal hitzun batzuengan

Aipatu nahiko genukeen beste gai bat euskarazko hitzun berriena da. Udalerrri euskaldunetan baldintza hobeak daude euskaraz ikasteko, baina batzuetan hitzun berri horiek egiten duten esfortzua erreprimitu egiten dute jatorrizko hitzunei. Beheko adibidea haur eta ama baten artekoa da, baina helduen artean ere gertatzen dela jaso dugu:

*Parte-hartzaileetako batek irri egiten zion amari euskaraz gaizki hitz egiteagatik eta ama gaztelaniara pasatu zen. ***7H****

Faktore orokorrak

- Ez da erraza umeei aginduak edo argibideak ematea, gaur egun askoz sentiberagoak dira

Haurren artean euskararen erabilera bultzatzen saiatzen denean, baina, batzuetan herriko eragile, irakasle eta gurasoek haurren ezezkoa eta erreakzio txarrak jasotzen dituztela aipatu digute. Lehen aipatu den adin berezia dela, arrazoietakoa bat izan

daitekeen frustraziorako tolerantzia falta dela, haur (eta pertsona) batzuek ez dute agindu edo kritikarik onartzen. Honek, ondorioz, hizkuntzarekin lotutako agindu edo eskarietan ere badu eragina:

*Ez dakigu zer egin behar den umeen ohitura aldatzeko, esan edo ez esan, ze batzuetan ume-umeen erantzun txarrak jaso ditugu, jarrera txarra erakusten dute (ez euskararekin bakarrik) *6TE**

- Gai batzuetan alde handia dago ikerketa honetan gurasoek esan dutenaren eta ikasleen esanen artean

Hau ikerketa honetako egileok ateratzen dugun ondorioa da. Laburbilduz, haurrak haur dira eta helduak, berriz, heldu. Nekez konektatzen diren bi mundu paralelo dira eta bizipenak, lehentasunak eta ikuspegiak guztiz kontrajarriak izan daitezke.

Haurrekin egin ditugun azterketak eta haiengandik jasotako bizipen eta erantzunak helduenekin alderatuta, kasu batzuetan egoeraren irakurketa nahiko ezberdina egiten dutela ohartu gara. Adibidez, haurrek herrian dena euskaraz egiten dutela esan eta helduek hori zalantzan jartzen zuten. Bien bitartean, helduek euren artean euskaraz nagusiki egiten zutela esan eta euren seme-alabek hori gezurtatzen zuten.

Bi ahotsen artean dauden alde horien aurrean, balizko hiru azalpen ditugu: 1) hautemate kontu soila izatea, 2) kontzientzia modu ezberdinean garatuta izatea eta 3) emandako erantzunak eta partekatutako hausnarketak ikertzaileen interesen arabera moldatzea.

4.3 IKUS-ENTZUNEZKOAK

Hasiera batean ikus-entzunezkoarekin lotutako erantzun eta faktoreak beste eremuekin batera jorratzeko aurreikuspena zegoen, baina gai honek gizartean hartu duen garrantzia ikusita, eta horri lan honetan gai honekin lotuta jaso diren erantzun kopurua gehituta, aparteko eremu bezala tratatzea erabaki da. Hau honela, hurrengo lerroetan partaideek egindako iruzkin eta hausnarketetan oinarritutako diagnostiko garatua gehitu dugu.

Pandemiaz geroztik, ikus-entzunezkoen plataformen kontsumoa eta garrantzia izugarri handitu da, Interneten erabilerarekin batera. Euskal Herria ez da salbuespena eta UEMAko udalerriak ezta ere. Haur eta helduen erantzuna ikusita, funtsezko gaia bilakatu da hau, bai fenomenoaren agerpenaren indarrarengatik, bai haurren eguneroko eta nortasunean izan ditzakeen ondorioengatik. Izan ere, UEH-n aztertutako haurren gogoko serie, bideo eta produktu kulturalak euren bizitzaren erdigunean kokatu dituztela ikusi dugu, bai eskaintzen dioten denborarengatik, bai euren kuadrilletan hartu duen garrantziarengatik.

*Ikasleak etortzen dira klasera eta kontatzen digute zer egin eta ikusi duten eta hortik enteratzen gara. Kontsumitzen dutena komentatzen dute, ohitura dute horren inguruan aritzeko eta gozatzen dute horrekin, beraien erreferenteak bihurtzen dira eta beraien erreferenteak erdaldunak direnean horrek eragina dauka beraien euskararekiko jarreretan. *6TE**

*Sare sozialek eragin handia dute eta kontsumitzen ez dutenek ere lagunen poderioz jasotzen dituzte erreferentzia horiek. Euskarazko edukia badago, baina ez da lanketarik egiten. *3TE**

*Pandemiak areagotu du joera hori: aurretik telebista ikusten zen eta pandemiatik aurrera zuzenean YouTubera eta hor dena erdara hutsean. Hegoamerikako edukiak arrakasta handia du, grazia egiten die eta horrela hasten dira gaztelaniaz. *3TE**

Agertoki berri honek haurren artean (herriko eta nazioarteko) harremanak izateko modu berriak sortu ditu, baita hizkuntzekin jolasteko eta gozatzeko ere. Gure azterketaren argitara, ohikoa bilakatu da Euskal Herriko herri txiki bateko haur bat munduko beste txoko bateko haur batekin elkarreraginean aritzea, elkar ezagutu ez arren. Ikus-entzunezkoaren barruan sare sozialak, edukiaren kontsumorako eta bideo-jokoen plataformak daude eta haurren sozializaziorako espazio garrantzitsuak bilakatu dira, jaso ditugun erantzunetan ikusi den bezala. Horren harira, duela urte batzuekin alderatuta, haurrek denbora-pasa eta zaletasun gutxiago dituztela aipatu zuten hainbat helduk eztabaida taldeetan. Euren esanetan, tradizionalak izan daitezkeen ekintza batzuk ia desagertu eta beste berri batzuk nagusitu dira. Bideo-jokoen eta YouTuberen fenomenoak euskal gizartean errotutako fenomenoak dira, eta esan beharra dago indar are gehiago dutela erantzunetan jaso ditugun joera berri batzuen argitara: adibidez, gaur egungo haur eta gazteek ingelesezko bideoak ikusten dituzte azpidatziekin (adib. bideo-jokoekin) eta horrek ingelesaren tokia are gehiago indartu du.

Ohikoa bihurtu da, halaber, orain arte euskara hutsean (edo nagusiki euskaraz) aritzen ziren hurrek mota guztietako hizkuntzetarako sarbidea izatea. Plataforma eta espazio hauetan, eduki gehiena gaztelaniaz eta ingelesez dago eta horrek hizkuntza hauen irismena areagotu du nabarmen, hizkuntza hauek azkarrago eta goizago ikasiz (betiere, eztabaida taldeetako partaideen aburuz). Gertaera hau argitzeko, hainbat gurasok diote etxe berdineko seme-alaba gazteenek lotura handiagoa dutela gaztelaniarekin eta, hein handi batean horren ondorioz, gaitasun altuagoa eta gaztelaniarako joera handiagoa dutela.

*Euskarazko edukiak ez ditu hainbeste engantxatzen, gaztelaniazkoekin alderatuta; euskarazkoak ez ditu hainbeste betetzen, eta gustatzen zaiena ez dute euskaraz aurkitzen (adibidez, manga) *6TE**

Nire semeak azken bi urteetan joera gehiago gaztelaniara. Semeak "futbola erderaz da, euskaraz puta mierda bat da". Futbolzalea egin da eta nondik hartu dute eredu/lehentasun/gustu hori. Musikarekin berdin, orduak pasatzen ditu YouTuben musika ingelesez bilatzen eta ez dakit nondik atera den bere interes hau. Nondik ez dakit?

*Komentaristek maila informalean egiten dute gaztelaniaz? Guayagoa da? Hezitzaile batek dio erdaraz hitz egitea es más guay, beste pertsona bat egiten gaitu, gehiago kontsumitzen dugu, zirkulua gaztelaniaz hasten da eta zirkulua erraz ixten da *5TE**

Bigarren zertzelada gisa, UEH ikerketa proiektuan aztertutako eskoletako haur askok Latinoamerikako gaztelaniazko hitzak eta esapideak ikasi eta erabiltzen dituzte euren egunerokoan. Nazioarteko beste kultura batzuetarako atea ere ireki zaie honekin batera eta, adibidez, ohikoa da *manga*, *anime* eta mundu osoko edukia kontsumitzea (askotan jatorrizko hizkuntzan – esaterako, japonieraz). Haurrak nazioartera begira jarri ditu honek eta erakarpen horrek euren kontsumoa aldatu eta jokabidea moldatu du, geroz eta nazioarteko eduki gehiago ikusiz eta euren lehentasunak eta fokuak aldatuz.

*Adin garrantzitsuak dira eta hizkuntza bat deskubritzen dute eta gustura sentitzen dira. Oso abiadura azkarrean gertatzen ari da aldaketa eta gaztelaniaz hitz egitea gustatzen zaie. Gurasoei ez diete gaztelaniaz hitz egiten, baina anai-arreben artean. *3TE**

Lehen egoten zena ikusten zenuen, orain oso selektiboak gara eta kontsumitzen duzuna aukeratu eta ordaintzen duzu. Gainera,

euskaraz dagoena ez bada erakargarria txarto goaz. ETB3n dagoena ez da erakargarria beraientzat, euskaraz ez dago ezer ez berriztuta. Orain zubian Pirritx eta Porrotx egon da zubian eta kriston subidoia egon da, baina oso aislatua dago. Herri honetan urtean zehar ez dago ezer ez euskaraz umeentzako, ezta gabonetan ere. Merkatuak bideratzen gaitu egoera honetara, oso zaila da.

Aldatu da telebista ikusteko era. Lehen kanal gutxi zeuden eta telebista bakarra eta aukeratu beharra zegoen. Gaur egun ez duzu telebista kontsumitzen, kontsumitzen duzuna partekatua da edo inguruko prestigioaren erakarpenak hau edo bestea ikustera bideratzen zaitu.

*Asko nabaritzen da gaztelaniako hiztegia oso erraz menperatzen dutela eta euskaraz lehen ez zeuden hutsuneak daudela. Lehen etb1 ikusten genuen lepo eta gaur egun Clan, Boing,... erdarakadak lepo. Lehen aukeratzetik ez zegoen, gaur egun denetarik dago eta hor euskarak oso zaila dauka. ***3TE****

Elkarriketatu ditugun haur eta gazteen erreferente berriak, honenbestez, kanpotik datoz eta ez dute euskaraz hitz egiten. Bide batez, gizartea orokorrean nazioartean gertatzen eta kontsumitzen denari begira dago geroz eta gehiago eta, horrenbestez, ez da haur eta gazteek sortu duten joera bat. Edonola ere, hizkuntza hedatzaileak izan dira sortzaile famatu horien arrakastarako bitartekoak (lan honetan Ibai, Rubius, Xokas eta tankerakoak aipatu dituzte) eta elkarriketatuko haurrek beti esplizituki adierazten ez duten arren, hizkuntza hedatzaileen balioa indartzen da logika honetan. Haurrek, noski, logika hori ondo ulertzen dute eta euren hizkuntza jarrentzako baldintzatzaile bat izan daiteke hizkuntza-arrakasta lotura hori. Gainera, haur batek esan zuen moduan, "munduan jende gutxi dago esaten duena euskara kristona dela".

*Esaten diegu umeei ingelesez bideoak ikusteko ikas dezaten baina erreferente eta zaletasun guztiak ingelesez edo gaztelaniaz badituzte gero ze jarrera izango dituzte euskararekiko? Orain berdina egin behar dugu euskararekin. ***7TE****

*"Iritsi gara puntu batera youtuber euskaldunek gaztelaniaz egiten dutela, adibidez, Ibai hori (Llanos)" ***7H****

Gainera, kontsumo eredu honen bat-bateko agerpen hain indartsuak aztertutako herrietako eragile eta gurasoak erreakzionatzeko denbora gabe utzi dituela onartu ziguten eta, haien esanetan, kontsumo-ereduan esku-hartzea zaila da momentu honetan. Izan ere, telebista familian ikus zitekeen bezala, kultura-eredu berri honek mundu oso bat eskaintzen dio haurrari herriko edozein txokotan eta momentutan sartu ahal izateko.

Telebista gurasoak jartzen du, baina YouTube ez. Edo YouTubeko lehen bideoa gurasoek jarri dezakete, baina hortik aurrerakoak ez daude gurasoaren esku. Dena dela, badaude adin batzuk oraindik ere egokiak direla haurrekin lan egiteko eta aprobetxatu behar da.

Musika elkarrekin entzuten dugu eta beraiek reggaetoia aukeratzen dute eta guk euskarazkoa sartzerakoan piztu egiten dira eta hari horretatik tiraka gustuko gauza asko aurkitzen dituzte. Baina lanketa hori egin behar da.

Harremantzeko moduak aldatu dira, gaur egun mobilaren bestaldean dagoen horrekin jolasten dute. Beraientzako erakargarria den proiektu oro eduki beharko genuke euskaraz beraingana iritsi ahal izateko.

Euskarazko programak behar ditugu gazteak euskarara erakarriko ditugunak, pil-pilean ditugun gauzak euskarara erakartzeko. Gero asko aldatu dira gauzak (kontsumo-ereduak, programak,...) baina gutxienez hori eskaini.

Nahiz eta militantea izan ez duzu euskaraz kontsumitzeko aukerarik. Ume eta gazte batek zenbat eta zenbat ordu pasatu ditzaketen smartphonekin eta horietatik zenbat egoten diren gurasoekin batera eduki hori aztertu eta lanketa bat egitera.

*Ez da berdina 10-15 edo 15-18 ume eta gazteen bizimodua eta erreferentziak. Txikitatik hasi beharko ginateke elikatzen eta bidea prestatzen, nerabazarora heltzean ez badago ohiturarik zaila da. Tanta bat gara ozeanoan eta diskriminazio positiboa behar dugu. Errazena materiala gaztelaniaz edo ingelesez lortzea da, baina euskaraz lortu behar dira eta horrek sentsibilizazioa eta denbora behar du. ***3TE****

Kontsumitzen duten horretan, inofensiboak izan arren, askotan entzuten badute eta barneratu egiten dute eta esparru gehiagotan zabaltzen da.

- Konturatu gara umeek kulturarekiko duten harremana ez dela etxean nahiko genukeen presentzia (ez dute euskaraz kontsumitzen). Fisikoki guk ez geneukan euskarririk etxean, oso modu indibidualean kontsumitzen genuen, diluituta eta desfekzio apur bat sentitzen genuen. Autokritika egin dezakegu, presentzia bermatu behar dugu.

*- Baina guk ere ezin dugu mugatu, hainbeste aukera emanda! ***5TE****

Telebista ez da gaur egungo bizimodurako baliabide erakargarria eta testuinguru horretan egin dute agerraldia beste plataforma, eduki eta aukerek. Lan honetan elkarriketatu diren guraso askoren aburuz, euren seme-alaben kultura kontsumoaren berri izatea oso zaila da eta, konturatzerako, guztiz arrotzak zaizkien eduki eta hizkuntzak sartzen dira, baita euskararen militanteak diren etxeetara ere.

*Beste egunean pelikula bat jarri genuen euskaraz eta esan zion "ama! Pelikula super guay bat ikusi dugu eta euskaraz!". Orain "zurekin bat" deskubritu dugu elkarrekin eta polita da familian elkarrekin kontsumitzea. *7TE**

Telebistak baditu baldintza batzuk gaur egungo bizimodurako egokiak ez direnak. Eta dagoeneko ez dituzte ezta gaztelaniaz ikusten. Ez dakigu ezta zer dakigun gertatzen ari den.

Globalizazioa + digitalizazioa eta hizkuntza gutxituen bidegurutze horretan ez gara ezer ez. Gaur egun mugikorrean dago dena (kultura, lagunak,...) eta hor euskara dago?

*Baina ni txikia nintzenean Doraemon ikusten nuen, nire alaba zaharrenarekin Doraemon eta gazteenarekin ere Doraemon. Ez da ezer aldatu 20 urtetan! *2TE**

Globalizazio eta digitalizazioaren agertoki berri honetan, hizkuntza gutxituak bidegurutzean daude eta, honenbestez, euskara ere bai. Izan ere, merkatuaren eraldaketa honetan, erdarazko eskaintza asko handitu da, eta euskarazkoa, berriz, ez.

*Gure garaian askoz aberastasun gehiago geneukan, adin egokian harrapatu gintuen (Dragoi bola, Goenkale) eta gauza asko ikasi genituen. Telebista askoz aberatsagoa zen eta guk hori jaso genuen. Hauek eskolan euskara eta denbora librean kontsumoa gaztelaniaz, eta ondorioz, beraien euskara askoz pobreagoa dela. Espresio falta, lexikoa,... Dragoi Bolako euskara zuzena baina erakargarri! Goenkalerekin ikasi zituzten beste euskara batzuk, saltsa, komentarioak,... *4TE**

*Nik lehen zerbait eta asko euskaraz ikasten nuen eta orain nire umeek 0. % 90 gaztelaniaz eta % 10 ingelesez. Baina jartzen duzu ETB eta ikusten duzu Doraemon oraindik ere bi dimentsiotako marrazkiak direla eta zuzenean gaztelaniara jotzen dute. Nik hiru seme-alaba ditut eta lehenengoarekin dena euskaraz ikusten genuen (etb1, Pirritx eta Porrotx,...), bigarrenarekin gaztelaniaz gehiago eta hirugarrenak dena gaztelaniaz. Utzi ditugu eta guk erru pixkat dugu horretan ere. 10 urtetan egoera izugarri aldatu da. Ez dago deus itzulua euskarara (memeak, serieak, bideak, Netflix,...), pil pilean dago dena eta beraiek hor daude. *7TE**

*Orain kontsumitzen da dena gaztelaniaz eta ingelesez, lehen dena euskaraz kontsumitzen zuten (eta gure seme-alabek ere). Duela urte batzuk ere mugikorra eta jokuak ez zeuden, orain inpaktatzen du guregan *1TE**

Ikerketa honetan aztertutako talde guztiek erantzun duten moduan, Interneten aurkitu nahi dutena ez dago euskaraz eta EITBk eskaintzen duena ez da nahikoa. Izatez, ETB1 eta ETB3-k (azken hau Nafarroan ezin da ikusi) haur eta gazteentzat eskaintzen duten edukia kopuruan oso urria da eta 10-12 urtetik gorakoentzat ez da erakargarria, gainera. *Goazen* eta *Irabazi arte* haurrentzako telesailak azpimarratu genitzake, baina isolatutako ekimenak dira.

*Adibide txiki bat da, baina ikusi Goazen-ek zer lortzen duen: kanta pila bat ikasten, mezuak jasotzen,... baina hori elikatu behar da. 10-12 urterekin amaitzen da beraientzako eta hori da dagoen bakarra euskaraz. Astean egun bakarra dute euskaraz erakartzen dituen eta orain zain daude ETB-k emakume futbolarien seriea ateratzeko. Ama, noiz aterako dute? *3TE**

*Etb3 da Doraemon denbora guztian eta ez dago ezer gehiago. Baina ETB lotsagarria da eta ez du ezer egiten umeen euskalduntzean. Nik hautua egin nuen, dena euskaraz ikusteko erabakia hartu nuen eta gaur egun nire semeak gustuko gauzak bilatzen ditu, eta ez dauka aukerarik apenas euskaraz jarraitzeko. Zuzenean gaztelaniaz bilatzera jotzen du. Tik token ez dago ezer! *5TE**

UEH-n jasotako erantzunen argitara, adin-tarte eta eduki mota guztietako programak eskaini beharko lituzke ETBk (edo edozein plataformak), haur eta gazteen mundura hurbilduz. Guraso baten esanak ekarri, "nahiz eta militantea izan ez duzu euskaraz kontsumitzeko aukerarik". Azpimarragarria den fenomeno gisan, heldu batzuek gaineratu zuten haienezako erakargarriak diren bi produktu (hots, futbola eta aizkolaritza) lehen euskaraz ikusi zitezkeela eta, gaur egun, berriz, gaztelaniaz ikusten direla.

Adin batetik aurrera dena gaztelaniaz, ez dago ezer ez. Ni gogoratzen naiz txikia nintzenean dena zela etb1 (eta agian antena 3 pixka bat), kantitatea hain txikia izanda euskaraz ikustea errazagoa zen. Gaur egun, hainbeste aukera daude eta gehiena gaztelaniaz dago. Etxe batzuetan umeek dena gaztelaniaz ikusten dute, ulertzen ez duten arren.

*Adin batera arte badago eduki erakargarri eta egokia umeentzako, baina hortik aurrera dena gaztelaniaz. Lehen serieak zeuden, eskaintza ezberdina euskaraz,... eta horrek eragina du. *6TE**

*ETB inoiz baino gutxiago ikusten dugu, baina ikus-entzunezkoen kontsumoen inguruko hausnarketa egin behar dugu. Eta ETB ere mugitu beharra dago: albisteak 8etan jartzen dituzte euskaraz eta nork ikus ditzake euskaraz ordu horretan' *3TE**

*Nork egin ahal dio ETBri konpetentzia baliabide hauekin mundu honetan? Eta gainera Nafarroan ezin dugu ikusi ETB3 e? Baserrira basura da!! Eta guk, ba hori da beraien ikusiena, ba gora Klaudio Landa eta ikus dezatela! *4TE**

Esan bezala, udalerri euskaldunetako haurren kultura kontsumoak eraginak ditu hizkuntza-jarreretan eta hizkuntza hautuetan, edo hori jaso dugu behintzat guk erantzunetan. Adibide batzuk jartzeko, haurrek aitortu digute futboleko esapideak erdaraz esaten dituztela eta, hain zuzen ere, antzezlanetan futbola irudikatzean gaztelaniaz zabaldutako esaera eta baliabideak erabili zituzten. Horren harira, "guayagoak" dira telebista, ordenagailu eta mugikorrean ikusten diren hizkuntza eta esapideak. Euren hiztegi eta elkarrizketen ardatz bihurtu dira eta hori euren hitzetan, ikerketa honetan parte hartu duten helduek aitortuta eta guk behatuta baieztatu dezakegu.

*Futbolari dagokionez, euskaraz nahiko lukete baina beraien ustez ez luke inork ikusiko. Futbolen laburpen eta highlight-ak kontsumitzen dute, ez partidu osoak, erdaraz, eta horrek izugarrizko erakarpena dauka beraientzako. Aizkolaritzako finala GOL-en ematea erdaraz oso arraroa da. *3TE**

*Gaur egungo marrazki bizidunak dira duela 20 urteko berdinak eta nahiago dute gaztelaniaz ikustea YouTube eta tik tok nahi dutenean. Berdin FIFA jolasten eta gero hango gauzak ekartzen dituzte entrenamenduetara eta elkarrizketetara. *7TE**

Ikus-entzunezkoen, sare sozialen eta Interneteko edukiaren inguruan esandako hauek musikaren kasuan aplika daitezke hein batean. Izan ere, musikako eskaintza oparoa izan arren euskaraz, UEH-n aztertutako haurrek kontsumitzen duten musika gehiena gaztelaniaz (eta ingelesez) da).

4.4 HERRI PROFILAK

Metodologia atalean azaldu bezala, hautatu ziren 7 herriek ezaugarri ezberdinak zituzten, bai soziolinguistikoki, bai ekonomikoki, bai kulturalki, bai demografikoki, etab. Hala ere, eta ikerketa proiektu honen helburua herrien arteko konparazioa eta sailkapena ez dela gogoraraziz, herri hauen profil proposamen bat egin nahiko genuke, jasotako testigantzetatik ateratako ideietan oinarrituz. Horrelakoak lirateke aztertutako herrien hiru profilak:

A: Haurrentzako arnasguneak (Azpeitia, Dima)

- Haurrek euskararen erabilera oso handia dute
- Hizkuntzarekiko lotura estua dute, etxeko hizkuntza edozein izanda ere
- Gurasoen eta herriko eragileen kezkek ekimenak abian jartzera bideratu dute

B: Ohiko udalerri euskaldunak (Aramaio, Etxarri eta Ikaztegieta)

- Haurren euskararen erabilera altua da, batik bat ikasgelan
- Euskara hutsean egiten duten familiak geroz eta gutxiago dira eskolan
- Euskararen erabilera behera egiten ari da herrian, neurketek eta elkarriketatuek esana
- Herrian ez dago militantzia artikulaturik egoerari aurre egiteko

C: Udalerri euskaldun erasanak (Bera eta Bermeo)

- Gaztelaniaren erabilera nagusi da nabarmen haurren artean, baita ikasgela barruan ere
- Euskara hutsean egiten duten familiak geroz eta gutxiago dira eskolan
- Euskararen erabilera behera egiten ari da herrian
- Herrian ez dago militantzia artikulaturik egoerari aurre egiteko

Aurretik esan bezala, lagina mugatua izateak eta helburua UEMAko udalerrien diagnostiko jakin bat (haurren hizkuntza-erabilera eta jarrerak) izanda, aztertutako herrien profila modu sistematikoan egitea baztertu zen. Hala ere, proposamen honek ikerketa honetako egileen behin-behineko irakurketa bati erantzuten die eta interesgarria izan liteke lan-ildo honi jarraipena ematea.

4.5 AZTERTU DIREN HERRIETAN AZALDUTAKO FAKTOREEN KOKAPENA


Aurretik esan bezala, 148 faktore azaldu dira azterketa honetan guztira. Orain arte agertu diren maiztasunaren arabera azaldu ditugu, adibideak emanez eta faktore horiek testuinguruan kokatuz eta garatuz. 148 faktore horiek, dena den, elkarren artean lotuta azaltzen dira eta mapa kontzeptual moduko bat osatzea ahalbidetzen digu lotura horrek. Hori horrela, azpi-atal honetan eremuz eremu azaldu diren faktoreak kokatu eta euren artean dauden loturak zehaztuko ditugu.

Argiztapen metodologiko bat egitearren, azpi-atal hau emaitzen atalaren amaieran kokatu dugu ikerketa honetan udalerrietako diagnostiko-ariketa hori egitea lehenetsi eta azaldu diren faktoreen antolaketa edo kokapena orientabide-gisa erabili genuelako.

Eskolaren testuinguruan identifikatu diren hogeita hamarretik gorako faktoreak behean ageri diren bezala sailkatu ditugu. Izan ere, 7 faktore nagusi jaso dira eta horietatik sortzen diren beste hainbat adar. 7 faktore nagusi horiek honakoak dira:

- 1) Ikasgelatik kanpo gaztelaniaren erabilera handitzen da
- 2) Gaztelaniarako joera handiagoa duten ikasgelak daude eskola hauetan
- 3) Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea erronka da
- 4) Euskara sustatzeko moduen inguruan zalantzak daude
- eta 5) Gaur egun euskara hizkuntza nagusia da ikasgelan

13. grafikoa: Eskolako faktoreekin osatutako mapa kontzeptuala.




miro

Herri mailan kokatzen diren faktoreei dagokienez, 25 faktore inguru dira identifikatutakoak eta elkarren arteko lotura handia dutela ikusi daiteke beheko grafikoan. Sei dira faktore nagusiak eta faktore horietatik gehienetatik beste hainbat azpi-faktore agertzen dira:

- 1) Herri mailako kohesioa ahula denean horrek ondorioak ditu, baita hizkuntzen erabileran ere
 - 2) Herriko helduen ohiturek eragina dute herriko hizkuntza erabileran
 - 3) Eskualdeburuek eragina dute hizkuntza jarrera eta erabileran
 - 4) Euskararen erabilerak behera egin omen du azken urteetan
 - 5) Herriko euskalkiak hizkuntzen hierarkian parte hartzen du
- eta 6) Herri txiki batean hazteak hizkuntza-ohiturak zaintzeko aukera ematen die

14. grafikoa: Herrietako faktoreekin osatutako mapa kontzeptuala.




miro

Ikerketa honen parte izan diren herrietan egindako azterketetan jasotako faktore gehienak (50etik gora) Euskal Herriari osorik eragiten dioten faktoreak dira. Parte-hartzaileen erantzunek faktore horiek mailakatu eta modu logiko batean antolatzea ahalbidetu digute. Hau honela, Euskal Herri osoan euskararen erabilera eta hizkuntzarekiko atxikimenduaren inguruko irudi zehatz samar bat ateratzeko aukera izan dugu, mapa kontzeptualaren itxura eta zehaztasunari erreparatuta behintzat.

Bestalde, jarraian gehitu ditugu eremu honetako faktore-multzo nagusienak:

- 1) Euskararen biziberritzea bidegurutze batean dago
- 2) Herritarren aktibazioaren garrantzia
- 3) Gaztelaniak izugarrizko erakarpen eta presentzia du, baita udalerri euskaldunetan ere
- 4) Atzeritar jatorrikoen presentziak sortutako erronka soziolinguistikoak
- 5) Herritarren hizkuntza ohiturak kaltegarriak dira
- 6) Euskara erabiltzeko zailtasunak, baita udalerri euskaldunetan ere
- 7) Udalerri euskaldun batean bizitzearen onura eta ajeak
- 8) Haurtzaro eta nerabezaroa, garai berezia hizkuntza gutxitu batentzako

15. grafikoa: Euskal Herri osoan antzeman daitezkeen faktoreekin osatutako mapa kontzeptuala.




miro

Faktore orokorrak, ikus-entzunezkoengandik bereiztea erabaki genuenez gero, urriagoak izan dira kopuruz. Edonola ere,

- 1) Haurtzarora eta nerabezarora nortasunaren eraikuntzarako garai funtsezkoak direla ikusi da
- 2) Dinamika sozial eta kultural berriak dituen gizarte eredu bat garatzen ari da
- 3) Haur eta helduen arteko harremana, dinamikak eta gatazkak aintzat hartu behar dira
- 4) Elebazarrek eta politika elebazarrek ahalmen handia dute hizkuntza gutxituen bizi-indarrean eta hiztunen egunerokoan


16. grafikoa: Faktore orokorrekin osatutako mapa kontzeptuala.



Ikus-entzunezko eta teknologia berrien gaiari tratamendu berezia eman diogu goiko lerroetan, gizartean eta ikerketa honetako erantzunetan hartutako garrantziarengatik. Bertan, kultura kontsumoak haurren nortasunean duen eraginaz ohartu gara, baita honek hizkuntza jarrera eta hautuetan duen ondorioez. Hogeita bost faktoretik gora identifikatu dira eremu honetan, baina multzo nagusiak aipatzearen:

- 1) Nazioarteko ikus-entzunezko eta edukien kontsumoan ohitura berriak garatu dira
- 2) Kultura kontsumo berri honek udalerri euskaldunetako haurren eguneroko praktiketan berebiziko eragina izan du
- eta 3) euskarazko edukia zaharkitu eta murriztu da, beste hizkuntza batzuen botere eta eskaintzaren poderioz

17. grafikoa: Ikus entzunezkoekin lotutako faktoreekin osatutako mapa kontzeptuala.



5 ONDORIOAK

Analisiaren hustuketa egin ondoren, ikerketa proiektu honetako ondorio nagusiak partekatuko ditugu. Emaizten atalean zehaztu dugun bezala, UEH proiektua ikerketa kualitatiboa da eta aztertu diren herrietako haur eta helduen pertzepzioak jaso ditugu. Hainbat alorretan jasotako pertzepzioak ez datoz bat datu enpirikoek erakusten dutenarekin eta kontraesan edo alde hori nabarmentzen saiatu gara txosten osoan zehar, ahal zenean datu zehatzak emanaz. Hainbat adierazlek udalerrri euskaldunetako egoera soziolinguistikoa oro har mantentzen ari dela diote, baina ikerketa honetan jasotako faktore askok euskararen egoera modu ezkorrean ikusten dela erakusten digute. Hain zuzen ere, lan honen emaitza nagusietako bat elkarriketatutako haur eta helduek esaten eta uste dutena ezagutu dugula da.

Ondorioen aurkezpenarekin hasteko, ondorio horiek eremuz eremu jorratzen joango gara, aurreko azpi-ataletan egin den moduan. Oraingo honetan, ordea, hiru eremu gehitu dira, ikerketa proiektuak jorratu dituen elementu guztiak integratzeko asmoz: umeen ikuspegia, aztergaiari dagozkionak eta metodologiarekin lotutakoak.

Eskola

- Euskara hizkuntza nagusia da ikasgelan: talde ia guztietan euskara da gehien erabiltzen den hizkuntza, baita ikasgelako azpi-taldeetan ere.
- Ikasgelatik kanpo gaztelaniaren erabilera handitzen da: esparru informalean du indar handiagoa gaztelaniak eskolan baino, eguneroko espazio edo jardura ezberdinetan.
- Talde batzuek beste batzuek baino gaztelaniarako joera handiagoa dute eskola hauetan: orokorrean, gaztelaniaz gehiago nork egiten duen erraz identifikatu daiteke.
- Euskararen erabilera kezka iturri da irakasle, guraso eta herriko eragileentzat: aipatutako joera hauek kezka sortzen dute aztertutako herrietan.
- Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzeak erronka batzuk ditu: bereziki hizkuntzekin lotuz, euskara gutxien erabiltzen duten taldea jatorri ezberdinetako ikasleak direla adierazten dute elkarriketatuek.
- Euskara ikasleen artean sustatzeko modu egoki bat bilatu behar dela diote jasotako ahots ezberdinek: kezkak kezka, irtenbide bila dihardute hainbat

herritan eta horietako bat hizkuntza jarrerak modu erakargarrian lantzea da.

Herria

- Azken urteetan, euskararen erabilerak behera egin duela diote elkarrizketatuek
 - Eskolan gertatzen dena herrian gertatzen denaren isla da: herrian gaztelaniaren erabilera areagotu da eskolaren modu paraleloan.
 - Gaztelaniaren erabilera areagotzen duten arrazoiak, partaideen esanetan
 - Herriko espazio eta erabilera-eremu erdaldunak: kirolaren eta aisialdiaren testuinguruan gaztelaniak indar handiagoa du.
 - Helduen hizkuntza ohiturak eta inkoherentziak: gaztelaniaz egiteko joera handia dute herriko helduek eta horren jakitun dira haurrak.
- Eskualdeburuek eta eskualdeko dinamikek eragina dute hizkuntza jarrera eta erabileran: aztertutako herri gehienetan, denbora asko pasatzen dute herritarrek inguruko eskualdeburuetan eta bertako hizkuntza ohitura erdaldunagoek ondorioak dituzte aztertutako herritarrengan.
- Herri mailako kohesioa ahula denean, hiztun komunitatea banatuta dago: herriko eragile ezberdinen artean elkarlanik ez dagoen kasuetan, hizkuntzaren aldeko jarrera apalagoak eta ekimen gutxiago identifikatu dira proiektu honetan.

Euskal Herria

- Partaide batzuen ustez, euskararen biziberritzea bidegurutze batean dago: euskararen biziberritzerako momentu berezia eta erabakigarria dela esaten dute eta hainbat modutan jaso dugu hori.
 - Hizkuntza politikaren fruituak urriagoak dira eta onarpena baxuagoa da gizartearen baitan: hizkuntza politika modu gatazkatsuan ikusten da eta prozesu horren emaitzak nahikoa ez direla uste da.
 - Nafarroaren kasuan, Etxarri-Aranazko partaideak izan ziren EAE eta Nafarroako Foru Erkidegoaren artean dauden aldeak

aipatu zituztenak, Nafarroako ahulezia juridiko eta sozialaren harira.

- Herritarren aktibazioa momentu ahul batean dago: euskararen aldeko ekimenek kapital sozial mugatua dute oraintxe bertan.
- Euskaldunon hizkuntza eskubideak zapaltzen dira: partaide batzuek bigarren mailako herritar bezala definitzen dute euren burua, erdaldun elebakarren boterearekin alderatuta.
- Gaztelaniaren ahalmena handia da, baita udalerri euskaldunetan ere
 - Herritarren gehiengoak euskalduna izan arren, euren herrietako eremu ezberdinetan euskara erabiltzeko zailtasunak dituzte herritarrek
- Herritar helduen hizkuntza ohiturak erdaldunak dira: ezagutza datuak altuak eta euskararekiko jarrerak aldekoak izan arren, heldu askok eta askok gaztelaniaz egiten dute eguneroko bizitzan.
- Atzeritar jatorrikoen presentziak sortutako egoerak ondo kudeatu beharra dago euskararen biziberritze prozesura lerrokatzeko: hiltun profil geroz eta askotarikoagoak daude aztertutako herrietan eta euskararen integrazioa ez da lehen bezain erraza.
- Udalerrri euskaldun batean bizitzeak euskara normaltzat hartzen den zerbait izatea dakar, baita mugatzen duen zerbait izatea ere: erantzunen argitara, UEMAko herria izatearena aurretik datorren fenomeno bat da herritarrentzat, herritarrak ez du ardurarik egoera horretara iritsi eta euskaldun izaera hori mantentzeko. Era berean, elkarrizketatu batzuen ustez zenbait herritarrentzat 'euskaldun' etiketa hori mugatzailea da.
- Euskalduntasuna, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna definitu eta adostu gabeko fenomenoak dira oraindik ere eta hiruen arteko uztartzea egiteko premia dagoela adierazi dute elkarrizketatutako heldu batzuek.

Orokorrak

- Haurtzaroa eta nerabezaroa garai funtsezkoak dira nortasunaren eraikuntzarako: munduan duten tokia esploratzen ari omen dira haur eta nerabeak eta euskara muga bat izan daiteke haientzako.
- Gizarte eredu berri bat garatzen ari da, hizkuntza dinamika berriekin: globalizazioaren indartzea, pandemiaren agerpenarekin batera areagotu

dena, garrantzitsua izan da herri hauetako ezarpen soziolinguistikoak moldatzeko.

- Haur eta helduen arteko harremana, dinamikak eta gatazkak: helduek haurrengan duten eragina mugatua da eta, gainera, helduen arauekin errebelatzeko joera egon ohi da.

Ikus-entzunezkoak

- Nazioarteko ikus-entzunezko eta edukien kontsumoan eredu eta eduki berriak nagusitu dira: haur eta gazteak horri lotuta bizi dira, helduek ez dute gertatzen dena ulertzen eta hizkuntza hedatzaileek espazio guztia hartu dute.
- Kultura kontsumo berri honen ondorioz, udalerri euskaldunetako haurrak nazioartera begira bizi dira eta beraien bizitza-ikuspegia aldatu dute.
- Euskarazko edukia urria da kantitatean eta kalitatean eta ez da haurrengana iristen: arrakasta izan duten programa eta ekimen gutxi daude, ez dute lortzen haur eta nerabeek euskaraz jarraikortasunez kontsumitzea.

Haurren ahotsetatik jasotako ondorioak

Hainbatetan errepikatu den moduan, UEH ikerketak haurren hizkuntza ohitura eta jarreretan du oinarria. Goiko emaitza eta ondorioetan faktoreen atzeko ahotsak zehaztu ez direnez, hots, haur eta helduen hausnarketak bateratuta eman ditugunez, jarraian umeek zuzenean erakutsi digutenetik ateratako ondorioak partekatu dira. Beste era batera esanda, hurrek esan dutenetatik atera daitezkeen ondorioak partekatuko ditugu hurrengo puntuetan:

- Euskara hizkuntza gutxitua da eta bere alde ekimenak abian jarri behar dira, bere gaur egungo egoera hain kezagarria ez den arren
- Euskaraz egiten dute gehienbat euren egunerokoan eta askoren kasuan euskara da hizkuntza nagusia
- Euskara bultzatzeko modu ezberdinak daude eta jakitun dira gai arantzatsua dela: hurrek eurek zalantzan jartzen dute euskaraz egitea behartu edo bultzatu behar ote den

- Inguruko helduek hitz egiten dute gehien gaztelaniaz, izan eskolan izan herrian
- Ikasgeletan profil ezberdinetako ikasleak daude eta norberaren hizkuntza zein den identifikatuta dute: ondokoari 'identifikazio hizkuntza' horretan zuzentzen zaizkie
- Profil ezberdin horien barruan, etorkin jatorriko ikasleek gaztelaniaz sarri(ago) hitz egiten dute edota solaskideak sarriagotan zuzentzen zaizkie hizkuntza horretan
- Hizkuntza ohiturak asko erdalduntzen dira anai-arreba eta lagun helduagoak ondoko herrira joatean DBH egitera, bertan gaztelaniaz egiteko ohitura hartzen dute eta ohitura hori herrira ekarri
- Gaztelania hizkuntza erakargarria da haientzako, gustatzen zaizkien gauza asko jasotzen dituztelako gaztelaniaz (baita beste hizkuntza nagusi batzuetan ere, adib. ingelesa, japoniera eta italiera)
- Erabileraren poderioz, herri ezberdinetako gazte askok hizkera informala garatuagoa dute gaztelaniaz eta adierazi nahi dutena nahi duten moduan esateko gaztelaniara jotzen dute
- Mundua ezagutu nahi dute eta ingelesak eta gaztelaniak irekitzen dizkie mundurako ateak, ez euskarak
- Euskara hutsean hitz egiteak baino onarpen handiagoa du gaztelaniaz maiz hitz egiteak
- Gaztelaniaz hitz egitea euren inguruko hainbat fenomenoren ondorioa da eta saihestezintzat ikusten dute
- Hizkuntza ohiturak aldatzea zaila dela diote elkarriketatuek eta, kasu honetan, gaztelaniatik euskararako jauzia egin nahi duten baina lortzen ez den erronka bat da
- Helduek haurrengan duten botere eta harremana dela eta, gaztelania helduen aurka errebelatzeko tresna bat ere bada (euskaraz egiten duten gurasoen kasuan)

- Herriko euskalkia garrantzitsua da elkarrizketatuentzako, bai erabileran, bai nortasun aldetik

Haurren ahotsetatik jasotakoa laburbilduz eta ondorio zehatzagootara ekarriz, parte-hartu duten haurrak oso kontziente dira euskararekin eta hizkuntzekin gertatzen denaz. Euskararen erabilerari eta euskararekiko jarrerari eragiten dieten faktorea eta arrazoiak identifikatzeko gai dira eta horien inguruko iritziak dituzte. Euskaraz haietaz espero ez den bezainbeste hitz egiten ez badute, hori indar handiko eraginengatik izan ohi da, esaterako, helduen eragina, beraien prestigioa talde ezberdinetan edo ikus-entzunezkoen erakarpena. Hori bai, euren esanetan, haurrak ez dira euskararen egoera gutxituaren erantzule eta ahal dutena egiten dutela gaineratzen dute. Bukatzeko, gogoratu nahi dugu helduen irakurketa ezkorrekin konparatuta, haurren ikuspegia bat datorrela ikerketa ezberdinek adierazten dutenarekin, hots, egoera zaurgarrian egon arren euskara hor mantentzen ari dela, gora-beherekin.

UEMAko haur eta helduen hizkuntza-jarrerak eta ohiturak

- Faktore gehienak haurren eskumen eta fokutik kanpo daude: haurren inguruko ikerketa da hau, baina identifikatutako faktore gehienek zeharka eragiten diete hurrei.
- Faktoreak eremu ezberdinetan kokatzen dira, eskolatik nazioartera: faktore asko elkarrekin konektatuta daude, jatorria edo muina elkarrengandik urrun egon arren.
- Identifikatu diruen faktoreak identifikatuz, udalerri euskaldun hauetako diagnostikoa osatzen lagundu da: udalerri euskaldunetako egoera oso aldakorra eta askotarikoa dela jaso da, baina herri hauetan gertatzen dena zehaztasun handiagoarekin ezagutzea ahalbidetu dezake ikerketa honek.
- Eskola, eskola-komunitate eta herri guztietan ez dira emaitza berdinak jaso, ezta gertaera eta joera berak identifikatu ere. Zerrendatu diren faktoreak zazpi herrietan jaso eta bateratu dira, baina horrek ez du esan nahi aztertu diren herrietan egoera eta bilakaera berdina denik. Bilakaera hori modu indibidualago batean azaltzeko saiakera egin dugu 4.2. eta 4.4. azpi-ataletan, hain zuzen ere.
- Udalerri euskaldunetako eragileek haurrek euskaratik gaztelaniarako jauzia geroz eta adin goiztiarragoetan egiten dutela ohartarazi dute (9-10 urterekin).

Horren harira, ikerketa honetan ezin izan dugu adin zehatza zein den ebatzi. Ikusi dugu adin tarte horretan ohitura eta iritzi aldaketak gertatzen hasten direla, baina beste ikerketa zabalago bat beharko litzateke hori zehazteko, izan ere, herri bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta horrek ere eragina du.

- Esku-hartzea konplexua, diziplina artekoa eta foku-askotarikoa izan beharko da: faktore horien heterogenotasunaren harira, euskararen erabileran eragiten duten faktoreak ez dira esparru batean kontzentratzen. Ondorioz, esku-hartzeak ere hainbat modu eta norabidetan erantzun beharko dio egoerari.

Metodologia

- Haurrak izan dira ikerketaren oinarria eta landa lana eurengan oinarritu da; hala ere, bereziki helduen testigantzekin osatu da analisiaren hustuketa: burututako landa lanak herrien ezagutza sakona izatea ahalbidetu du, baina erabilitako aipu ia guztiak helduenak izan dira.
- Haurrengan zentratua eta parte hartzailea egin nahi izan arren, haurrentzako metodoek ez zuten beti lortu euren engaiamendua: zein berrikuntza egin zitezkeen metodoetan horretarako?
 - Haurrekin ikerketa egiteko denbora gehiago behar da gaian kokatu, hausnarketa eskatu eta konfiantzako giroa eraikitzeko. Behin hori lortuta, haurren aipu esanguratsuak lortzea errazagoa litzateke, haur guztien parte-hartze aktiboago baten bitartez guztien ahotsak bilduz.
- 7 dira kualitatiboki aztertu diren eskolak eta horrek esan nahi du jasotako emaitzak ezin direla UEMA edo Euskal Herrira orokortu.
 - Hala ere, emaitza hauek hainbat joera orokor erakusten dituzte
 - Agertutako faktoreek UEMako herri guztietako joera erakusten ote duten aztertzea interesgarria litzateke, adibidez, ikerketa hau ikastetxeetako euskararen neurketan aztertutako 35 eskola-komunitateetan hedatuz.
- Lan kualitatiboa denez, zaila da jakiten identifikatutako faktoreek nolako pisua duten herri bakoitzean: inpaktu hori neurtzeko azterketa kuantitatibo osagarriak beharrezkoak dira.

- Era berean, identifikatu diren faktore askori zerien ezkortasuna eta datu enpirikoek erakusten dutenaren arteko aldea hobeto ezagutzeko saiakera egitea interesgarria izan daiteke.

6 ETORKIZUNERA BEGIRA

Emaitzen hustuketan zazpi herritan aztertutako eskola-komunitate horien irudi zehatz bat eskaintzeko moduan izan gara. Ondorioekin, berriz, egoera horren ideia nagusienak zeintzuk diren zehaztu da.

Jarraian, ikerketa honetan ikusitakoarekin nondik nora jo daitekeen proposatuko dugu, horretarako bi bide erakutsiz: alde batetik, esku-hartzeetarako jarraitu daitezkeen lan-ildoan eta, bestetik, identifikatu diren praktika on, indargune eta etorkizunerako aukerak partekatuz.

6.1 ESKU-HARTZERAKO LAN-ILDOAK

Ondorioetatik abiatuta, esku-hartzerako lan-ildo batzuk proposatu dira. 148 faktore identifikatu direnez, beste horrenbeste neurri edo estrategia finkatu zitezkeen. Hala ere, modu orokorragoan pentsatu dira proposamen horiek.

Eskola

- Eskola arnaguneko arnagunea izan behar da: eskolaren testuinguruan, esparru informalean barne, haurrak baldintza egokiak behar ditu euskarazko gaitasunak garatu eta euskara hutsean egiteko.
- Ahozkotasuna eta euskararekiko atxikimendua erdigunean duen ikuspegia edo metodologia garatu behar da.
- Ikasle profil berriak kulturartekotasunean integratu behar dira, euskara ardatz delarik: Zaldibiako proiektua adibide bat izan daiteke erronka honetan¹⁰.
- Eskola-komunitateko heldu guztiek euskararen erabilera bermatu beharko lukete, langile eta guraso euskaldunek uneoro erabiliz eta ez dakitenek gaztelaniarako jauzia saihestuz (elebidun hartzaileak lehenetsiz, alegia).

¹⁰ Ikus <https://lardizabal.eus/eu/etiketa/euskara-eta-kulturartekotasuna> informazio gehiagorako

Herria

- Eskualdeetako dinamikak ulertu, eragile ezberdinen artean elkarlanean plangintza bat diseinatu eta bi norabideetan eragin behar da:
 - Udalerri euskaldunenak babestu behar dira zentzu guztietan, bizimodua bertan egitea hobetsiz eta euskararen erabilera bermatuz (adib. ELE azterketak eginez).
 - Eskualdeburuak euskaldundu edo, gutxienez, euskara erabiltzeko sareak eta eremuak bermatu behar dira.
- Helduak haurren eredu onak izan behar dira: jaso diren gaztelaniarekiko joera horiek aldatu behar dira, euskaraz bizitzeko eta haurrek apustu hori barneratzeko xedez.
- Herrietako ikastetxe eta eragileen arteko harremana indartu behar da: herriko kohesioak elkarbizitzari eta euskararen erabilerari mesede egiten diola ikusi da, bada, helburu partekatu batzuen lorpenerako elkarlana bultzatu behar da eta zeharlerrotasunez landu.
- Herriko eragile erdaldunak identifikatu eta euskarara erakarri behar dira: euskaraz ez dakitenean, euskarazko solasaldiak ahalbidetzea lortu behar da, "erdararen militante" horien ahalmena gutxitu eta euskararen erabilera areagotzeko.

Euskal Herria

- Euskararen biziberritzearen aldeko babesa hauspotu behar da, horretarako baldintza nahikoak jarritz: gaur egun euskararen biziberritze prozesuak duen motelaldiak ilusio eta protagonista berriak behar ditu.
- Atzeritar jatorrikoen integrazioa lehentasun bezala markatu behar da: Euskal Herrikan kanpoko jatorria duten herritarrek gaztelanian hartzen dute babes eta horrek zerikusi handia du herrian osatzen diren sare sozialen ezaugarriekin (adib. Auzoko¹¹ moduko proiektuekin).

¹¹ Egitasmo hau ezagutzeko, ikus <https://aniztasuna.topagunea.eus/egitasmoak/auzoko/> esteka.

- Hizkuntza ohiturak euskalduntzeko dinamikak indartu behar dira, helduen artean batik bat: erabilera datuak, orokorrean, baxuagoak dira helduengan eta horietan jarri behar da fokua.
- Momentu oro euskara erabiltzeko erraztasunak eman behar dira: euskararen erabilera jaitsi egiten da eskolatik kanpo eta horri buelta emateko, euskarazko aisialdia eta salerosketetan euskaraz egitea bermatu behar dira, besteak beste.
- Ikerketa honetan jaso diren erantzunen harira, euskararen egoerak sortu dezakeen neke eta ezkortasunaren aurrean egoera soziolinguistikoa modu zehatzagoan ezagutzeko eskura dauden datu soziolinguistikoak komunikatu behar dira herritarren artean. Hartara, ikuspegi negatibo hori zalantzan jartzeko argudio eta errealitateak izango ditu herritarrak eskura, bizi duen egoera berregituratzen lagunduz.

Orokorrak

- Haurren errealitatera hurbildu behar da, ahotsa emanek eta ulertuz: orain arteko joera haurrei buruz hitz egin eta gaia bertikalki (goitik behera) ikertzea izan da, baina garrantzitsua da euren ikuspegia zuzenean jaso eta kontuan hartzea.
- Datozen aldaketa makroak ulertu eta aurre hartu behar zaie: mundua azkar eraldatzen ari da eta ia aurreikusi ezin diren ondorioak izaten ditu gure egunerokoan. Hori ahal den heinean saihesteko, funtsezkoa da prebentzio lanketa sakona egitea.

Ikus entzunezkoak

- Haurren gustuak ezagutu eta euskarazko eskaintza egokia, aberatsa eta nahikoa eskaini behar zaie: gaur egungo joera berrienak momentuan bertan jasotzen ditu haurrak, ez, ordea, helduek eta agintaritzak postuetan dagoenak. Eskaintza berri arrakastatsu hori modu goiztiarrean identifikatu behar da, ondoren euskarazko edukia bermatzeko.
- Euskarazko plataformetan apustua egin behar da: abian jarri diren programa eta ekimenei jarraipena eman behar zaie eta haur eta

nerabeentzako erakargarriak izango diren eskaintza-sare zabal baten barruan txertatu.

4.4. azpi-atalean aztertutako herrien nolabaiteko proposamena egin da, testuinguru soziolinguistiko eta bilakaera eta fenomeno ezberdinak dituztela adieraziz. Etorkizunean UEMako herrien profilean sakonduko balitz, proposatutako esku-hartzeak ere horren arabera findu ahalko litezke.

6.2 INDARGUNEAK, PRAKTIKA ONAK ETA ETORKIZUNERAKO AUKERAK

Emaitzen eta ondorioen atalean, identifikatu diren faktoreen berri eman dugu. Irakurlea ohartuko zenez, azterketa ezberdinetan udalerrien egoeraren inguruko irakurketa nahiko ezkorra gailendu da. Hala ere, UEH ikerketa proiektuaren zeharkako helburuetako bat etorkizunera begirako pauso horietan jasotako emaitzetan oinarritutako alde baikorrak partekatzea ere bada. Izan ere, orain arte aipatu diren faktoreen artean aztertu diren udalerrietako indargune eta praktika onen zerrenda bat osatzeko eta zabaltzeko moduan ere bagaude.

Oraingo honetan ere, eremuka banatuko ditugu indargune eta praktika on bezala etiketatu ditugun faktore horiek:

Eskola

- Euskararen erabilerari garrantzi handia ematen zaio.
- Hainbat eskolek ekimenak jarri dituzte abian euskararen erabilera bultzatzeko, batzuetan komunitatearekin elkarlanean.
- Kezkak kezka, aztertutako udalerrietan euskara ikasgelako hizkuntza nagusia da eta, neurri handi batean, baita eskolatik kanpoko euren arteko harremanetan ere.
- Irakasleek poza adierazten dute eskola hauetan lanean hastean, udalerri euskaldun hauetan ikasleek euskara euren kabuz erabiltzen dutelako.
- Atzeritar jatorriko ikasleen hizkuntza-harrerari garrantzi handia ematen zaio, kohesio, integrazio eta elkarbizitzaren ikuspegitik.

- Etxean mintzo diren hizkuntzak euskara edo gaztelania ez diren hizkuntzak direnean, kontuan hartu, nortasun anitz baten barruan txertatu eta harrotasuna ematen zaiela jaso dugu.

Herria

- Herri txiki batean hazteak hizkuntza ohiturak zaintzeko aukera ematen die: gaztelaniaren erabilera areagotu den arren, tamaina txiki edo ertaineko udalerri euskaldunak izateak euskararen transmisioa eta mantentzea errazten ditu.
- Herri batzuetako eragile ezberdinen artean koordinazio eta elkarlana dago euskara bultzatzeko.
- Herriko euskalkiak garrantzia du euren nortasunerako eta euskara batua baliagarria zaie behar dutenean.
- Haurrek hizkuntzari eusteko gaitasuna dute inguruko helduek gaztelaniaz egiten dutenean.

Euskal Herria

- Etorkin jatorriko herritar batzuk erraz hurbiltzen dira euskarara eta denbora-tarte txikian ikasten dute euskara.
- Euskaraz bizi diren familia eta kuadrilla ugari daude.
- Guraso batzuek, erdaldunak askotan, esfortzu handia egiten dute euskara ahal duten moduan bultzatzeko.
- Udalerri euskaldunetatik kanpora joatean, gun eusaldunetako euskaldunekin euskaraz egitea ahalbidetzen du "euskaldun herri batekoa" izatearen etiketak
- Euskaraz nabarmen hobeto moldatzen diren haurrak ere badaude gaur egun, hizkuntzaren bizi-indarraren erakusle bezala.
- Belaunaldi zaharragoek euren bizitzako momentu batean euskaratik gaztelaniarako eta berriro euskarako itzulera bidea egin duten bezala, gaur egungo belaunaldi gazteenek ere berdina egin dezakete.
- Helduen ohituretan koherentzia txertatuz haurren ohiturak indartuko lirateke, euskararen mesedetan.

Ikus-entzunezkoak

- Ikus-entzunezkoek euskararengan duten eraginaren inguruko eztabaidek eta abian jarri beharreko esku-hartzeek garrantzia hartu dute, gizarte eta erakunde mailan.
- *Goazen* eta *Irabazi arte* bezalako ekimenek arrakasta izan dute.
- Adin-tarte eta eduki-mota guztietarako eskaintza izango bagenu euskaraz, hurrek euskaraz kontsumituko lukete, dagoeneko ahal dutena ikusten eta entzuten dutelako eta nahi hori adierazi dutelako.

Aztergaiari dagokionez

- Udalerrri euskaldunetako egoera soziolinguistikoak garrantzi handia hartu du eta lehentasunezko esparru gisa ikusten da.
- Identifikatu diren faktore horiek udalerrri hauetan esku-hartzea modu zehatzagoan egitea ahalbidetuko dute.
- Jasotako 148 faktore horietatik gehienak ezkorrak dira, baina azkenengo datuek, UEMA eta Euskal Herria kontuan hartuta, egoera mantentzen edota hobetzen dela erakusten dute.
- Garai zailak bizi ditugu (pandemia, askotariko krisiak) eta aztertutako herrietan eusten ari da euskara, herrien artean aldeak dauden arren.
- Hurrek diagnostiko baikorragoa eta helduek ezkorragoa egin dute; datuak helduek diotena gezurtatzen dute, hau da, euskararen erabilera mantentzen ari dela udalerrri euskaldunetan, eta hurrek ez dutela gaztelaniarako joera geroz eta goiztiarragorik egiten. Are gehiago, txosten honen hasieran haurren euskara erabileran 5 puntuko igoera gertatu dela aipatu dugu 2017 eta 2021 neurketen artean.
- Honenbestez, udalerrri euskaldunetako egoera, edo behintzat aztertu diren eskola-komunitateetako, ez da erantzunetan jaso duguna bezain kezkarria. Gabeziak, arriskuak eta erronkak identifikatu diren arren, indargune eta praktika on ugari identifikatu dira eta beste ikerketa batzuetako datu enpirikoek egoera soziolinguistiko orokorra mantentzen ari dela diote.

BIBLIOGRAFIA

Amorrortu, Esti; Ortega, Ane; Idiazabal, Itziar eta Barreña, Andoni. (2009). Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

Anderson, Benedict R. O. G. (1991). *Imagined communities: Reflections on the origin and spread of nationalism*. London: Verso.

Banister, Emma N., eta Booth, Gayle J. (2005). "Exploring innovative methodologies for child-centric consumer research", *Qualitative Market Research: An International Journal*; 8(2) zenbakia, 157-175 or.

Castells, Miguel (2003). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura: El poder de la identidad*, Madrid: Alianza, 2003 (2. ed.).

Castro, Ana; Ezquerro, Pilar eta Argos, Javier (2016). "Procesos de escucha y participación de los niños en el marco de la educación infantil: Una revisión de la investigación". *Educación XX1*, 19(2) zenbakia, 105-126 or., doi: 10.5944/educXX1.14271

Costa, James (2014). "Must we save the language? Children's discourse on language and community in Provençal and Scottish language revitalisation movements", in P. K. Austin eta J. Sallabank (edk.), *Endangered Languages: Beliefs and Ideologies in Language Documentation and Revitalisation*, 199. zenbakia, Oxford: Oxford University Press / British Academy, 195-214 or.

Docherty, Sharron eta Sandelowski, Margarete (1999). "Focus on qualitative methods: Interviewing children", *Research in nursing & health*, 22(2), 177-185 or.

Eusko Jaurlaritza (2016). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa Euskararen eremu osoa*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. Helbidea: https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_291/opt_1/ti_inkesta-soziolinguistikoa/temas.html [Azken kontsulta: 2022/11/16]

EUSTAT (2021). Udal Informazioa. Helbidea: https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/info_territorial_e.asp [Azken kontsulta: 2022/11/16]

Hernández, Jone Miren; Iñarra, Maialen; Altuna, Olatz; Beitia, Iñigo; Ozaita, Josu eta Santamaria, Ainara (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia*, Andoain: Soziolinguistika Klusterra. Helbidea: https://soziolinguistika.eus/wp-content/uploads/2021/03/gazteak_euskararen_eszenatokian_txostena2.pdf [Azken kontsulta: 2022/04/07]

Hirschfeld, Lawrence. A. (2002). "Why don't anthropologists like children?", *American Anthropologist*, 104. zenbakia, 611-627 or.

Iurrebaso, Iñaki (2019). "Hego Euskal Herriko arnaguneak zenbatzen: arnaguneen operatibizazioaren inguruko ekarpena", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 110. zenbakia, 115-126 or.

Kusters, Annelies eta De Meulder, Maartjes (2019). "Language Portraits: Investigating Embodied Multilingual and Multimodal Repertoires", *Forum: Qualitative Social Research*, 20(3) zenbakia, 10. artikulua.

Lau, Sunny M.C. (2016) "Language, Identity, and Emotionality: Exploring the Potential of Language Portraits in Preparing Teachers for Diverse Learners", *The New Educator*, 12:2, 147-170, DOI: 10.1080/1547688X.2015.1062583

McCarty, Teresa L. (2015). "Ethnography in language planning and policy research", in Hult, F.M eta Johnson, D.C. (edk.) *Research methods in language policy and planning: a practical guide*, 81-93. Oxford: Erresuma Batua.

Melo-Pfeifer, Silvia (2015) "Multilingual awareness and heritage language education: children's multimodal representations of their multilingualism", *Language Awareness*, 24:3 zenbakia, 197-215, DOI: 10.1080/09658416.2015.1072208

Melucci, Antonio (1999). *Acción colectiva, vida cotidiana y democracia*, Ciudad de México: Centro de Estudios Sociológicos.

Morrow, Virginia (2001). "Using qualitative methods to elicit young people's perspectives on their environments: some ideas for community health initiatives", *Health education research*, 16(3) zenbakia, 255-268 or.

Nafarroako Estatistika Institutua (2021). Estadísticas. Helbidea: <https://nastat.navarra.es/es/home1/> [Azken kontsulta: 2022/11/16]

Nekvapil, Jiri (2003). *Language biographies and the analysis of language situations: On the life of the German community in the Czech Republic*, Amsterdam: De Gruyter Mouton.

Ortega, Ane (2017). "Gazteen hiztun-profil berriak eta ideologia berriak", In Goirigolzarri, J., Landabidea, X. and Manterola, I. (edk.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: UEU, 79-100 or.

Silverstein, Michael (1998). "Contemporary transformations of local linguistic communities", *Annual Review of Anthropology*, 27(1) zenbakia, 401-426 or.

Soares, Camila T.; Duarte, Joana eta Günther-van der Meij, Mirjam (2020). "'Red is the colour of the heart': making young children's multilingualism visible through language portraits", *Language and Education*, 22-41 or. DOI: 10.1080/09500782.2020.1833911

Soziolinguistika Klusterra (2022). Hizkuntzaren erabileraren kale neurketa. Helbidea: <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/> [Azken kontsulta: 2022/11/16]

Soziolinguistika Klusterra (2021a). HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE NEURKETA UEMAko udalerririk eta Tolosaldea, 2021. Helbidea: <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-uemako-udalerririk-eta-tolosaldea-2021/> [Azken kontsulta: 2022/11/16]

Soziolinguistika Klusterra (2021b). HIZKUNTZEN ERABILERAREN NEURKETAK IKASTETXEETAN. UEMAko udalerriak, 2020-2021.

Soziolinguistika Klusterra (2017). Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa UEMAko udalerriak eta Tolosaldea, 2017. Helbidea:

<https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-uemako-udalerriak-eta-tolosaldea-2017/> [Azken kontsulta: 2022/11/16]

UEMA (2022). Ikus-entzunezkoen kontsumoa udalerri euskaldunetan. Emaiza orokorrak.

UEMA (d.g.). Udalak. Helbidea: <https://www.uma.eus/udalerriak/> [Azken kontsulta: 2022/10/21]

ERANSKINAK

A. Ikasleen txostenak

UEH ikerketa: udalerri euskaldunetako haurrak eta euskara



Hasi aurretik bete datu hauek, mesedez:

Izena:

Abizena:

Adina eta maila:

Eskola:

Herria:

Hizkuntza ibilbidea

Nire izena da etaurte ditut. Denbora librean

..... egitea gustatzen

zait.



Hauk dira hitz egiten ditudan hizkuntzak:

eta hauk ulertzen ditudanak:



Etxean hitz egiten dut/ditut.

Norekin hitz egiten dut hizkuntza

bakoitza?



Nire etxeak jaio ziren herri edo herrialdeak hauek dira:

.....

Nire aiton-amonen jaioterria/ak hau(ek) da/dira.....

.....

eta hitz egiten dute.



Eskolako, akademiako, musika eskolako... irakasleekin hitz egiten dut:

.....

Kiroletako monitoreekin

..... hitz egiten dut/ditut.



Eskolan nire gelako lagunekin hitz egiten dut/ ditut.

Nire denbora librean, aisialdian, lagunekin hitz egiten
dut/ditut.



Etxean telebistan programak hizkuntza honetan ikusten ditut

.....

.....



Nire gustuko musika hizkuntzan entzuten
dut.



Mugikorrarekin eta ordenagailuan nagoenean, hizkuntza honetan/hauetan
..... gauza hauek ikusten ditut
.....



Nire herrian hizkuntza hauek entzuten
ditut:.....

toki hauetan:

TALDEAN EGITEKO

1. Zein egoeretan erabiltzen ditugu hizkuntza gehiago: etxean, eskolan edo denbora librean?

.....

.....

.....


2. Ezagutzen dituzun hizkuntza guztiak erabiltzen dituzu egunerokoan?

.....



.....

3. Non eta norekin erabiltzen duzu hizkuntza bakoitza?



.....

.....

3.-Zein hizkuntza entzuten ditugu hitz egiten kaletik, eskolako irteera-sarreretan, dendetan, ...?

.....

.....

.....

.....



1. **Pentsatu.** Zenbat hizkuntza dakizkizu?



2. **Marratzu** ezazu zure burua (hurrengo orrian duzu txantiloia).




3. Saia zaitez hitz egiten dituzun **hizkuntzak marratzu** duzun gorputz eta buruan kokatzen.



4. **Prest?** Erabili nahi dituzun koloreak!



1. AUKERA



2. AUKERA

Egin ezazu nahi bezala zure gorputzaren marrazkia orri honetan. Ondoren, saia zaitez hitz egiten dituzun hizkuntzak marraztu duzun gorputz eta buruan kokatzen.

B. Talde eztabaidak

Galdera orokorrak


1. Ikerketak erakutsi du UEMako udalerrietako haurrek geroz eta goizago egiten dutela gaztelaniarako aldaketa. Zer deritzozue? Nola ikusten duzue egoera?
2. Haurrek diote batzuetan helduek gaztelaniaz hitz egiteko ohitura dutela haien artean nahiz eta euskaldunak izan. Zuen ustez egoera horretan gurasoek ardurarik dute seme-alabek euskaraz egin dezaten? Zer nola kudeatzen duzue taldean euskaraz ez dakien norbait?
3. Gaztelania edo beste hizkuntza batzuk dituzten haur edo gazteek zein eragin dute herriko hizkuntza ohituretan?
4. UEMako udalerrietako herritarren eta familien profila aldatzen ari da, geroz eta gutxiago dira etxean euskaraz egiten duten familiak (nahiz eta batzuetan biak euskaldunak izan). Nola ikusten duzue aldaketa hau?
5. Sare sozialen eta ikus entzunezkoen kontsumoan 10-14 urte inguruko haurren intereserako ezer gutxi dago eta gehiena gaztelaniaz (eta ingelesez) kontsumitzen dute. Zuen etxean hori nabaritzen duzue? Zuen ustez, zerbait egin daiteke esparru honetan?
6. Zuen herria beste herri X honengandik hurbil dago eta bertan egiten (edo egingo) dute bizitzaren parte handi bat ikasleek. Askoz eremu erdaldunagoa izanda, zer pentsatzen duzue horretaz? Uste duzue eragina izango duela haurren hizkuntza ohituretan?

Horretaz gain, herri bakoitzak galdera espezifikoak zituen, hurrekin egindako lanketetatik abiatuta.


C. ERRETRATUEN ADIBIDEAK



D. HERRIKO TXOKOEN AURKEZPENA



E. HERRIKO HIZKUNTZA PAISAIAREN ADIBIDEAK



F. IDENTIFIKATUTAKO FAKTOREEN ZERRENDIA

Eskolako faktoreak (33)

- Ikasgelatik kanpo gaztelaniaren erabilera handitzen da (1)
 - Gurasoek, eskola giroan ere, gaztelaniaz egiten dute (2)
 - Irakasle eta begirale batzuek gaztelaniaz egiten dute euren artean eta haurrekin (3)
 - Lehen hizkuntza edota ohiko hizkuntza gaztelania duten familiak hazten ari dira (4)
- Gaztelaniarako joera handiagoa duten ikasgelak daude eskola hauetan (5)
 - Gaztelaniaz 'hainbeste' egitearena berria da eskola batzuetan (6)
 - Eskolan gertatzen dena herrian gertatzen denaren isla da (7)
 - Norberaren etxeko hizkuntza, ohiko hizkuntza eta erraztasun handiagoko hizkuntza euskara ez duten ikasleak daude (8)
 - Profil ezberdinen osaketa eta dinamikak: Kaletarrak vs baserritarrak vs etorri berriak (9)
 - Noiz egiten da gaztelaniaz?
 - Momentu jakin batzuetan (10)
 - Haserretzerakoan eta hitz zatarrak esaterakoan gaztelaniaz (11)
 - Gaztelaniaz hastean gaztelaniaz jarraitu eta erabilera areagotu (12)
 - Modu informalean hitz egin eta jolasterakoan (13)
 - Talde jakin batzuetan (14)
- Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea erronka da (15)
 - Atzerritar jatorriko ikasleekin gaztelaniaren erabilera handiagoa da, baina ez da zertan hauen ekimenez izan behar (16)
 - Etxean mintzo diren hizkuntzak euskara edo gaztelania ez diren hizkuntzak direnean, kontuan hartu, nortasun anitz baten barruan txertatu eta harrotasuna ematen zaie (17)
 - Eskola segregatua izateak euskararen gaia beste buruhauste bat gehiago bilakatzen du eta ez dago baliabiderik euskara bultzatzeko, eguneroko erronken garrantzia ikusita (18)
- Klasekideen hizkuntzak erraz identifikatzen dituzte (19)
 - Taldekide liderrek eragina dute multzo ezberdinetako hizkuntza hautuetan (20)
- Euskararen erabilera erronka edo kezka iturri da (21)
 - Hainbat eskolek ekimenak jarri dituzte abian euskararen erabilera bultzatzeko (22)
 - Ahozotasuna lantzeko beharra dago, erregistro ezberdinetan gaitasun nahikoa eta baliabideak izan ditzaten (23)

- Euskararen ikaskuntza eta erabilera bermatzera ez da heltzen kasu batzuetan (24)
- Euskara inposatu vs aukera ezberdinetatik euskara hautatzera bideratu (25)
 - Batzuetan karga bat egiten zaie eta kontrako erreakzioak sortzen ditu (26)
 - "Hautu askea da eta ez da ezer egin behar" (27)
 - Balio epaiketak egiten dira hizkuntzarekin (28)
- Oraindik eta oraingo euskara hizkuntza nagusia da ikasgelan (29)
 - Euskara identifikazio hizkuntza (30)
 - Kontzientziatutako taldeak dira orokorrean (31)
 - Eskolak komunitate osoarekin lantzen du euskara erdigunean egotea (32)
 - Irakasleek poza adierazten dute udalerrri euskaldun batera lanera iristean, errazagoa delako euren lana eta ez dutelako euskaraz hitz egiteko eskatzen (33)

Herriko faktoreak (25)

- Euskararen erabilerak behera egin du azken urteetan (1)
 - Eskolan gertatzen dena herrian gertatzen denaren isla da (2)
 - Herrian aldaketa bortitz azkarak gertatu dira, bai euskararen erabileran, bai herritarren profilean, bai alor sozioekonomikoan (3)
 - Herrian espazio erdaldun markatuak daude, baita gaztelaniarako joera handiagoa duten ekintzak/jarduerak/ekimenak ere (4)
 - Aisialdiko begirale asko ez dira euskaldunak edo jarduerak gaztelaniaz egiten dituzte (5)
 - Aisialdirako eskaintza murrizta da euskaraz (6)
 - merkataritza guneetan gaztelania nagusi (7)
- Eskualdeburuek eragina dute hizkuntza jarrera eta erabileran (8)
 - DBH egitera joaten dira horra eta gaztelaniaz hitz egiten hasten dira, euren jatorrizko herriko ohiturak aldatuz (adib. kuadrillan eta anai-arreben lagunekin (9)
 - Inguruko herrien egoera soziolinguistikoa ez da homogeneousa eta dinamika ezberdinak agertzen dira bertako herritarren artean (10)
 - Hiriburuen polo geografikoan daudenez gero, bertako egoera soziolinguistikoak arnaguneetako herritarrei eragiten die (11)
- Herri txiki batetan hazteak hizkuntza-ohiturak zaintzeko aukera ematen die (12)

- herri mailako kohesioa ahula denean horrek ondorioak ditu, baita hizkuntzen erabileran ere (13)
 - Herriko eragile ezberdinen arteko koordinazioa euskara bultzatzeko (14)
 - bizitasunik gabeko herria da (15)
 - Beste eskoletako kideekin harremana ez da ona (16)
- Herriko euskalkiak hizkuntzen hierarkian parte hartzen du (17)
 - Herriko euskalkiak garrantzia du euren nortasunerako (18)
 - Euskalkia erraz erabiltzen da herri edo eskualdean, baina hortik kanpo euskara batua behar izaten dute (19)
- Herriko helduen ohiturek eragina dute herriko hizkuntza erabileran (20)
 - Haurrek askotan eusle zereginak betetzen dituzte helduen aurrean (21)
 - Herriko nagusiagoekin, urte gutxiko adin-tartea egon arren, gaztelaniaz egiteko joera handiagoa dago, nagusiagoen indar edo prestigio handiagoak gazteagoengan duen eraginarengatik (22)
 - Anai arreben artean gaztelaniaz egiten dute, baina ez hainbeste bakarka daudenean, baizik eta beste lagun batzuekin batera (23)
 - guraso gehienak euskaldunak dira, familian ordea denetarik dago (24)
- Frantsesa hizkuntza garrantzitsua da Beran lau arrazoiengatik (politika, kanpora joateko, Ibardinen lan egiteko eta inguruko hizkuntza delako) eta herriko hizkuntzen parte da, baita herritar askoren egunerokoan ere (25)

Euskal Herriko faktoreak (53)

- Euskararen biziberritzea bidegurutze batean dago (1)
 - Hizkuntza politikaren irismena eta onarpena zalantzan (2)
 - Baliabideak falta dira udalerrietan agertu diren egoera berriak kudeatzeko (3)
 - Hizkuntza politikari askoz gehiago eskatzen zaio (4)
 - Euskara beharrezkoa egitea (5)
 - Baliabideak jartzea (6)
 - Ekimenen aldeko apustua egitea (7)
 - Eragileekin harremanik ez izatea (8)
 - Pandemiaren bueltan euskara sustatzeko ekimen asko bertan behera gelditu dira (9)
 - Euskararen biziberritze prozesua aldatu egin da (10)
 - Herritarren aktibazioa
 - Hizkuntza kontzientzia jaitsi da eta euskararen biziberritze prozesuak nekea eta ezkortasuna eragiten ditu (11)
 - Euskararen aldeko militantziak ez du erabateko onarpenik eta ez du ilusiorik pizten (12)

- Euskara nola sustatu daiteke maila diskurtsiboan gaur egungo egoeran? (13)
 - Euskara hutsean hitz egitea gaizki ikusia dago, problematikoa da (14)
 - Euskararen biziberritzean dena eginda dagoen ustea zabalduta dago eta horrek hizkuntzarekiko atxikimendua eta militantzia apaltzen ditu (Gipuzkoako sindromea) (15)
 - Euskara karga edo gure gain hartu beharreko borroka ez izatearen garrantzia (16)
 - Guraso eta helduek ez diete euskararekiko atxikimendua transmititzen seme alabei (17)
 - Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren inguruko ezagutza eta hautemateak (18)
 - Euskaldunon hizkuntza eskubideak zapaltzen dira (19)
- Gaztelaniak izugarritzko erakarpen eta presentzia du, baita udalerri euskaldunetan ere (20)
 - Hizkuntza ibilbidean guztiz elebakarrak diren herritarrak daude, inguruko hizkuntza ohituretan eragiten dutenak (erdararen militanteak) (21)
 - Munduarekin eta arauekin errebelatzeko modua da gaztelaniaz hitz egitearena (22)
 - Gazte hizkera landuagoa dute gaztelaniaz eta adierazi nahi dutena modu informalean adierazteko nahiago izaten dute gaztelania (23)
 - Erdaraz hitz egitea ez da txarra, inertzia ohitura gaztelaniaz egitera darama (24)
- Atzeritar jatorrikoen presentziak sortutako egoerak daude hizkuntzen esparruan (25)
 - Atzeritar jatorrikoen hizkuntza integrazioa kezka iturri da (26)
 - Ibilbide ezberdinak dituzten etorkin jatorriko herritarrak daude: batzuk erraz hurbiltzen dira euskarara, beste batzuk ez (27)
 - Etorkin jatorriko herritar batzuek gaztelanian hartzen dute babes (28)
- Herritarren hizkuntza ohiturak kaltegarriak dira (29)
 - Bikote mistoetan euskararen erabilera oso aldakorra izan daiteke eta hizkuntza-ohiturak oso erdaldunak izan daitezke horrelakoetan (30)
 - Mutilek joera gehiago izaten dute gaztelaniaz hitz egiteko (31)
 - Praktikotasunarengatik hitz egiten da gaztelaniaz, gehienek ondo dakitelako gaztelania (32)
 - Gaztelaniaz zuzentzen zaizkienean gaztelaniaz erantzuten dute (33)

- Hizkuntza hautatzerako orduan aurreiritziak eta barneratutako ideiak indartsuak dira oraindik ere (34)
 - Zaila suertatzen da hizkuntza ohiturak aldatzea (35)
 - Herriko familia eta kuadrillen artean ezberdintasunak daude hizkuntza-ohiturei dagokienez (36)
 - Euskaraz hitz egiten dela pentsatuta ere, gaztelania asko erabiltzen da euskarazko solasaldietan (37)
- Euskara erabiltzeko zailtasunak, baita udalerri euskaldunetan ere (38)
 - Jolasak gaztelaniaz egiten dituzte (39)
 - Herriko eta Euskal herriko hizkuntza erreferenteak behar dira (40)
- Udalerri euskaldun batean bizitzearen onura eta ajeak (41)
 - Guraso batzuek, erdaldunak askotan, esfortzu handia egiten dute euskara ahal duten moduan bultzatzeko (42)
 - Euskaldun bezala identifikatzen dituzte udalerri euskaldunetatik kanpo (43)
 - Euskaldun hiztunak errazak dira identifikatzen (44)
 - Euskaraz nabarmen hobeto moldatzen diren haurrak ere badaude gaur egun (45)
 - Norbere udalerritik herri erdaldunago batetara ateratzerakoan, askotan herritarrek joera dute gaztelaniaz hitz egiteko (46)
 - Udalerri euskaldunetako herritar batzuek konplexuak dituzte euskaldun elebakar izatearekin eta, gaztelaniaz ez ikasteko beldurrez, gaztelaniaz asko egiten dute (47)
 - UEMAko udalerria izatearena zalantzan jartzen dute herri batzuetan, euren herriko egoera soziolinguistikoak bizi izan dituen aldaketengatik (48)
 - UEMAko beste herri batzuekin konparaketak egiten dira (49)
 - Hitzun berriekiko sentiberatasuna ez dago guztiz bereganatuta euskal hiztun batzuegan (50)
- Haurtzaro eta nerabezaroa, garai berezia hizkuntza gutxitu batentzako (51)
 - Nerabazarorako oinarri batzuk finkatu behar dira euskararekin, bestela zaila izango da heltzerakoan euskarara berriro ere hurbiltzea (52)
 - Oraindik gaitasun eta kontzientzia elebidun-eleaniztuna ez dute guztiz garatuta (53)

Faktore orokorrak (9)

- Hautzaroa eta nerabezaroa garai funtsezkoak dira nortasunaren eraikuntzarako (1)
 - Mundua ezagutu nahi dute eta ingelesak ordezkatzeko du mundua; euskara mugatzailea da (2)
 - Ez dugu haurren mundu edo errealitatea ondo ezagutzen (3)
 - Ez da erraza umeei aginduak edo argibideak ematea, gaur egun askoz sentiberagoak dira (4)
- Gizarte eredu berri bat garatzen ari da (5)
- Haur eta helduen arteko harremana, dinamikak eta gatazkak (6)
 - Ikusten dutena egiten dute haur eta gazteek, baita euskararekin ere (7)
 - Alde handia dago gurasoen esaten dutenaren eta ikasleen esanaren artean (8)
- Elebatarrek eta politika elebatarrek ahalmen handia dute hizkuntza gutxituen bizi-ondarrian eta hiztunen egunerokoan (9)

Ikus-entzunezkoak (28)

- Nazioarteko ikus-entzunezko eta edukien kontsumoan ohitura berriak garatu dira (1)
 - Pandemiaren geroztik, ikus-entzunezko plataformen, sare sozialen eta interneten kontsumoa eta garrantzia izugarri handitu da (2)
 - Telesista ez da gaur egungo bizimodurako baliabide erakargarria (3)
 - Funtsezko gaia bilakatu da hau, bai fenomenoaren agerpenaren indarrez gatik, bai haurren eguneroko eta nortasunean izan ditzakeen ondorioz gatik (4)
 - Harremanetarako modu berriak sortu ditu (5)
 - Hizkuntzekin jolasteko eta gozatzeko modu berriak sortu ditu (6)
 - Gaur egungo haur eta gazteek ingelesezko bideoak ikusten dituzte azpidatziekin (adib. bideo-jokoei) (7)

- Plataforma eta espazio hauetan, eduki gehiena gaztelaniaz eta ingelesez dago eta horrek hizkuntza hauen irismena areagotu du nabarmen (8)
 - Denbora-pasa eta zaletasun gutxiago dituzte haurrek (9)
 - Hizkuntza hedatzaileen balioa indartzen da logika honetan (10)
- Kultura kontsumoak udalerri euskaldunetako haurretan izandako ohiturak
 - Orain arte euskara hutsean (edo nagusiki euskaraz) aritzen ziren haurrek mota guztietako hizkuntzetarako sarbidea izatea (11)
 - Hizkuntza hauek azkarrago eta goizago ikasten dituzte (12)
 - Udalerri euskaldunetako haurrek Hegoamerikako gaztelaniazko hitzak eta esapideak ikasi eta erabiltzen dituzte euren egunerokoan (13)
 - Nazioarteko beste kultura batzuetarako atea ere ireki zaie (14)
 - Haurrak nazioartera begira jarri ditu honek (15)
 - Haur eta gazteen erreferente berriak, honenbestez, kanpotik datoz eta ez dute euskaraz hitz egiten (16)
 - Euren kultura kontsumoak eraginak ditu hizkuntza-jarreretan eta hizkuntza hautuetan (17)
 - Eragile eta gurasoak jokoak kanpo utzi ditu eta bertan esku-hartzea zaila da momentu honetan (18)
 - Seme-alaben kultura kontsumoaren berri izatea oso zaila da (19)
 - Guztiz arrotzak zaizkien eduki eta hizkuntzak sartzen dira, baita euskararen militanteak diren etxeetara ere (20)
 - Musikako eskaintza oparoa izan arren euskaraz, kontsumitzen duten musika gehiena gaztelaniaz (eta ingelesez da) (21)
- Euskarazko edukia
 - Erdarazko eskaintza asko handitu da, eta euskarazkoa, berriz, ez (22)
 - Interneten aurkitu nahi dutena ez dago euskaraz eta ETBk eskaintzen duena ez da nahikoa (23)
 - Adin-tarte eta eduki mota guztietako programak eskaini beharko lituzke ETBk (edo edozein plataformak) (24)

- ETB1 eta ETB3-k n haur eta gazteentzat eskaintzen duten edukia kopuruan oso urria da eta 10-12 urtetik gorakoentzako ez da erakargarria, gainera (25)
 - Goazen eta Irabazi arte haurrentzako telesailak azpimarratu genitzake (26)
- Lehen euskaraz ikusi zitezkeen produktu erakargarri gaur egun gaztelaniaz ikusten direla (27)
- ETB3 Nafarroan ezin da ikusi (28)